



Baleike



Zumaian lasterzaleakgi berri



Epaiketaren zai



Itzurun zaharrea eguzki berria




Xabier Kalparisoru: argitu gabeko heriotza




Biziklapearen garrantzia



Historialaren trema berreskuratut nahian



Suharrai herria Zumaiarekin senideturik



Abelin Linazasoro Xatorrekin hitzetan



Itxaso nahasia arrantzearen artean



Monjavarrek ora pro nobis



DANOK TXUPINAZOAREN ZAI!



Taldira eta jendekoa



Itxaso Tokoa, herriko arkiteta bat



Motako ingeniariaren hitzetan




Surtistak, olatu guzian dantzaz



Goiko plazan jende gutxi



Badator!!



Inaki epaitua



Urolako argularen atzetik



Igar Herriaren Euzaldiko Txapelketa



Patzagarraren multzoak Erribera Jaizkoa



Zumaian izateko jantziak



San Telesforoaren sarkoa



Zenik zaitzen diru gure anekak?



EHUren ikerketa bat kirol portuaren aurrak



Etxabetarrei omenaldia



24 ordu antxoaren arrantzan



24 ordu antxoaren arrantzan



Urola ibaia aztertuz



Barrako proiektua legez kanpo



Errioxan Paternina ruguk




Azken ikutuak ikastetxe berriari



Kirol Portu lanak



Txapelketa Finalan



Txapelketa Finalan



Kirol portuaren berri



Baleia eta arrantza



100 urte




100 urte



100 urte



100 urte



100 urte



Kirol portuaren berri



Baleia eta arrantza




100 urte



100 urte



100 urte



100 urte



100 urte

Harrigarria, ezta? Baina hala da: agur. Baleikeren jaiotzan genituen helburuei begiratuta, gehienak bete ditugulakoan gaude: aldizkaria ireki bat sortzea, herriari hitza ematea, euskara zabaltzea eta euskaraz irakurtzeko ohitura sortzea zumaiararren artean. Horiek guztiak bete ditugu, eta baita gehiago ere. Horregatik, agur esateko garaian ez da hain gogorra egiten.

Badira, ordea, bete ez ditugun bi helburu, eta horiek ere bazuten bere garrantzia:

- **Herriaren inplikazioa.** Ez dugu inoiz lortu aldizkarian herriko jendeak guk nahi adina parte hartzea: antolakuntza mailan, iritzi-emate mailan, zabalkundean...

- **Sendotasuna.** Ez bakarrik denboran iraungo duen aldizkari bat izatea, baizik eta iraute horretan sendotasun bat izango duena. Horretarako, garbi dago talde baten babesasun jaso behar duela. Hasieran, Gazte Batzordea bezalako taldea zuen atzean, eta orain lagun koadrila bat besterik ez gara. Horrelako proiektu bat arrakastatsua izan dadin, uneoro babestuko duen kultur talde baten beharra dago beti, eta guk ez dugu hori lortu.

Dena den, badugu oraindik bi helburu horiek betetzeko asmoa. Ez Baleike bezala, baina bai agian bestelako formula baten bidez. Zortzi urteko historia da gurea, eta urte horietan jasotako esperientzia, informazioa, eta orokorrean aldizkari bat egiteko jakintza hori guztia alferrik galtzea bekatu larria iruditzen zaigu.

Honakoa da, beraz, proposatzen dizuegun asmo berria: Baleike argitaratzeari utzi, baina komunikabide berri bat kaleratzeko asmoarekin.

Komunikabide horren nondik norakoak (izena, formatua, estiloa, edukiak...) ez dakigu zeintzuk izango diren, ez baititugu guk erabakiko. Horretarako, herriaren inplikazioa eskatzen dugu, hau da, horrelako proiektu baten beharra ikusten duten pertsona, talde, alderdi orok parte hartuko duen proiektu bat. Guztion artean eztabaidatu eta erabakiko dugu nolako komunikabidea behar dugun, baina ez hori bakarrik: lehen esan bezala, komunikabide batek badu babestuko duen kultur talde baten beharra, eta hori ere sortu beharra dago. Proiektua, beraz, guztion artean biak sortzea litzateke. Guk urte hauetan jasotako esperientzia eskainiko diogu sorrerako talde horri, komunikabidea eta kultur elkartea sortzeko behar diren pauso guztietan lagunduz eta bultzatuz, baina ondoren jaioko den ekimen berrian ez dugu parte hartzeko asmorik, beharrezkoa ikusten dugulako jende berria izatea, ideia berriekin, honen guztiaren ardura hartuko duena.

Esan bezala, bi helburu horiek utzi ditugu bete gabe, baina oraindik ere guztion artean beteko ditugula uste dugu. Mila esker urte hauetan guztietan emandako laguntza eta babesarengatik. Ederra izan da benetan guztion artean lortu duguna, eta are ederragoa izango da lortuko duguna. **BALEIKE**

OHARRA:

Ale honetarako iritzia eman duten batzuek, Baleike itxi egingo zela jakin aurretik idatzi zuten euren zutabea.
Aldizkari batean ezin da 8 urteko lana laburtu, agian oso garrantzitsuak ziren gauzak kanpoan geldituko ziren, ze ingo yeu ba!

DEIALDIA

LEKUA:

Martxoak 23, goizeko 10:30etan Oxford aretoan.

EGIN BEHARREKOA:

Proiektu berria sortzeko lehen pausoak zehaztea


PARTE-HARTZAILEAK:

Euskararen alde lan egingo duen talde eta komunikabide baten jaiotza bultzatu nahi duten pertsona, talde, alderdi... guztiak

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak





Iratxe Aizpurua Agustin Aizpurua
Esther Martinez Zumaiako Institutua
Itziar Manzidor Romu Artetxe
Xabier Azkue Jon Imaz
Igor Uranga Ladis Rivas
Josu Waliño Jexuxmari Martin
Gorka Zabaleta Juan Luis Blanco
Amaia Korta Abelin Linazisoro
G.E.G. Josu Aizpurua
Zumaiako Natur Taldea Suspertu Kultur Taldea
Miriam Romatet Ingurugiro Tailer Eskola
Aitor Leiza Esther Aizpurua
Imanol Manterola Joseba Ossa
Arte Taldea Jonathan Bernal
Juan Luis Romatet Antxoka Agirre
Ander Hormazuri Rikardo Zengotita
Dani Carballo Iñaki Zubimendi
Izar Martin Andoni Ormazuri
Bertil Lagerström Itziar Uranga
Jon Manzidor Manu Uranga
Esti Esteibar Ane Osa
Luis Mari Aizpurua Uxua Ostolaza
Kepa Aizpurua Aitor Bayo
Jon Ander Garcia Aloña Manzidor
Javier Carballo Aintzane del Pilar
Itsaso Urruzuno Aran Santamaria
Josu Egaña Euskaldunon Egunkaria
Arantxa Eizagirre Esther Etxeberria
Txomin Plazaola Imanol Azkue
Eneko Dorronsoro Haize Galarraga
Ainhoa Iturbe Eva Franco
Mattin Eguzki Agirrezabalaga
Igone Korta Xabier Aizpurua
Nerea Unanue Xabier Aranguren
Argi Aizpurua Jon Maia
Mikel Lizaso Jon Sudupe
Xara Joxe Mari Llavori
Ismael Manterola Inaxio Tolosa
Iñaki Unanue Belen Golmaio
Inaxio Manterola Izaga Garcia
Koldo Landaluze Beñat Fernandez de Arroyabe
Joxe Joakin Aizpurua Ihintz Linazisoro
Argazki Elkartea Jose Manuel Gonzalez Aramendi
Eulali Alberdi Kontsumo Elkartea
Karmelo Arroiabe Ludoteka
Joxe Etxabe Luis Llavori
Amaia Benito Josu Uranga
Fran Aizpurua Itsaso Ibarra
Ostarrena Zine Klub Taldea Maitane Urbieta
Bertso Eskola Unai Armendia

Hurtzaindegi bat Zumaian

Zumaian, betidanik izan da hurtzaindegi bat sortzeko nahia, baina arrazoi bat edo beste dela medio, ez dakigu ziur zergatik, oraindik ez da asmo hori burutu. Hutsune hau bete nahirik, proiektu bat egiteko erabakia hartu genuen, Zumaia duen behar sozial eta kultural honi irtenbide bat ematearren.

(BELEN AIZPURUA, AMAIA URANGA, ARANTXA URANGA. 1994ko ekaina 1. zenbakia)

Hurtzaindegia?

Galdera hau bat-batean botako bagenu ez lioke inork ezetzik emango. Baina erantzuna eman aurretik, nola? Non? ze errekurtsorekin? etab. aztertuko bagenu ez dut uste erantzun berdina izango genukeenik.

(MONTSE ARANA, hezkuntza zinegotzia. 1994ko ekaina. 1. zenbakia)

Sortu da Zumaia Herri Eskola

1994ko uztailaren 20an Zumaian gertatu zena ez zen nolana hiko gauza izan. Hilabete batzuen elkarriketaren ondorenean Zumea Ikastola, Julene Azpeitia Ikastetxe Publikoak eta Zumaia Herri Eskolaren Elkarketa Agiria sinatu zuten (...)

Urriaren 17an hiru ikastetxeen arteko Batzordea eratzeari ekin zitzaion, eta honekin elkartze prozesua martxan jarri. Era honetan, ezagunak ditugun ikastetxeak desagertuz joango dira, gure eskola berri hori indartu eta sendotzen doan heinean.

(Zumaia Herri Eskola. 1995eko urtarrila. 8. zenbakia)

Baleikek alkateari eta Zumaia

- 1- Ez dugu ulertzen zer dela eta kritikatu behar duen gure aldikaria Jon Albizuri erantzuteko (...)
- 2- Ez da egia Zumaia Herri Eskolaren argitalpena finantzatzeko duenik". (...) Udalak emandako DIRULAGUNTZA 355.000 pezetatakoa da, gastu errealaren %17a.
- 3- Ez da egia Udala "zuzentzen duten arduradunei ahal duten kaina gehiena ematen" saiatzeko garenik. (...) edozein gairen aurrean udaletxera jo dugu informazioa kontrastatzeko asmoz.
- 5- Informazioaren objetibotasunari dagokionez, gogorarazi behar diogu Ricardo Peñari, Baleike sortzerakoan udaletxera laguntza eske joan ginenean jarri nahi izan ziguten baldintza: argitaratuko genuen informazioa kontrolatuko lukeen udal zentsore bat Baleikeko taldean egotea (...)

(1996ko martxoa. 22. zenbakia)

Alkatearen erantzun irekia

BALEIKERen argitalpena finantzatzeko dugu (1995ean 355.000 pezeta) eta informazio objetiboa eskeini beharrean, Udala zuzentzen duten arduradunei ahal duten "kaina" gehiena ematen saiatzeko dira, oposizioan dagoen indar politiko bakarrari "kantxa" emanaz, HB-ri. Hala ere, Gazte Batzordeak hilerok hilerok aldikari hau ateratzeko egiten duen lana baloratzen dugu.

RIKARDO PEÑA. ZUMAIKO ALKATEA.

(22. zenb. 1996ko martxoa)



Hontzak arriskuan. Zertarako argi horiek?

Denetarik entzun dugu: parrokia lapurtu egingo dutela beldur direla; Iberduerok propaganda egiteko era bat dela (ze merke dagoen argindarra!); (...) Sondikako aireportu bidean erreferentzia berria dela hegazkinentzat; Debarrei inbidia emateagatik dela; elizara jende gutxi joaten dela-eta, horra hor parrokoaren inizatiba berria, hor daudela gogorarazteko (...)

Horregatik, eguzki betaurrekoan neurri zehatz eta erraz hori hartzea erabaki dugu. Optika batek ere beherapena agindua digu, baldin eta gero hontzei argazkiak ateratzen badizkiegu, eta horretan ere saiatuko gara.

(P.H.B.E. Parrokiko Hontzei Eguzki Betaurrekoak. 1995eko ekaina. 13. zenbakia)

Itzurun irratia

Dial numerikoa duen aparatu batez baliatuz, ikusi nuen banda guztia hartua zuen emisora hori Itzurun Irratia zela, 107.2 frekuentzian emititzen duena (...).

Pertsonalki ez dut ezer bertako emisora honen edo bere arduradunen aurka, baina iruditzen zait ezin dela emititzen ari diren potentzia horrekin emititu, horrek beste emisora batzuk entzun nahi ditugun zumaiarrontzat kalte larriak dakartzalako.

(Jose Maria Etxabe. 1995eko azaroa. 18. zenbakia)

Alkate Jaunari

Kaixo Alkate jauna!!
Gu, Oikiako mutil gazteak gara.
Gure eskakizuna bi porteri txiki ekartzea da. Asko eskertuko nizuke eskari hori betetzea.

Doinua: Pasaiaiko plazatik

Porteri pare bat guk genuke eskertu porteri pare hoiak guk gustora hartu gure eskakizuna dago zure esku sartuko diteun golak zuri dedikatu Mila esker!!!

(ekartzen baduzu)

1996ko apirilaren 15a, astelehena.

(AITZOL OLIDEN- JUAN LEGORBURU. 1996ko maiatza. 24. zenbakia)

Itzurun Irratiak Zumaiako Herritarrei

J.M.E-k aipatzen dituen espektro radioelektrikoko akatsak ekipo emisorean izandako aberia baten ondorio izan daitezke (...)

Ez da inoiz emisora honen asmoa izan bestelako programazio aukera bat, euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan, entzun nahi duten pertsonen kalte egitea, ezta FM guztia hartzen saiatzea ere (...)

(ENRIQUE ARCE PEÑACORBA. Itzurun Irratiko zuzendaria. 1995eko abendua. 19. zenbakia)

Errepika, Andika

Hala esaten zuen Txiskolako pertsonaia batek, eta badirudi ETBko programazio arduradunek serio hartu dutela. Edo baliteke Canal Plus kalitatezko telebistaren eredutzat hartu izana, eta horregatik programak hamaika aldiz errepikatzea. "Saiak97"-koen atzaparretan eroriz gero, parranda bakoitzeko lau mozkorraldi dituzu ziurtaturik, eta elebidunak gainera. Sistema honek abantailak baditu noski. Mendeko partiduak izan diren Athletic-Almeria eta Real-Lagun Onaken lehen emanaldia galduz gero, ez dago arazorik, hurrengo egunean, eta berriro zuzenean -harrigarria ezta!- ikusteko aukera baitago. Laster lehendakaria Joxe Lontxo maitagarria dela pentsatuko dugu; Maider Egues eta Angel Alkain informatibotan ikusiko ditugu, eta Andoni Aizpuru Kili Kolon; eta martxa honetan, aurreko eguneko Gaur Egun errepikatuko digute hurrengo goizean. Badakizue, badaezpada norbaitek galdu badu. ETBko txoritxo Lorito xamarra atera zaigu.

GORKA ZABALETA

(38. zenb. 1997ko iraila)



Ataria

Txikiteoa, ohitura edo ihesbidea?

Igor Uranga
"Moffi"



Hain errotuta degun ekintza hau gainbegiratzeko gogoa eman dit. Txikiteoa edo poteoa, zer da, zer mugitzer da honen inguruan? Beti entzun izan degu, gure herriko ohitura zahar bat dela, lagunen topagune bilakatzen dena. Oso ondo dago hau eta ideia erromantikoa da, baina egiazkoa? Jakina, denetarik egongo da, baina gazte nahiz helduengan ihesbide bat bihur daiteke.

Gure gizartean halako giza harremanak koadrila bidez ematen dira oru har, eta norberaren eginbenarreatatik asteburuetan elkarbiltzen dira soilik txikiteoan. Txikiteoa egin, kargatu, ondo pasa eta agur. hurrengo astebururarte. Hau al da lagunen topagune? Hau azaleko harreman inraszendentala da egun hainbat tokitan jende askok praktikatzten duena.

Ez da kritika bat, errealtatea da, inguruneari so egitea besterik ez degu. Txikiteoa kenduz gero, zer? Biluzik. Gabeziak, beldurrak kanporatzen dira, benetako errealtatea gordina azaleratzen da. Ohituraren aitzakipean ihesbidearen mamua ezkutatzten degu.

Gutxiago edo gehiago, neurri batean edo bestean, horrela gertatzen da.

Oikia ez da Zumaia

Ez da, ez zen eta ez da izango ere. Zertarako? Oikiak badu bere nortasuna, badu eskola txikia, badu elkartea, baditu jatetxe eta erretegiak, baditu oilaskoak, badu bere nekazalturismoko etxea, badu industria, baditu artelanak, badu bere hitano eta hizkera, badu historia eta baita errepublika garaian independentzia lortu izanaren oroimena ere. Ezberdinak gara izatez, eta askotan zumaiarrek argumentu gisa erabili izan dute auskalo zer justifikatzeko. Ezetz? Zenbat aldiz entzun dugu honakoa "Ufffff!!!! Oikiarra izan behar!". En fin, badakit zumaiar askok hau dena onartzen dutela, baina beste mordoxka bat egoskor-keria zentralista, uniformizatzaile eta nortasun bakarraren aldeko frontean ari dira (identifikatua sentitu denak baditu kezkatzeko arrazoiak, ezta?). Beno, ba, hori, Oikia ez dela Zumaia, eta kitto!!!

XABIER AIZPURUA

(76. zenbakia, 2001eko otsaila)



NEWS AT TEN

Idatzi nahi nituzke bertso bat edo bi Londrestik bidaliak Uranga jaunari Ekintza urri eta palabra ugari hutsala ez al zaio iruditzen honi ejuplorikan gabe predikatze hori.

Baleike hartu eta nago harrituta joan den otsaileko kronika letuta haizerik gabe ezin putzegin turuta zein izango ta, Moffi... inckauen la puta zitur idatzi dula erdi kargatuta.



Londoneko enbiado espaziala: JON BRAUN lankidea

1996ko martxoak 22. zk.

BALEIKE

3

Haunditzen, haunditzen.

Buruan ditudan ileak adina alditan entzun izan diot Getariako osaba arrantzaleari "Oikian etzion ize!" esaldia, adar jotze ugari ere jasan behar izan ditugu herritik kanpo ezagutzen joan garen lagun eta ezagunen-gandik. Baina azkenaldian gauzak zeharo aldatzen ari direla esango nuke: lasaitasun bila ote datoz?, beste lekuetan baino etxebizitza merkeagoak al daude gure herrian?, edo entzun ditugun guztiak entzun arren, gustuko ote dute gure 'herri txiki eta aspergarria' ?(...).

(OHIANA ZULAIKA, 2001eko urriak 19. 92. zenb.)

Sexu etiketak

Naparheid aldizkariaren ale zahar batean bazen komikitxo bat. Bertan, emakume sentsual eta txirlabero batek gizon bati galdetzen zion: "Zu zer zara: heterosexuala, homosexuala, bisexuala edo transexuala?". "Ni sagitario" erantzun zion besteak akonjatuta. Txisteak txiste, esango nuke gaur egungo "liberalismosasiprogresista" honetan gizarteak emakume haren papera betezen duela, eta guztiok zerbait izatera behartzen gaituela. "Nahi duguna izaten" uzten digute, baina behin aukera egindakoan, esan argi zer koloretako etiketa hautatu duzun, inork zalantzarik izan ez dezan. Bi hitzetan, zakilen eta aluen artean aukeratzera bideratzen gaituztelakoan nago, eta ez pertsonen artean. Hitz bakar batean garenaren definizio zehatza eman behar zaio gizarteari, eta ni behintzat definizio lehor bat baino aberatsago sentitzen naiz. Zu? Zerbait izateari utzi eta norbait izatera pasa behar dugu. Norbait atsegin badugu eta berarekin gustura sentitzen bagara, maitatu aurretik hankartera begiratu behar al diogu? Sexu etiketak alde batera uzteko garaia da.

(XABIER AIZPURUA. 2001eko azaroak 16. 94. zenb.)

Argi misteriotsuak

Kaixo lagunok.

Ea mesedetxo bat egiten diguzuen.

Egun batzuk badaramatzagu Pulpoko plazoletan eztabaidan, ea ilunabarrean zeruan ikusten diren "objektu" argitsuak (bi ipar-mendebalera Askizu gainean eta bat hego-mendebalera Foronda gainean) izarrak ala gizakiak egindako sateliteak ote diren.

Sateliteak direla baieztatzen dutenek diote izarrek ez dutela hainbeste argitzen, eta gainera, izarrak izango balira askoz gehiago ikusi beharko liratekeela zeruan.

Sateliteak ez, baizik era izarrak direla uste dutenek, berriz, argudiatzen dute sateliteak izango balita espazioan azkarrago mugituko liratekeela orbita ez galtzarren, eta ez dirudiela objektu horiek asko mugitzen direnik.

Ez inork argibide egokiak ematen dizkigun. Eskerrik asko, aldeztatik.

PULPO ALDEKO LAGUN TALDE BAT (74. zenb. 2000ko abendua)

*Eskutitzak popliteratean***Karrera ziklista**

Kaixo alkate jauna:

Zer moduz zaude?
Bizikleta karrera bat antolatzea nahi nuke.

Ibilbidea honakoa:
Eusebio Gurrutxag plazatik Egurko pareko rotondaraino, eta handik Amaiako plazara. Hori bai Udaltzaingoa zaindu beharko luke trafikoa eta Anbulantzia bat ere beharko litzateke. Neri asko gustatzen zaizkit bizikletak eta komunioan bat oparitu zidaten. Beno espero dut desioa errealitate bihurtzea. Agur eta eskerririk asko.

Anartz Rubio. 8 urte.

Kexa

U bat behar dugu herrian, jende asko bait gaude monopatinarekin ibiltzen garenak. Garbera moduko zentru komertzial handi bat erosketak egiteko, hospital handi bat gaixoentzako eta etxe gehiago jendea bizitzeko. Gauzak hobeto organizatuta egon beharko lukete aurten oso desordenatuta egon dira eta.

Xabier Centeno. 9 urte.

Nire gustuak

Gustatzen zaizkit kaneloiak, arroza, arrautza, arraia, purea, jolastea eta eskolara joatea. Baita ere gustatzen zaizkit xerra, bainak, espagetiak, makarroiak eta bokadiloa. Ludotekara joatea, telebista ikustea, lo egitea, jolastea, marrazkiak egitea, zinera joatea eta igerian egitea.

Amaia Uranga. 6 urte.

Aspertuta nago

Ez zait gustatzen eskolara joatea. Espagetiak jatea, txamarra janzea, soinekoak janzea, eskuak garbitzea, nire ahizpak margoak puskatzea, pelikula beldurgarriak ikustea eta azkenik igerian egitea.

Amaia Lopez. 6 urte.

kirol portua



Zumaia eta kostaldea bizirik

Lehenago larunbatean, hilaren 25ean, kirol portuaren aurkako manifestazioa izan zen gure herrian eta antolatzailerak, Zumaia Bizirik taldekoak gustura agertu ziren jendearen erantzuna ikusita. (...) Euri zaparrada zela-eta, jendea ahal zen tokian gordetzen zen bitartean, Zumaia Bizirik eta Itsas enara taldeetako partaideek idatzi bat irakurri zuten megafoniatik, paduraren babesa aldarrikatzen zuena. (...) Zenbait musikariren laguntzarekin bertso eta kanta batzuk abestu ziren eta ondoren, nahi zuenak txitxarroa dastatzeko aukera izan zuen.

(2. zenbakia. 1994ko uztaila)



Kirol portuaren aurkako protestaldia baltsa batean

Zumaia Bizirik taldeak antolatutako eta 20 egunetan zehar, kirol portuaren aurka protesta egiteko era bitxia aukeratu dute: baltsa batean "akanpada" egitea. (...) Honekin Zumaia Bizirik taldekoek Santixoko ingurunea babestu beharreko gunea dela adierazi nahi izan dute, kirol portuaren proiektua salatzearekin batera. (...) Bien bitartean, eskoilera eta paolmuturreko obrek aurrera

segitzen dute, eta kamioien trafikoa handia da. (4. zenbakia. 1994ko iraila)

Barrako obrak geldiarazi ditu Euskal Auzitegi Gorenak

Auzitegi Gorenak Josu Urangak Zumaia Bizirik ordezkarari moduan aurkeztutako errekurtsioa onartu zuen, urtarrilaren 4an hartutako erabakian. Errekurtsio honetan, obrak gelditzea eskatzen zen, legeak esaten duenez, aurretik ingurugiroan izango duen eragina neurtuko duen ikerketa bat egitea beharrezkoa baita, eta kasu honetan ez delako horrelakorik egin. (...) Zumaia Bizirik ustez, obra hauek gelditzearen arrazoi nagusia proiektuaren arduradun politikoen intransigentzia datza. (...) 94ko urte hasieran ekin zioten obra honi, eta aurtengo urri edo azaroa aldera bukatzeko asmoa zuten...

(1995eko otsaila. 9. zenbakia)

Kirol portuaren aurka 175 alegaziotik gora

Proiektua erakusgai egon den bitartean 175 alegaziotik gora aurkeztu dituzte herriko eta kanpoko hainbat talde eta pertsonak. (...) Zumaia Bizirik taldekoek adierazi digutenez, proiektu honekin oso loturik dagoen Zumaia herri turistiko eta bigarren etxebizitzakoa izatearen aurka jarri dira alegazio gehien eta datu sozio-ekonomikoen manipulazioa ere salatu dute 135 pertsona baino gehiagok. (1995eko martxo. 10. zenbakia)

Kantauri itsasoa haserre

Inauguratu zutenetik astebete ez zen igaro, eta gure Kantaurik frogatu zuen ezinezkoa dela itsasoa menpean hartzea. Harrizko bloke handi horiek arranpla lanak egiten zituztela zirudien, eta olatuak izugarritzko indarrez lehertzen ziren. Horrela, tona askotako bloke batzuk mugitu zituen eta lehengo barrari ere "urratu" ederra eman zion, bospasei bloke behealde-raino bultzatuz. Bestalde, zenbait zulgune azaldu dira barra berriko

zoruan, itxura denez behar bezalako asentamendurik ez duelako.

(1996ko martxo. 22. zenbakia)



EHUren ikerketa batek kirol portuaren aurkako ondorioak atera ditu

Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek 94an egindako ikerketak dioenez, Santixoko padura balio handiko natur gunea da, eta bertan egin nahi den kirol portuak eragin zeharo kaltegarriak eragingo lizkioke. Gainera, padura hazten ari da, eta bertan bizi diren animalia eta landare kopurua asko ugaldtu da 83tik hona. (...) Emaizta hauekin, bertan kirol portu bat egitearen aurka azaltzen dira ikerketaren egileak. (...) Batera-ekin dira paduraren babesa eta kirol portua. Bata edo bestea aukeratu beharra dago. (1996ko uztaila. 26. zenbakia)

Eztabaida bizia

Oxfordeko bileran

Zumaia Bizirik taldeko partaideek planari buruzko azalpenak eman zituzten. (...) Era berean, Udalaren jarrera salatu zuten, eta dena ezkutuan egiten saiatzea leporatu zioten. Alkateak (...) Udalean ez dagoela sekretismorik defendatu zuen, eta Jaurlearitza eginkizuna zela plan hau ezagutaraztea. (...) Tentsioak gora egin zuen, 1993ko jardunaldiekin eta geroko azterketei buruzko interpretazio ezberdinak emanez.

(1997ko apirila. 34. zenbakia)

Kirol portuaren proiektua aurkeztu da

Maiatzaren hasieran jakitera eman zenez, Zumaia Kirol Portuaren proiektua ikusgai dago, honen inguru-

giroaren gaineko eraginari buruzko azterketarekin batera. Proiektua ikusgai jarri zenetik, hilabeteko epea egon da alegazioak egiteko. Gaztelania hutsez dauden bi lan hauek, salaketa eta alegazio ugari jaso dituzte, eta baita protesta herritarrak ere. (...) Joan den maiatzaren 25eko El Diario Vasco egunkarian Ricardo Peña alkateak azaltzen zuenez litekeena da obrak irailerako hastea. (...) Zumaia Bizirik-ek salatu duenez, "badirudi alegazio epea amaitu aurretik proiektua onartutzat jotzen dutela".

(1997ko ekaina. 36. zenbakia)

Joan den maiatzaren 24an protesta ekintza bat egin zuten Zumaia Bizirik taldekoek barraren inguruan. Protesta honekin salatu nahi izan zuten "2.000 milioi pezetako inbertsioa suposatu zuen barraren inaugurazioa egin berria delarik. Sarbideko kanalaren sakonera metro t'erdi ingurukoa dela itsasberan. (1997ko ekaina. 36. zenbakia)



Barrako proiektua balio-gabetu egin du Euskal Auzitegi Gorenak

(...) Sententzia argia da: barrako proiektua nuloa, baliogabea deklaritzen da, era honetako lanak exijitzen dituen baldintza batzuk bete ez direlako. Hauen artean garrantzitsuenetakoa da Ingurugiroari Buruzko Azterketa, proiektua onartu ondoren egin baita. (...) Ricardo Peña Zumaiako alkatearentzat, (...) erabakia ez da sorpresa izan. Onartu du akats batzuk egon direla proiektuan. Dena den, kexatu da hemen Zumaian gertatutako ez dela beste herri batzuetan eman. (...) Zumaia Bizirik (...) taldearentzat "Auzitegiak emandako sententzia oso grabea da, gogorra (...) Ricardo Peña

alkateak dimititzea eskatzen dugu".

(1997ko uztaila. 37. zenbakia)



Kirol portuarekin gorabeherak

Guztira, 514 mila metro kubiko baino gehiago dragatu behar dira, kopuru honetatik 369 mila itsasora bota nahi dira (...) Getaria eta Orio arteko itsasgune batean (...) 1993 urtean egindako txostenean azaltzen duenez, material kutsagarriak dira. (...) Gipuzkoako Kofradietako Presidentearen hitzetan (...) "itsasgune horretara botatzea astakeria handia da eta arrantza hondoratu egingo dela seguru gaude". (alkatearen esanetan) material hauek ez dira kutsagarriak, eta beraz, Kofradiakoek diotena ez da egia. (...) Ricardo Peña alkateak (...) ez du inolako gatazkarik sortu nahi kofradiakoekin eta ateak irekita uzten ditu, hondakin guzti hori beste nonbaiten isurtzeko.

(1998ko urtarrila. 42. zenbakia)



Hasi dira kirol portuko lanak

Joan den urtarrilaren erdialdean sartu ziren eskabadorak eta kamioiak kirol portuko hasierako lanak egitera. (...) arazo bat azaldu zaie kirol portuaren sustatzaileei: zer egin dragatutako hondakinekin? (...) Itsasokoa konponduta, lurrean egin beharreko

isurketekin sortu ziren arazoak. Hauetatik zati bat lanetan betegarri modura erabiliko da, baina bestea Arroako Hartzubiko zabortegian isurtzea erabaki zen. Baina Zestoako Udalak baimena ukatu egin du.

(1998ko otsaila. 43. zenbakia)

Greenpeace kirol portuaren aurka

Greenpeace erakunde ekologistak, kirol portuko lanak geldiaraztea eskatuko du. (...) Lanak ikuskatzen egon ondoren, irregularitasun batzuk daudela jabetu dira. Besteak beste, hondakinak jaurtikitzen ari diren itsas puntua ez dagoela aurreikusita proiektuan eta botatzen ari diren hondakin horiek ez daudela behar adina analizatuta.

(1998ko martxo. 44. zenbakia)



Barraren kontrako ekintza

Zumaia Bizirik plataformako kideek barra berriaren kontrako ekintza protesta bat burutu zuen orain aste batzuk. Obra honen kartel informatzaile ofizialaren gainean, beste bat ezarri zuten (...) barraren ilegaltasun kondizioa adierazten zuena.

(1998ko uztaila. 48. zenbakia)

Kirol portua martxan da

Momentu honetan kirol portuan ikus daitekeena, proiektuko lehenengo bi faseen emaitza da. Hau da, atrakalekuen %40, moilak, tailer teknikoak, eskoilerak, 250 metroko pasabide bat, kapitania eraikina, ontziak igotzeko sistema bat eta bestelako urbanizazio lan batzuk. Ontzi batzuk ere dagoeneko bertan ikus ditzakegu atrakatuta. (1999ko uztaila. 59. zenbakia)

Jaurlaritzak kirol portuaren kontrola nahi du

Zumaiako kirol Portua elkarteak aurreikusi bano 190 milioi gehiago gastatu ditu. Jaurlaritza diru hori jartzeko prest agertu da, baina akzioen kontrolaren truke. Udala ez dago ados.

(...) Zumaiako Udalak garbi du diru hori Eusko Jaurlaritzak jarri behar duela, lanak ordaintzea berari baitagokio. Eta Eusko Jaurlaritza ordaintzeko prest dago, baina oraingoan zerbait nahi du trukean: kirol portuaren kontrola.

Rikardo Peña:

Ez zaizu iruditzen joko zikina erabiltzen ari direla?

Baietz esango nuke. Eta ez zait logikoa iruditzen. Uste dut une honetan departamentu horretako buruek ez dutela bizi guk herrian izan dugun eztabaida luzea, eta ez dituzte kontuan hartzen guk ditugun konpromisoak herriaren aurrean. Berriak dira, planteamendu berri batzuekin etorri dira, eta badirudi gu sobera gaudela, edo oztopo bat garela. Eta alderantziz da, guk denok badakigu zenbat borrokatu garen proiektu hori aurrera ateratzeko, baina prozesu horretan guztian ere konpromiso batzuk hartu ditugu herriarekin, eta ez gaude edozer onartzeko prest.

(69. zenbakia. 2000ko ekaina)

berriak

Itzurungo hondartzaren metamorfosia

Denok aho zabalik utzi gaitu ikusi dugunean zer nolako berrikuntzak egin diren Itzurungo hondartzan. Aho zabalik onerako edo txarrerako, zeren iritziak eta kritikak denetariokoak izan dira. Beheko parteak ordea, lehen begiradan gerrako fuerte bat dirudi edota imajinario gehiago botaz "Pikapiedren etxea".

Kantinako jabeak adierazi digunez "orain dagoen kantinak mejora asko izan ditu. Sukaldea txikia da baina beste guztia handitu egin dute" (...)

Juan Mari Lopez 'Txurre'-k egin diren berrikuntzei buruz adierazi digunez "egin diren obrak onerako dira; ingurugiroa errespetatu da eta lehen baino askoz hobeto gelditu da".

(1994ko abuztua. 3. zenbakia)



Itsas mamuak Itzurungo hondartzan

(...) Zumaiako kokatu behar zuten lehendabiziko eskultura publikoak lehiaketaren bidez hautatu behar zela iruditzen zaigu, nahiz eta legeak horretara ez behartu, jarrera etiko batek horrela eskatzen duelako. Honen ordez, Edertu S.A. enpresari eskatu zioten proiektuaren aurkezpena (...)

Arte Kritika

Eraikuntza berriak ondo jarraitu diote eraikuntza zaharren lerroei eta bolumenei, eta zegoen espazioaren berrantolaketa egokia egin da (...) Eraikuntza berriek batasuna mantentzen dute eta paisaian oso

ondo integratzen dira, flyscharen geruzak dituzten jokoak aprobe-txatuaz.

(Zumaiako Arte Taldea. 1994ko abuztua. 7. zenbakia)

Babes ofizialeko etxebizitzak

Urte hau bukatu baino lehen, Zumaiako babes ofiziala duten etxebizitza batzuk eraikitzen hasteko asmoa dago. Hasiera batean era honetako 36 etxebizitza eraikiko dira, Estazioko zonaldean kokatuko direnak.

(1994ko abuztua. 3. zenbakia)



Aldaketa handiak tren geltokian

Lehen Urolakoa zena izango da orain geltokia eta kotxeren aurreko lurraldea aprobe-txatuz 7.000m²ko parke bat egiteko asmoa dago, 474 milioiko aurrekontua duen lan honetan.

(...) Urola bailara eta Donostiarako autobus zerbitzuak Zumaiako izango dute erdigunea. Horrela, hiru eraikuntza egingo dira autobusak gorde eta behar denean konpondu ahal izateko; hauetan 30 autobus eta arrunt 9 artikulatu gordetzeko aukera izango da eta bulegorako eta gidarienezko zerbitzuak ere beteko dituzte eraikuntza hauek. (1994ko azaroa. 6. zenbakia)

Aldaketarik ez

Alderdi guztiek lehenengo zinegotzi kopurua mantentzen dute.

Maiatzeko hauteskundetako emaitzetan ez zen sorpresa handirik izan eta zinegotzi kopuruari dagokionez lehen bezela mantenduko dira: hau da, PNV-EAJ-ek 6 zinegotzi izango ditu, Herri Batasunak 3, Eusko Alkartasunak 2. (1995eko ekaina. 13. zenbakia)

Paolean ere fokuak?

Abuztuan zehar herri langileak Paolaren azpialdeko sasi eta sastrakak kentzen aritu dira. Zurrumuru baten arabera, Paolak berak argi gutxi egiten duela eta, dirudienez Parrokiari bezalaxe foku batzuk jarri nahi dizkiote. Postaletarako beste argazki bat gure herrian. (1995eko iraila. 16. zenbakia)

60 mila rodabailo ekarri ditu Orrua enpresak aurreko produkzio guztia galdu ondoren

400 mila rodabailo galdu ondoren, Orrua enpresak 300 milioiko inbertsioa egin beharko luke berriro martxan jarri ahal izateko. Horregatik ez dute garbi nola jokatu duten. Udar honetan itsasoko ura beroegia egon dela eta, Orruan zituzten rodabailo guztiak hil egin zaizkie, honek 200 milioiko galera eta 7 lanpostu suposatuz.

(1995eko urria. 17. zenbakia)



Larrialditako zerbitzuaren alde

Batzorde bat eratu da larrialditako zerbitzua Zumaian bertan egon dadin borrokatzeko. Martxoaren 17an sinadurak biltzen hasi eta egun bakar batean ia 2.000 lortu zituzten (...).

Batzorde honek Osakidetza salatzen du, bera delako egoera honen arduradun nagusia. Aia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa eta Aizarnazabalerako bi sendagile bakarrik daude, bat Zarautzen egoten dena eta bestea batera eta bestera mugitzen dena (Gurutze Gorrikoa)

(1996ko apirila. 23. zenbakia)



Piru Santo Domingora

Txiskola programako finalera iritsi ondoren, hirukoteak ezin izan zuen garaipena lortu (...). Saria, ordea, ez da makala: Santo Domingorako bidaia, hain zuzen.

Jon Abaurrea izan omen da txistekak bildu eta dena antolatzen aritu dena, bera baita txistezaleena (...).

Dena bezperan prestatzen omen zuten, baina emaitzak ikusita zaila da hori sinestea, batez ere antzezenetan lan oso politak egin dituztelako. Oriotarrekin primeran konpondu omen da Piru. Koadrilakoren batek adarra jo omen dio ijituekin sozio egiteagatik, baina beti ere txantxetan.

(1996ko maiatza. 24. zenbakia)

Kantina bat Gernika parkean

Dagoeneko hasiak dira Gernika parkean kokatuko den kantina eraikitzeko lanak. Erdi aldean jarriko da kantina, parkeko bidexka baten ondoan. Eraikuntza bera erabat egurrez forratutakoa izango da eta terrazatxo bat izango du inguruan, kanpotik mahaiak jartzeko aukera izan dadin. Davila izango da lan hauek burutuko dituen eta uztaileen hasiera alderako bukatuta izatea espero dute. (1996ko ekaina. 25. zenbakia)

Etxabetarrei omenaldi beroa beren torneoaren 25. urteurrenean

Etxabe Dinastia Torneoaren 25. urteurrena aurten bete da eta horrelako zenbaki borobilak ezin dira edonola pasatzen utzi; hau kontuan izanik, ekitaldi ugari antolatu zituzten. Lehendabizikoa pilotari buruzko erakusketa baten inaugurazioa izan

zen. Baina hau baino garrantzitsuagoa izan dira beste bi gauza; batetik, Etxabetarren historia biltzen duen liburu eder eta txukun bat argitaratu da; bestetik, etxabetar dinastiako guztiak omendu ziren, banan-banan, gainezka zegoen Foronda kultur etxean egindako ekitaldi batean.

(1996ko iraila. 27. zenbakia.)



(1995eko uztaila. 15. zenbakia)

Beste bi!!

Harrigarria badirudi ere, uztailean beste bi motora hondoratu dira Zumaian. Hauekin sei dira azken hiru hilabetetan Zumaian hondoratu diren motorak, besterik gabe amarraturik zeudenean. Badirudi marea biziak daudenean, motorak lehorrean geratu eta zerbait jotzen dutela. Espero dezagun ratxa honek ez jarraitzea.



Kalparsoro auzia



Xabi: urtebete pasa eta puntu ilun asko argitu gabe

Hortik aurrerako gertakizunak prezipitatu egin ziren. Poliziak goitik behera kontrolatzen zuen ospitale batean, bere amak ezin izan zuen Xabi ikusi, hil bitarteko bi egunetan inkomunikaturik egon baitzen; hil ondoren ere horrela jarraitu zuen gainera.

(...) Bertsio ofizialak dioenez esposatu gabe eta zerbeza bat edanaz zegoen, polizia bakar batek zaindutako gela batean. Polizia hau lurrera bota eta leihotik salto egin omen zuen. Familiakoen ustez, "jakinekua da ETako edozein militanteren atxilotetan ez dela horrelakorik gertatu, seguritate neurriak maximoak dira (...) Honetaz gain, autopsia egin zion forentsearen txostenak ere bertsio hau gezurtatu zuen; honen arabera, Xabier Kalparsororen erorketa ezin zitekeen jauzi baten ondorio izan, inolako inpultsorik gabe leiho ertzetik gertaturiko erorketa bat izan behar zuen. (1994ko iraila. 4. zenbakia)

Kontraesanez jositako epaiketa

Zazpi urte pasa dira Xabier Kalparsoro 'Txato' zumaia gaztea Indautxuko komisaldegiko leihotik erori eta hil zela. Apirileko lehen asteen, komisaldegian Xabi zaintzen zuten lau polizien aurkako epaiketa egin da, "zuhurtasun gabezia arriskutsua"-ren akusaziopean.

Maite Golmaio:
"Anonimo batzuk jaso genituelako jarri ahal izan da epaiketa martxan"

Maite Golmaio zazpi urteko bide luzea egin behar izan du epaiketa honetara iristeko. Lau poliziak akusatuen aulkian ikusita gustura dagoela dio, eta bertan entzundakoak bere usteak sendotu egin dituela.

Nolako izan da epaiketa honetara iristeko bidea?

Oraingo epaiketa hau ere duela bi hilabete bertan zeuden polizien eta faltsutu ziren dokumentu batzuen berri eman ziguten anonimo batzuk jaso genituelako lortu dugu mugitzea. Bitartean ezer ere ez (...) Oztupoak eta tapatu nahiak besterik ez ditugu aurkitu, hamaika ahalegin egin ditugu, baina ezin ezer lortu, eta horrek guztiak kriston inpotentzia sortzen dizu. (2000ko apirila. 67. zenb.)



Sei hilabeteko zigorra 'Txato' zaindu zuten bi polizientzat eta beste biak aske

(...) Hala ere entzutegiak ez du zigortutakoaren jokabidean dolurik ikusi "ez baizitzaie zitekeena iruditu gelako leihotik jauzi egingo zuenik".

Epaileak zuhurtasun gabezia ikusi du akusatutako lau polizien arteko biren jokabidean, baina, hala ere, zigor txikiena ezarri die, sei hilabetekoa. Epaketan egondako lau akusazio partikularrek, seina urteko inhabilitazioa eta 25 milioi pezetako kalteordaina eskatu zuten.

(2000ko ekaina. 69. zenb.)

Udalak Gorostiaga poligonoko zati handiena erosi du enpresei eskaintzeko

Udalak Gorostiaga poligonoko 179.000 m² erosi berriak ditu, inguruko enpresei behingoz lur industrial eskaini ahal izateko. Hasieran Diputazioak interesa azaldu bazuen ere, ez du parte hartu nahi izan, eta beraz, Udalak bere gain hartu du operazioaren kostu guztia: 250 milioi (+BEZ).

Helburua argi dago: Zumaia enpresei lur industrial egoki eta konpetitibo eskaini ahal izatea. "Zumaian badira hazi nahi duten enpresak, baina tokia falta zaie. Gainera, herrian barruan dauden hainbat tailerrei pabilioiak eskainiko dizkiegu", dio Ricardo Peña.

(1996ko urria. 28. zenbakia)



Mendiak errepidea irentsita

Azarotik Zumaia eta Getaria arteko errepidea moztuta egon da.

Errepide horretan beti ere mila arazo egon izan da: istripuak, olatuak, lur jausiak direla... Kokatuta dagoen inguruneak ere toki berezia egiten du, alde batera itsasoa bestera mendia. Sarritan, itxita ikusi dugu, baina oraingo honetan hilabete batzuetan, eta herritarren artean kalte handiak sortuz.

Azaroan gertatutako lur jausiarekin, dena hankaz gora jarri da. Inguru-nearen ezaugarriek zail egiten dute soluzioa topatzea eta erabateko konponbidea ematea ia ezinezkoa da,

aipatutako ingurune ezegonkorra dela medio. Horretatik, sortzen diren arazoei, "partxeak" jartzea beste erremediorik ez dago.

1992an 200 milioi pezeta, 93an 50 milioi, 94an 175 milioi eta 95ean 300 milioi pezeta. Guztira 725 milioi pezeta, hauxe izan da Diputazioak Zumaia eta Getaria arteko errepide zati hori konpontzeko erabilitako dirutza. Zenbakiak guztia esaten dute. Gipuzkoako karretera guztien artean mantentzeko garestiena da, diferentziaz gainera; beste edozein baina hiruzpalau aldiz gehiago kostatzen da. (34zenb 1997ko apirila)



Igerilekuaren lehen urratsak

Badirudi azkenean igerilekua ez dela asmo hutsean geratuko eta hemendik bi urtera ematen du errealtate bihurtuko dela, gauzak okertu ezean behintzat. Igerilekua orotara 375 milioi pezeta baino gehiago kostatuko da, eta guztia udal aurrekontutik ordainduko da. 1999. urtean igerilekua eginda egotea espero da; urte horretan azken ikutuak ematea besterik ez litzateke geratuko. (...)

Aipagarria da gainera, Udalak gremioen bitartez egin duela igerilekua eraikitzeko lan kontratazioa. Modu honetan, obren kalitatea hobetu nahi da, hauen kontrola zuzenean Udalaren gain egongo baita. Hau ez litzateke gertatuko konstruktora bat kontratatuz gero. Bestalde, enpresa handi baten etekin ekonomikoekin jokatzea legoke eta bide batez, obrak inguruko gremioei ematea errazagoa suertatzen da. (38. zenb 1997ko iraila)

Kontrabandoko tabako harrapaketa Oikian

Urtarrilaren 15ean Aduanetako Zaintza Zerbitzuek, kontrabandoko 47.000 zigarro pakete atzeman zituen Oikiako Modelo deituriko industrialdean. Operazio honen ondorioz, oriotar bat atxilotu zuten eta berekin zegoen lagunak ihes egitea lortu zuten. (43. zenbakia. 1998ko otsaila)

Erne dantzalekuaren auzia epaiaren zain

1994ko irailean, Bad Religion taldea kontzertu bat ematen ari zela, pistetako bat erori eta ehunka lagun fosora amildu ziren. 200 pertsonatik gora izan ziren zauriengatik demanda jarri zutenak. Auziko bost akusatuak eta eroritako asko zumaiairrak dira, eta egunotan burutu da epaiketa, eta bertsio ezberdinak entzun dira bertan. Epaiaren erabakia bakarrik falta da. (44. zenbakia. 1998ko Martxo)

Bizitzaren zikloa

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA



Hasierako Baleikeran oroitzapenarekin lotuta daukat nire komunioko argazkia. Intsumisioaren mugimendua puri-purian zegoen, beste gizarte mugimendu batzuk bezala. Zumaian, Gazte Batzordeak euskaraz arituko zen aldizkaria sortzea erabaki zuten eta

dantzari jarri zuten herriko giroa. Bilerak, gogoak, lana eta emaitza ezin hobeak.

Garai haiek pasatu ziren, intsumisioak bere helburuetako bat bete zuten eta derrigorrezko soldadutza desagertu da, nahiz eta militarismoa inoiz baino biziago iraun (itxuraz). Baleike sortu zuten gazteak zahartu eta nekatu ziren eta aldizkariak euskara suspertzearen ahaleginarekin lerrotatu behar izan zuten. Gazteek orain gaztelekuak eskatzen dituzte eta gaztetxea eskatzen lortu ez zutena lortuko dutela dirudi.

Hala ere, Baleike ez da desagertu, egoeren aldaketetara egokitu da eta hasierako freskotasuna eta lotsagabetasuna galdu badu ere, heldutasuna irabazi duela iruditzen zait. Gazte izatetik heldutasunera iritsi da, agian behar baino lehen, baina oraindik ezkondu gabe jarraitzen du eta konbentzionaltasun batzuetatik urruti. Herrian dugun topagunerik irekiena da eta zahartzeko itxurarik ez du oraindik, behintzat. Iritsiko dira garai horiek ere, baina bitartean...

A ze sustoa hartu zuten urriaren
erdialdean Algorriko itsasadarra
bixitatzen ari ziren 70 haur gasteiztarrek.
Zarauzko Itsas Taldeak antolatutako
txango bat zela eta, naturgune
interesgarri hori ikusten ari zirela, haitz
pila bat erori ziren beraiek zeuden
lekutik oso hurbil. Ez zen inor zauritu
baina sustoa ikaragarria izan zen.

(40. zenb 1997ko azaroa)



Hotela eta talasoterapia zentrua Itzurun-Zelaien

Lurrazpiko aparkalekua, taberna, jatetxea eta hogeit bat logela izango ditu hotelak. Hala ere ez da eraikin berri bat egingo, dagoena berreskuratu baizik. Hotel batek dituen beharriaz egokitu beharko zaie eraikinaren egitura baina kanpotik antzinako Itzurun-Zelai berdina izango da. Lucianoren hitzetan balio arkitektonikorik ez baina balio historikoa badu Itzurun-Zelaik. Larretxo garai batean bere baratza, lorategi eta jauregiarekin izan zenaren azken arrasto gisa, eta horregatik mantendu nahi izan du.

(45. zenb. 1998ko apirila)



Gorostiagan lehen pabiloiak eraikiko dira

Hasierako egitasmoan aurreikusten zen bezalaxe, apirilean edo maiatzean hasiko dira eraikitzen lehenengo pabiloi industrialak Gorostiagako poligonoan. Honekin batera, eta baimen guztiak lortu ondoren, bertako ur saneamendua jartzeari ekingo zaio berehala. Dakizuen bezala, honetarako sistema berritzaile bat erabiliko da, ur azpitik behar diren hodiak sartuz. Honen helburua, zonalde honetan dagoen ingurune naturala ahalik eta gutxien kaltetzea da. (45. zenbakia. 1998ko apirila)

Zumaian gazte bat atxilotua 61 kilo haxixekin

Guardia Zibilak 23 urteko gazte zumaiar bat atxilotu zuen ekaineko lehenengo asteburuan zeraman autoan 61 kilo haxix atzeman

Txatok familia aurkitu du

Telebistako Lobatonen programan azaldu ondoren, San Juan egoitzan dagoen Jose Fernandez Luque "Txato"-ri goinata eta lau iloba azaldu zaizkio. Hilaren 19an ospatu zuten "Familiaren eguna" egoitzan eta bertara joan zitzaizkion bixitan Mario, Juanita, Nona eta Angustias (goinata).

ondoren. Operazioa Arrigorriagako ohiko kontrol batean burutu zen. Droga Marokotik zetorren, Gipuzkoan banatzeko asmoz eta segurtasun indarrek esandakoaren arabera, harrapatutako droga kopuru guzti horrek 42 milioi pezeta baino gehiagoko balioa izango luke.

(47. zenb. 1998ko ekaina)



Estazioko etxe horian, Zumaia hotela irekiko dute

Dani Arratibel ataudar gazteak hartuko du hotela bere gain eta hamasei gela, taberna, jatetxea eta bi izar izango ditu. Garestia izan gabe txukuna suertatuko den hotela da Danik buruan daukana, erdi mailako gauza bat, laneko bidaian datorren teknikaria edota herrira egun batzuk pasatzera datorren edozein hartzeko

modukoa. "Denboraldi bajaran 5.000 pezetan jarriko genuke gela eta altuan zerbait gehixeago" zehaztu digu.

(47. zenb. 1998ko Ekaina)



Irailaren 22an ireki zen Eroski berria

732 m² ditu lokalak; 5 kaja eta 25 langile. Emakumearentzako edergaiak, edari freskagarriak, manea-gailuak, lekariak... era guztietako produktuak aurki daitezke bertan. Supermerkatu handietan ohi denez, musika dago jarrita erosketak girotzeko, langileek uniformea daramate, eta herrikoak eta ezagunak izan arren baita identifikazio txartela ere: Rebeca, Arantxa, Josefina, Urrategi, Mertxe... Ohi denez baita, denak neskak dira, harakina eta enkargatua izan ezik.

(1998ko urria. 50. zenbakia)

Depuradora batek garbituko ditu ibaira botatzen ditugunak

Etxeetako hondakinak ibaira botatzen dituzten isurbide hodi nagusi batzuetara lotuko dituzte. Hodi hauek ur zikinak maldan behera ekarriko dituzte. Paolbidetik nahiz Narrondotik arrauneko lokalaren pare horretan egingo duten bonbeorako estazio bateraino, eta hemendik trenbide zaharraren zabalunearen kurban jarriko den depuradora batera eramango dira, garbitu eta berriro ibaira botatzeko. (1998ko azaroa. 51. zenbakia)



Arrazakeriaren aurkako marxistek hitzaldia Zumaian

Urriaren 7an "Arrazakeriarik gabeko mundu baten alde"-ko marxaren partaideek, dozena bat lagun, britainiarak, tibetarrak eta japoniarrak, Zumaian egin zuten geldialdia Forondan hitzaldi bat emateko. Esklaboen trafikoak Europan egiten zuen ibilbidea, Liverpooletik Ciudad del Cabora, garai hartan esklaboek egin ohi zuten moduan, oinez, eginez arrazakeria salatzea da martxa honen helburua. (1998ko azaroa. 51. zenbakia)

Berrehun metro errepede jan ditu mendiak

Gertatu da, berriz ere. Azkenaldian harri solteren batzuk besterik ez ziren erortzen, baina urtebeteko "treguaren" ondoren mendiak errepede puska ederra jan du, eta ondorioz, beste puska baterako itxita egongo da Getariarako bidea.

Ikusgarria da Kaminero-etxetik aurrera joan eta bat-batean bidea amaitu eta mendia besterik ez da ikusten. Behera begiratuta haitz artean ikus daitezke errepede puskak, bere marra zuri eta guzti.

(1998ko abendua. 52. zenbakia)



N-634 errepedea, gurutz bidea

Zumaia eta Getaria arteko bidea apirilean irekitzea espero da. Abenduaren 1ean San Prudentzioko bidegurutzera iritsi baino metro gutxi batzuk lehenago mendia behera etorri eta ehun metro baino gehiagoko luzerako errepede zatia arroketa eraman zuen.

Aipatu txostenaren arabera, egun horietan botatako euri jasa eta itsasoko olatu handiak izan ziren lur jausiaren arrazoi nagusiak. Konponketa lanak urtarrilean hasiko

dira eta guztira, 182 miloi pezeta xahutuko dira. (1999ko urtarrila. 53. zenbakia)



Zubi Esekia, "zumaiarra"

Nerbioi ibaia itsasoratu baino lehenago, Portugalete eta Getxoko aldeak elkartzen ditu Bizkaiko Transbordadoreak, Zubi Esekia edo Puente Colgante izenez ezagunagoa denak. Duela gutxi oinezkoak eta ibilgailuak garraiatzeko ontzi berri bat jarri diote eta esan liteke Bilbo aldeko monumentu honen zati bat Zumaiaokoa ere badela. Proiektuaren garapen eta gestioa Bernard Caporossi injineru zumaiarraren esku egon da (...). Diseinuaz arduratu dena, berriz, Due Studio izan da, Manu Aizpurua zumaiarraren enpresa. Eta azkenik, automatizazio eta argiketa kontuetan Mendi-Ondo aritu da, Joxe Mari Aipurua ordezkari duen enpresa. (1999ko urtarrila. 53. zenbakia)



Harri piloa Itzurunen

Marea oso biziak izan ziren lehengo hilean eta Itzurun aldean sekulako hondar mugimenduak izan ziren. Erdian putzu handi bat agertu zen eta eskubi aldean izugarri harri pila. Plaieroak jokatzen ere nahiko lan izan zuten!

Guascorek 26.000 milioiko kontratua lortu du Brasilen

Brasilgo Acre Estatuko argindar konpainiak deituriko lehiaketa da, hain zuzen ere. Guascorek irabazitakoa. Estatu honetako 13 herritan arazoak izan dituzte orain arte argindarra behar bezala jasotzeko. Hemendik aurrera, eta datozen 20 urteotan, bertan bizi diren 280.000 biztanleek Guascorek ezarriko duen sareari esker argindarra izango dute egun osoan. (1999ko otsaila. 54. zenbakia)



Herriko Lizarra-Garazi foroa martxan

Lizarra-Garaziko Akordioa herrian ezagutarazi eta bake prozesuaren inguruko ekimenak bultzatzeko helburuarekin sortu da Foroa. HB, PNV, Zutik, ELA, LAB, Elkarrri, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideakeko ordezkariekin lantalde iraunkor bat osatu dute (...). Urtarrilaren 30-31 asteburuan Lizarra-Garaziko Akordioa eskura banatzen aritu ziren kalean. (1999ko otsaila. 54. zenbakia)

Autopistaren bidesaria ez kentzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Otsailaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundian Zumaia eta Zarautz artean Bilbao-Behobia autopistako bidesaria kentzea eskatu zuen HBk eta IUK N-634ak konpondu bitartean. Proposamenak aurrera egingo zuela pentsatzen zuten arren, EAJ, EA eta PPren aurkako botoekin bertan

behera gelditu zen. (1999ko martxoa. 55. zenbakia)



Torreberriko goiko solairuak bota ditu Udalak

Udalaren erabakia gauzatu egin da, eta Torreberri goiko solairurik gabe gelditu da. Garrantzi historiko handia du eraikuntza honek, baina aspalditik guztiz utzita egon da, eta pixkanaka bere hormak ahulduz joan dira, ruina bihurtu arte (...). "Lehenik eta behin, harri baliotsuak zenbatu eta identifikatu ditugu. Gero argazki erreportaia zehatza egin da, harri bakoitza non zegoen jakiteko. Eta gero, horma arriskutsuak bota ditugu". (1999ko martxoa. 55. zenbakia)

Alde Zaharra berritzeko plana onartu da

Udal plenoak Zumaia Alde Zaharra berritzeko planari hasierako onarpena eman dio. Plan honekin Alde Zaharraren narriadura prozesua geratu nahi da (...). Plan berezi honek Alde Zaharrak jasaten duen trafikoa, oinezkoentzako bideak, gune publikoak, plazak eta aparkalekuak arautu nahi ditu. Garrantzi handia ematen zaio biztanleentzat aparkalekuak sortzeari, oraingo egoera, denen ustez, guztiz kaotikoa baita. (1999ko apirila. 56. zenbakia)

Argiak jarri dizkiote barrari

Paolak ematen duen argiarekin nahikoa ez dela-eta, argiak jarri dizkiote barrari. Farolak jarri beharrean, lurrean sartu dituzte, horrela itsasoaren enbatak kalterik egingo ez dielakoan. Ilunpean babesa nahi duenak beste leku bat bilatu beharko du hemendik aurrera. (1999ko apirila. 56. zenbakia)



Astilleroetako langileak greban, soldata duinago baten eske

Apirilaren 14tik greban dira Astilleros Balenciaga enpresako langileak. Enpresa zuzendaritzak aurkezturiko lan hitzarmenarekin ez daude batere ados. Izan ere, soldatak ez igotzea proposatzen da. Greba hasi eta hiru egunetara, zuzendaritzak enpresa ixtea erabaki zuen, greba egiteko moduarekin ez zegoelako ados. (1999ko maiatza. 57. zenbakia)



Udal igerilekuak ireki dira

Hainbeste urtetan zumaiarrek desiratu izan duten igerileku estalia azkenean errealitate bihurtu da. Helduen nahiz hau txikiek gozatu ahal izango dute gainera, bi igerileku ezberdin eraiki baitira. Maiatzaren

29an egin zen inaugurazio ekitaldia. Bertan jendetza handia bildu zen, herriko parrokoak bedeinkapena eman zien, dantzariak beren saioa egin ere bai eta ohiturazko zinta mozketa ez zen falta izan.

(1999ko ekaina. 58. zenbakia)



Ricardo Peña alkate hirugarrenez, PSEren babesarekin

Ricardo Peña EAJko zerrenda-burua izango da Zumaiako alkate datozen lau urteotan. Hirugarren agintaldia izango du jarraian, hilaren 3an egindako plenoan PSEren babesa jaso ondoren. EAJk nahikoak zituen alderdi sozialistaren bi botoak gehiengo osoa lortzeko (5+2). EHk eta EAK euren zerrendaburuei eman zieten botoa, EAJrekin izandako negoziazioetan ez baitira akordio batera iritsi.

(...) Hauteskundeetako emaitzen azken hilabeteotako joerak bere horretan jarraitzen duela erakutsi digu: EHren gorakada nabarmena da, EAJk eutsi egiten dio nahiz eta zinegotzi bat galdu, EAK bi zinegotziak mantentzen ditu PSEk bezala, eta lehen aldiz PP aurkezten da (aurreko hauteskundeetatik urruti gelditu eta ez dute zinegotzirik lortu). Ekainaren 13ko hauteskundeek honela utzi dute zinegotzi banaketa: EAJk 5, EHk 4, EAK 2, PSEk 2 (guztira 13). (1999ko uztaila. 59. zenbakia)

Kirolzer enpresak eramango du Lubaki kiroldegiaren gestioa

Kirolzer enpresaren asmoa gestio ezberdin bat eramatea da eta horretarako "jendea ohitu egin behar da. Guri oso ondo joan zaigu gestioa

Artea barran

Maiatzaren azken egunetan jarri zen barran eskultura lehiaketan irabazle gertatu zen Javier Elorriagaren «Estazio abandonatu bat, bi aulki eta mila istorio asma ditzake tristurak» izeneko instalazioa. Harrobitik ekartzean, eta arte lanak barran ezartzean ere bai, instalazioan zenbait akats izan ziren. Akats hauek konpondu bitartean, instalazioaren inaugurazio data atzeratu egingo da.



Ehun metro

GORKA ZABALETA

Jaioberriaren pauso baldarra bizitzeko gogoekin gaindituta abiatu ginen, duela ehun metro, inguruan zebiltzan

lehoi gosetiek zenbat urrats ematen utziko ziguten jakin gabe. Hauts bihurturiko Arrangoletan egin genituen lehen bilerak, Zumaiako Institutuak utzitako ordenagailuekin lehen aleak. Hasierako hamar metroetan hamaika aldiz egin genuen estropozu baina, oraindik galtza motzetan, harro-harro erakusten genituen gure belaunetako orbainak.

Eskarmentuak pausoa sendotzen lagundu zigun. Forondan eman ziguten aterpea, eta han egin genituen gure metrorik bizi, bihurri eta gozoenak. Amatxo Eulaliren magalean, ez zegoen bidean galtzeko arriskurik, ez aitzakiarik. Aldizkaria herriko bazter guztietara zabaldu genuen, herrian gertatzen ziren gorabeharak kontatzeko irrikaz. Artistarenak egitera ere ausartu ginen. Baleiketxoua-rekin leporaino bete genuen Aita Mari aretoa, eta orduan, larruzala oilopurdituta, ohar tu ginen gure irakurleak ez zirela hilaren bukaeran gora edo behera egiten zuen kopuru bat, haragizkoak baizik; zahar eta gazte, ikasle zein irakasle, senide, lagun eta auzokideak han genituela guk zer eskainiko zain, hilero-hilero etxeko buzoian egitera ohitu ziren bezalaxe.

Lortutakoaren neurriak gaindituta, han gelditu zen betiko gure lotsagabekeria.

Ibilkeria serioagoarekin abiatu ginen handik, benetan helduak izan nahi bagenuen pare bat koska gainditu beharko genituela erabat sinetsita. Denbora kostatu zitzaigun ausardia pilotzea, barruko eta kanpoko oztopoei neurria hartzea, baina beste biderik ez genuen, hil ala bizi, zirt edo zart. Begiak itxi, hegoak zabaldu dardara betean, eta agur esan genion habia gozoari, txoko berri baten bila. "Lan taldearen egitura aldatu, produktua eraberritu, maiztasuna areagotu, profesionalago jokatu...". Arrangoletako bileretan barre egingo genuke norbaitek halakorik botaz gero. Baina ez zegoen beste biderik.

Ehun metroko maratonia egin dugu, eta ohar tu gara lasterketa hau helmugarik gabekoa dela. Atzera begira gera gaitzke, eta bidean utzitako arrastoak gogoratu, elkarrizketa mamitsuak eta erdipurdiko erreportaiak, egia biribilak eta hankasartze are nabarmenagoak, bihotz onez egindako bihurrikeriak, horiek guztiak jasota baitaude, duela ehun metro hasitako bidaiari esker. Baina atzera begiratzen duenak aurreko horma jotzeko arrisku galanta du. Eta iritsiko da, flakiak jota, aurrera egiteko indarririk gabe, lekukoa emateko eguna, beste ehun metro egin ditzaten.

eramaten ditugun beste kiroldegietan. Udaletxeak gu aukeratu gaitu ziur aski beraien ustez gure eskaintza onena zelako. Egongo da jendea atsegin duena eta atsegin ez duena, baina guretzat garrantzi handia dute gure abonatuak. Guztira 12.000 abonatu inguru ditugu gure lau kiroldegietan eta hauek beraien onarpena eman digute". (1999ko urria. 61. zenb)



Bariantearen trazatua onartu da

Badirudi Zumaiak hainbeste behar duen bariantea egiteko lehen pausoak ematen hasiak direla (...)

Sestraren proiektu originalean, Txiki Erdi inguruan, Narrondo ibaiaren gainean rotonda handi bat proiektatuta zegoen. Udalak, bariantea Beduatik zetorren bidetara lotzea eta ondoren Txiki-Erdin orain Beduakoa eta N634a batzen diren lekuan, rotonda bat egitea proposatu zuen. Proposamen hori Sestrari interesgarria iruditu zitzaion eta Aldundira eraman zen. Honek baiezkota eman eta (...)

Bariantearen lanak 2002 urtean hastea espero da (...)

(1999ko azaroa. 62. zenb.)

Notaria zaharreko etxea bota dute

Denborak ez du barkatzen. Duela egun batzuk lehen notaria zegoeneko etxea bota dute -Maxi ilepaindegia zegoen bertan-. Horrelako ikuskitunak noizean behin gertatzen direlako-edo, jende ugari bildu zen inguruan, etxe zaharreko hormek betirako nola etsitzen zuten ikustera.

(1999ko abendua. 63. zenb.)



Hasi dira Zumaiian saneamendu lanak

1999. urte amaieran onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Zumaiari dagokion Saneamendu Plan Integrala. Plan horren barne dira Basusta inguruan eraikiko den araztegi edo depuradora eta bertara joango diren ur zikinaren kanalizazioa, beste gauza batzuen artean. Datozen hilabete eta urteetan egingo diren lan hauetaz Ubiri, S.A. enpresa arduratuko da, eta Eusko Jaurlaritzak ordainduko du (...). Jada hasiak dira, bai Julio Beobide ibiltokian eta baita Txomin Agirre kaian ere, plan honi dagozkion lehen lanak. (2000ko apirila. 67. zenb.)



Sutea Zumaiian

Apirilaren lehen eguntean sute handia izan zen Ayra Durex enpresa eta Txiki Erdiko bidegurutzearen artean. Dirudienez, norbaitek su eman zien trenbide ondoko sasi batzuei, eta horren ondorioz sutea ondoko txabola

batera zabaldu zen eta bertan txakur eta untxi batzuk kiskalita hil ziren. Ondoren, sua, Baiona garajeak gurpilak gordetzeko erabiltzen zuen depositora zabaldu zen eta bertan ehunka gurpil erre zituen (...).

(2000 apirila. 67. zenb.)



70 urteko historia uretara

Santelmoak hasteko pare bat egun besterik falta ez zirela, arranplako gruak behera egin zuen eta Urola ibaira erori zen. Erorketa tamalgarria bada ere, zorte handia izan da, erori zen momentuan ez baitzegoen inor guaren azpian. Jendea nahiko penatuta agertzen zen, agian bazekitelako herriaren historiaren zati handi bat momentu hartan ur azpian zegoela.

Ondo iragarritako albistea zen guaren erorketa. Grua bera ari zitzaigun azken hilabeteotan zumaiarro bere egoeraren berri ematen. (2000 maiatza. 68. zenb.)

Mila isun inguru udako hilabeteetan

Dezenteko iskanbila sortu da azken hilabete hauetan gure herriko kaleetan udaltzainak ezartzen ari ziren isun kopurua zela eta. Gidari batzuk kopuruak ez, baina bai isuna jartzearen arrazoiak berotu eta haserretu ditu. Hamaika esamesa entzun ditugu kalean, hala nola, etxe aurrean autoa aparkatzeagatik multatu dutela, aurrezki kutxara joan eta pixkat atzeratzeagatik isuna jarri diotela, etab. Isunak ezartzen ari ziren udaltzainek irain ugari entzun behar izan dituzte azken hilabete hauetan.

(2000ko iraila. 71. zenb.)



Abuztuak 8, eguerdiko 12:20. Atentatua

ETAk Jose Mari Korta hil zuen auto bonbaz eginiko atentatuan. Gorostiaga poligonoan bere enpresaren aurrealdean aparkatuta zeukan autoa hartzera zihoala lehertarazi zuten aldamenan zegoen autoa. Eztanda entzunda kanpora atera ziren langileak, tartean Kortaren semeak. Anbulantzia eta suhiltzaileak deitu zituzten. Adegiko lehendakaria ez zen momentuan hil eta hura berpizteko saioak egin zituzten 25 minutuz. Alferrik izan zen, ordea (...).

Abuztuak 8, arratsaldeko 20:00. Kontzentrazioa

Pertsona ezaguna eta estimatua zen Jose Mari Korta herrian. Atentatuaren berri izatean sinestu ezina zen jendearen lehen erreakzioa, eta ulertu ezina bigarrena. Arratsalderako, eta inolako deialdirik izan gabe, herriko taberna eta denda guztiek itxita zituzten beren ateak. Honela, jendetza bildu zen zortzietan magnolioaren aurrean egin zen ordu laurdeneko kontzentrazioan (...).

Abuztuaren 8ko gaua. Senideak hil kapera

Ilundu ondoren, hamarrak aldera iritsi zen Jose Mari Kortaren gorpua zekarren autoa. Udaletxeko batzar aretoan jarri zuten hil kapera, baina hurrengo egunera arte ez zituzten ateak ireki, senideek nahiago izan baitzuten azken agurra emateko gaua eurentzat gordetzea (...)

Abuztuak 8, arratsaldeko 17:00. Plenoa

Udaletxeko batzar aretoa leporaino zegoen beteta alkateak atentatua gaitzesteko deitu zuen bilkura berezian (...). Adierazpena amaitzeko hiru eguneko dolua deklaratu zuen, eta negarrari eutsi ezinik, herritarrak kontzentrazio eta manifestazioetara deitu zituen (...).

Abuztuak 9, eguerdiko 12:00. Kontzentrazioa

Eguerdian udaletxean egin zen kontzentrazioan ere aurpegi ilunak eta isiltasuna. Ekitaldi guztietan ez zen oihu bat bera ere entzun eta ez zen inongo liskarrik egon.

Atentatua eta ondorengoak portada ziren komunikabide guztietan, eta hauen presentzia nabarmena izan zen herrian ekitaldiak iraun zuten bi egunetan. Argazkilaria, kazetari eta kamerak dozenaka zebiltzan lanean.

Abuztuak 9, arratsaldeko 7:00. Elizkizuna.

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak eman zuen meza. Berarentzat egindako bertso batzuk ere abestu ziren eta Oier ilobak familiaren adierazpena irakurri zuen, manifestazioaren amaieran errepi-katuko zuena.

Eliza beteta zegoen eta baita inguru guztia ere. Une batzuetan entzuten ez bazen ere, elizkizunaren zati batzuk megafoniaz entzun ziren kanpotik (...)

Abuztuak 9, arratsaldeko 8:00. Manifestazioa.

Hamar minutuko atzerapenarekin hasi zen manifestazioa mugitzen. Kaleak txiki bildu zen jendetzarekin. Udaltzainen kalkuluen arabera 10.000 lagun inguru (...)

Osaba erail ondoren

(...) "Mundu hau handia da, jende asko bizi da eta klase askotakoa" entzun izan diot askotan baserritar bati; Joxemariaren klaseko gutxi batzuk gehiago baleude mundu honetan, ez ginatke bizi garen honetan biziko, baina bai klase askotakoak, korbatarekin, gabe, pajaritarekin... denontzako egongo litzateke txoko bat. Pistolak, bonbak dituztenentzako ez, faborez hoi-entzako ez, hoiek ez ditut nahi ez korbatarekin, ezta korbatarik gabe ere.

(...) Zumaiako herriak asko sufritu omen du egun hauetan, alderdi guztietako jendeak. Nola ez? Ezagutzen zuen edonork, etxeko katuek ere bai. Baina ez da NAHIKOA. Esaiguzue, esaiezue esan beharreko gaizki egin dutela, ez dela bidea. MESEDEZ. Erabilitako ikuspuntuak baino askoz gehiago kezkatzen gaitu guzti honek. Barkatu gaizki esandakoak edo norbaiten sentsibilitatea mindu baldin badu nire ikuspuntuak. Baina bihotza minduta, tripak korapilo batekin eta burua lehertzearen duen pertsona batek idazten dizue. (IGONE

KORTA. 2000ko iraila. 71. zenb)



Bigarren atentatua Korta familiari

Joxe Mari Kortaren hilketatik hilabete eskasera izan zen bere anaia Narziso Kortaren Txitxarro dantzalekuaren aurkako atentatua.

Goizeko 10 eta erdiak aldean enkaputxatu talde bat sartu zen Txitxarron. Bost ordu ziren dantzalekuak atek itxi zituenetik eta garbiketa eta mantenuaz arduratzen ziren senar emazte batzuk ziren barruan aurkitzen ziren bakarrak.

Hamaikak baino minutu batzuk lehenago Gipuzkoako Gurutze Gorriak deia jaso zuen ETaren izenean Txitxarron lehegailua jarri zutela eta bertan zeuden bi langileak Itziartik Endoiara doan errepidearen ondoko zuhaitzi batetan lotuta zeudela abisatuz. Senar-emazteak ehiztari batek aurkitu zituen leherketa gertatu aurretik.

Eztanda inguru guztian entzun zen. Ez zuen zauriturik eragin baina kalte materialak oso handiak izan ziren (...).

(...) atentatua izan zen egun berean egin zen lehen kontzentrazioa Erribera kaleko magnolioaren aurrean. Ehunka pertsona hurreratu ziren bertara, nahiz eta kontzentrazio hau aurrez iragarrita egon ez (...). Bertan esaten zenez, ETak oraindik ere ez omen zituen Korta familiak egindako galderei erantzunik eman, galdera hauek ez baitzuten erantzunik. Bestetik, Txitxaroren aurkako atentatua familia isilarazteko saiakera bat izan omen zen (...)

(2000ko urria. 72. zenb)



Goikoren neurriek eztabaida piztu dute

Dezentekoa gainera. Aurretik pasatzen diren guztiek euren iritzia ematen dute. Gehienei eraikin berria zaharra baino handixeagoa dela iruditzen zaie. Eta ondoko nahiz atzeko etxeetako bizilagunek behintzat protesta egin dute leihoetan pankartak ipiniaz. "Lehengo Goikok baino bolumen gehiago ez. Udaletxea, babes itzazu gure eskubideak", diote.

(74. zenb. 2000ko abendua)



Bi anaiak bizia galdu zuten anguletan ari zirela

Urtea albiste ezin tristeagoaz hasi zaigu herrian. Urtarrilaren 1eko goizaldera Ceferino eta Jose Manuel Urbieta Manzidor anaiak anguletan ari zirela txalupa irauli eta ito egin ziren. (75. zenbakia. 2001eko urtarrila)

2004a da saihebidaren data berria

Urteak dira herria bitan banantzen duen errepideari saihebideta egin nahi zaiola. Hainbat data eman dira proiektuaren hasierarako, azkenekoa 1999a, baina gaur arte Diputazioaren onospena falta zen (...). Trazatua

kasik eginda dago. Sestra enpresa ari da 97tik honen gainean lanean. Udala-ekin harremanetan egon dira hasieratik eta Txikiardi alderako irteeraren inguruko xehetasun batzuk baino ez dira falta. (75. zenbakia. 2001eko urtarrila)

25.000tik 100.000 pezetara bitarteko multak angulazaleei

Multak ez dira anguletan ibiltzeagatik, baheak, anguletarako erabiltzen diren salabardo handi horiek eramateagatik baizik (...). Erreminta profesionaltzat hartzen dituenek, Jaurlaritzaren Arrantza Saileko Inspektzioak multa jarri die Zumaia eta Orioko hainbat ontziri. Angulazaleei multak ez zaizkie bidezkoak iruditzen, batetik inongo aurreabisurik gabe etorri direlako eta bestetik legea bera zentzurik gabea delako (...).

(77. zenbakia. 2001eko otsaila)

Enrique Rubio PSOEko zinegotziak kargua utzi du

ETak Froilan Elespe PSOEren Lasarteko zinegotzia hil zuenean alderdi politiko honek bere zinegotzi guztiei derrigorrean eskolta jarriko ziela erabaki zuen. Erabaki honen ondotik hainbat zinegotzik bere kargua utzi dute. (...) Zumaiaiko PSOEk dimisioa arrazoi pertsonalengatik izan dela berretsi du.

(81. zenb. 2001eko apirila)



Anbulatorioa handitu bai, baina non eta nola?

Auzi berri batekin aurkitu gara zumaiarrok azken hilabete hauetan.

Goiko tabernaren neurriak ahaztuta, anbulatorioaren handitze proiektuak hartu du protagonismoa herrian. Denak daude ados: gaur egungo anbulatorioa ez da egokiena eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuei erantzuteko. Eskaerei irtenbide bat aurkitzeko unean, ordea, desadostasunak izan dira. Estazio zaharraren eraikinaren alboan bizi diren biztanleen ustez, anbulatorioa herriko beste leku batera eraman beharko litzateke. Osakidetza eta Udalaren iritziz, berriz, oraingo anbulatorioari alboan beste eraikin bat erantsi beharko litzaioke. Kontuak kontu, denak ados daude auzia luzera joango dela. (2001eko maiatzak 18. 83. zenb.)



Odietarako proiektuaren inguruan kezka eta zalantzak

Onartuta dagoena arau osagarrien berrikuspena da. Bertan jasotzen denez, frontoia bota eta herri eskolaren ondoan egin nahi da berria, kirol zerbitzuen gunea osatuz eta Eusebio Gurrutxuga plaza Odieta auzora zabalduz. Frontoi txikian lehen eraikin berria egin, Torre-berri zaharberri eta orain Odieta plazaren inguruan dauden etxeak bota eta berriak egingo lirateke.

Auzotar gehienek ez dute begi onez ikusten proiektua. "Afektaturiko familien %80 ez gaude ados", diote auzoko komitekoek. (...)

Luxiano Pagaegi udal arkitektoak garbi utzi nahi du proiektua aurrera eramateko sistema ez dela desjabetzapena. "Kontua ez da auzokoei jabetza kendu eta konpentsazioa ematea. Kooperazio sistema baten bidez arituko gara eta auzokoei proposamenari ezezkoa ematen

Agur, Patxanga, agur



(2001eko ekainak 15. 85. zenb.)

badiote, ez da ezer egingo", dio. (2001eko ekainak 15. 85. zenb.)

3/4ak bete eta oraindik barruan

14 urte daramatza preso Ixiarrek eta hainbat espetxetatik igaro ondoren Asturias-eko Villabonan dago azken hilabeteetan. Duela astebate espetxeak bere zigorraren 3/4ak beteak zituela baieztatu zion ofizialki. 3/4aran hau legeak baldintzapeko askatasuna emateko eskatzen duen baldintzetako bat da. Honen ondoren hirugarren gradua lortzea eta kartzela zaintzako auzitegiak presoak birgizartetzeko modukoa dela dioen deklarazio bat ere eskatzen ditu legeak. Bi baldintza hauek kartzela instituzioen esku daude ordea eta euskal presoek kasuan ez dituzte inoiz onartzen.

(2001eko ekainak 15. 85. zenb.)

Arroa Behea goitik behera aldatuko da

Zementuaren inguruan sortutako auzoa da Arroa Behea, duela urte



batzuk azken fabrika itxi eta irtenbide handirik gabe gelditutako auzoa. Poligono industrial handi bat hasi da betetzen eta irailean hasiko dira eraikitzen 300dik gora etxebizitza. Etxe horiek, administrazio aldetik Zestoakoak izan arren, Zumaiatik gertuago daude (...).

(2001eko ekainak 28. 86. zenb.)



IRATXE AIZPURUA

Baleikeraren 100. zenbakia kaleratzeaz dagoen honetan, lehenik eta behin nire ZORIONIK beroenak eman nahi dizkiot aldizkariari.

Zorionak iritsi zareneraino iristeagatik; baina baita zurean lan egiteak niri suposatuta didan guztiagatik.

Ez ditut inoiz ahaztuko zurekin pasatako momentuak, aldizkaria argitaratu aurreko erlojupeko saioak, geure arteko tertuliak eta bertan sortutako konfiantza.

Maila apal batean hasi ginen eta pixkanaka zure izaera bermatzen joan ginen, partaide bakoitzaren izaeraren zati batekin.

Gaur egun, indar handia lortu duzu, eta irrikaz egoten gara zu kalean noiz ikusiko.

Jarraitu horrela urte askotan.

Aldaketa handiak Estazioko auzoan

Odieta auzoan bezala, Zumaiako Udaleko Hirigintza sailak Estazioko auzoa guztiz eraberritzeko asmoak eman ditu argitara. Hirigintza plan horren arabera, herriaren kanpoaldeko auzoa goitik behera aldatuko litzateke, etxe batzuk botaz eta haien orde berriak eraikiz. Odietan ez bezala, ordea, badirudi Estazioan bizilagunak ados daudela Udalaren asmoa jakin eta berehala. Baina adi egon beharko dugu, ea jabekideek behin betiko proiektua ezagutzen denean, jarrera berdina erakusten duten jakiteko. (2001eko uztailak 13. 87. zenb)



Errepide berriaren ideia aurrera

Itsasertzeko bidean Kaminerostetik Getariara jaisten bi tunel berri egingo dituzte: horra hor arduradun eta ingeniarien hurrengo proiektua. Baina horretaz gain itsasertzetik pasatu beharrean, atzealdetik joango litzatekeen errepidearen ideia ere ari da gorpuzten. Errepide Sailean oraindik alternatibak aztertzen ari dira, hau da, trazatua goraxeago edo beheraxeago pasatzeak ekarriko lituzkeen kostu, abantaila eta desabantailak. Interesa egon badago eta azterketa berehala amaitzekotan dira. Hurrengo pausoa Foru Aldundiak eta tartean diren udalek trazatua erabakitzea izango da eta hurrengo proiektua prestatzea. (2001ko iraila. 89. zenb.)



Fundazioa eta liburua Kortaren hilketaren urteurrenean

Aurrera egin eta galerarik nolabait aurre egiteko hilketak eten zuen bideari jarraitasuna eman nahi izan diote senide eta lagunek. Honela "Joxe Mari Kortaren bidetik" dio honen balore eta ideiak bultzatzeko helburuarekin sortu den fundazioaren izenak eta izenburu bera darama Kortaren biografia jasotzen duen liburua. Maria eta Jose ikastetxean egin zen aurkezpenak herritarren erantzun zabala izan zuen.

Bezperan Kursaallean egin zen aurkezpena eta herrian Nazioarteko Musika Jaialdiaren baitan San Pedro parrokian maisuek burutu zuten kontzertua ere Joxe Mari Kortari eskaini zoten. (89. zenb. 2001eko iraila)



Hasi dira Goiko Plazako lanak.

(...) Azokako lanen lehen fasean eraikinaren ingurune guztia hesituko da eta Udaletxearen aurreko fatxada eraldatzen hasiko dira. Horrek ez du esan nahi azokaren funtzionamendua gelditu egingo denik, bertan postua duten baserritar eta arrandunek lanean jarraitu ahal izango dute-eta. Azokara sartzeko, Bonifazio Etxegarai kaletik hurbilen dagoen atea erabili beharko dute Goiko Plazako bezeroek. Adreiluzko horma altxatuko da eta haren atzean arituko dira arrandun eta baserritarrak. Bitartean, azokaren kanpoaldea garbituko dute (...)

Lehen fasea amaitu eta berehala, bigarren faseko lanei ekingo diete. Baserritar eta arrandunek jada

beraien postuak izango dituzte eraikinaren kanpoaldean. Gauzak horrela, azokaren barruko lanekin hasiko dira. Hirugarren fasean Eroskik bere azpiegitura jarriko du. (2001eko urriak 19. 92. zenb.)



Zuzendaria aldatu du Udaleko Musika Bandak

Bandaren batuta 5 urtean eraman ondoren, Fernando Urainek uztea erabaki du, eta Josean Pascual etorriko da bere tokia betetzera. Fernandoren agurra izango den Santa Zezilia eguneko kontzertua prestatzen aritu dira jo eta su egun hauetan bandakoak. Entsegu batera jo dugu, Maria eta Jose ikastetxera, eta bukatutakoan saxo tenorra, saxo altua, klarinete pare bat, tronboia, perkusioa (Komisioa osatzen dutenak) eta zuzendaria gelditu dira solasaldira. (2001eko azaroak 30. 95. zenb.)

Mehatxuak Batasunako zinegotziei

ETAk Beasainen Ana Isabel Arostegi eta Javier Mijangos ertzainak hil eta denbora gutxira jaso zituzten mehatxuak. Eskela eta bala bana jaso zituzten posta bitartez Batasuneko hiru zinegotzik beraien etxeetan. Gutun bakoitzak igorle ezberdina zuen, denak ere Zumaiatik kanpokoak, baina, dirudenez, Zumaiatik bertatik igorri ziren gutunak. Hiru gutun horiek herriko postontzi batean jaso zirela adierazi zuten postetxean, eta herritik irten gabe, hartzaileen etxeetara banatu zirela. Zigilu marka ere Zumaiako postakoa dute. (96. zenbakia. 2001eko abendua)

Gazte Batzordea berpiztu da!!

Joan den hilaren hasieran izandako bileran, 70 gaztetik gora bildu ginen Gazte Batzordea berpizteko asmoz, eta bati lortu ere! Bertan, dinamika berri bat proposatu zen, hau da, hileko lehen ostiralean biltzea, eta bertan hilabete guztirako ekintzak planteatzea.

(1995eko maiatza. 12. zenbakia)



ZGB: hiltzorian ala hilda?

Azaroaren 15ean erabakiko dugu. Zurekin ala zu gabe, baina Zumaian oraindik gazte sentitzen garen guztion artean egin beharreko zerbait izango da. Agian ez zara konturatzen, baina gauza asko gal daitezke: lau urteko borroka herriko gaztediaren alde, festetako giroa bultzatzea, herriko informatzaile izatea, eta herrian gazteok sortu eta bultzaturiko dinamika bat bidean gera daitezke. Eta guztia zu eta zu bezalako beste hainbat gaztek nahiago dutelako eguna tabernan edo etxean ematea, ezertan inplikatzeko baino.

Edo agian hori ez da zure arazoa. Agian zu ez zara gazte sentitzen. Hamasei urterekin gazteegia zara, eta hogeita bostekin zaharregia. Eta bitartean ez duzu denborarik, unibertsitatean ikasi behar duzulako: Payaso!

Edo bestela iruditzen zaizu ZGB herri mailako sekta bat dela. Joan al zara inoiz bilera batera horrela pentsatu aurretik? Edo akaso ez al duzu inoiz parte hartu guk festetan edo urtean zehar zuretzako eta zu bezala Zumaian dauden gainontzeko gazteentzat antolatutako kontzertu eta ekintzetan? Ez al duzu inoiz irakurri guk argitaratzen dugun Baleike hau? Zer diozu orduan?

Gaztea bazara (eta gaztea edonor izan daiteke) zatot azaroaren 15ean gaueko 9 t'erdietan Oxforra eta ez ezazu ZGB hiltzen utzi. Merezki duelako. Benetan. **JOSU WALIÑO**

(29. zenb. 1996ko azaroa)

Gazte Batzordea berpiztu da!

Gogoratuko duzue nola aurreko zenbakian, hil ala biziko bilera baterako deialdia egin genizuen. Eta hala, bilera egin zen, bilera nahiko jendetsua. Bertan, Gazte Batzordearen hastapenetan partaideak izan zirenak, gau egunean biltzen direnak, eta gogotsu agertu zen gazte talde bat bildu ziren.

Bileran bildu zen jende kopurua eta hauen lanerako gogoia ikusita, Gazte Batzordeak aurrera segitu behar duela erabaki zen, eta horrela, bilera hark jarraipen bat izango zuela ziurtatzeko, eta jendearen artean halako konfiantza bat sortu asmoz, epe laburrera GBA aurrera eramaten saiatuko den hainbat ekintza antolatzen hasteari ekin zitzaion.

(30. zenb. 1996ko Abendua)

San Telmoak eta gazteak

(...) Baina zoritxarrez Udaletxearen hasierako jarrera baikorrak bat-bateko aldaketa jasan zuen. (...) Hala eta guztiz ere, bigarren kontzertuarekin jarraitzea erabaki genuen eta halaxe adierazi genien Udaletxeko arduradunei. Aizarnazabalgo tablatua Apirilaren 17an ekarri eta Apirilaren 25ean itzultzea erabaki genuen. Lehen asteburua inongo arazorik gabe pasa bazen ere, hara non Maria Eugenia zinegotziaren telefono deia jasotzen dugun, tablatua Apirilaren 22an itzuli beharra zegoela esanez, Aizarnazabalgo alkateak berak maiatzaren 7a arteko baimena luzatu zigun arren. (...) Jaramonik egin ez eta udal langileak desmontatzera asteazkenean goizean goiz Aizarnazabala eramateko asmoz.

Egoera horren aurrean ZGBko zenbait kide bildu eta, beste aukerarik ezean, tablatua ezkutatzeko erabaki genuen. (...) Gure jarrera ez zitzaieela batere egokia iruditu esan ziguten, guri beraien jarrerak eta gaueko ordu haietan tablatua ezkutatzeko ibiltzeak grazia egingo baligu bezala.

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

(46. zenb. 1998ko maiatza)

Gazte Batzordea uda prestatzen

San Pedroak badatoz. Baina beroa dela eta ez dela, gazteok moteldu egiten garenez, festetarako bazkari herrikoia besterik ez antolatzea erabaki dugu. Azkenaldi honetan Erribera kalean egin ohi ditugun bazkarietan izaten den giro alai eta jendetza ikusita, ohitura honi eutsi beharra dagoela iruditzen zaigu; ea oraingoan Goiko pareraino iristen garen!

Amaitzeko, aipatu uda amaieran izaten den kontzerturako talde bila hasi beharra dagoela. Beraz proposamenak izanez gero jakitera eman. San Pankrazio joan da, bertan dugu San Romualdo. Pixka bat aurrerago San Pedro, eta Bilbotik oso gertu San Turtzi. Ondo igaro festak horretarako dira eta!

GAZTE BATZORDEA

(36. zenb. 1997ko ekaina)



Zumaiako herria intsumisioaren alde

Pasa den martxoaren 3an Zumaiako lehendabiziko intsumisioa den Ismael Manterola Ispizua epaitu zuten Donostiako auzitegian. Hau zela eta, Gu Ez Goaz (Zumaiako Talde Antimilitaristak) elkartasuna adierazteko mozio bat aurkeztu zuen Zumaiako Udaletxean, ia talde politiko guztien onarpena jasoz. (...) Bestalde, epaiketa egunean garbi ikusi zen Zumaiako herri guztiaren elkartasuna. (...) Hala eta guztiz ere, sententzia 4 hilabetetako kartzela zigorra izan dela esan behar dizuegu.

(1994ko ekaina. 1. zenbakia)

Ejertzitoak/Soldadutza

"Txorakeri bat da. Soldaduska egin nahi baduzu, ejertzitoa gustatzen bazaizu edo militarra gustukoa baduzu, joan zaitezke baina gustukoa duzulako, ez behartzen zaituztelako. Zeren zure mobidatik mozten zaituzte, lanean ari bazara, izorratzen zaituzte, eta gero lanera zoazenean, agian ez dago lanik edo agian beste norbait hartu dute. Alde guztietatik izorratzen zaituzte. Lerdokeri bat da".

AITOR CORTES LOPEZ (1994ko abuztua. 3. zenbakia)

Objezioa gure herrian

Ez dakit zehatz-mehatz noiz erabaki nuen soldaduska ez egitea, baina 1975 ingurukoak izango dira oroimenak. (...) Halako batean "talla" eguna iritsi zen eta udaletxera joan nintzen, baina hantxe esan nuen funtzionarioei ez

nuela soldaduska egin behar. (...) Barre egin zidan eta ziur aski pentsatuko zuen txori asko nituela buruan. Min eman zidan, baina oso garbi neukan zer egin nahi nuen, eta halaxe adierazi nion. Bestalde, lotsagarria iruditzen zitzaidan udaletxeak ejertzitoari laguntza ematea...

JOSEBA OSSA (1994ko iraila. 4. zenbakia)

Zumaiako bigarren objektoreak bitzako esperientziak

(...) 1986ko martxoan, objetatu egin nuen. MOC-eko bulegora joan nintzen, eta han esan zidaten paper batzki bete behar zirela. Tribunal batek zure kontzientzia juzgatzen zuen. Parregarria iruditzen zitzaidan. (...) Zeri nion beldurra? Garai artan ez zen erraza objezioa onartzea. Oztopo asko zeuden. Teorian epaimahai bat zegoen zure kontzientzia juzkatzeko. Gauza oker joan ezker, 6 urteko kartzela zegoen.

IÑAKI URANGA MUJICA (1994ko urria. 5. zenbakia)

Objetore eta intsumisioen kopurua etengabe gehitzen doa

Gaurko egunean, Zumaiako objetore eta intsumisioen kopurua goruntz doa. Zifrarik ezin dezakegu zehaztu ordea, oraindik gaur, talde bat badagoen arrear koordinazio falta handi bat dugulako. "Gu ez goaz" talde antimilitaristak bere ibilbidea gogoz hasi zuen. (...) Arrakastak baino porrotak

gehiago ziren hala ere. Kontua ez zen izugarritzko arrakasta izatea, mugitzen hastea baizik.

GU EZ GOAZ (7. zenbakia. 1994ko abendua)

Ismaelek jaso du sententzia...

Jakingo duzueenez epaiketan emandako sententzia 4 hilabeteko kartzela zigorra izan zen, baina fiskalari gutxi iruditu zitzaionez, Auzitegi Probintzialaren aurrean errekurritu zuen.

... eta Juan Luis otsailean epaituko dute

(1995eko urtarrila. 8. zenbakia)

Juan Luis ere ez doa

Goizeko hamarretan autobus bat abiatu zen Donostiarantz herriko jendez beteta, institutuko gazteak gehienbat. Donostiara iritsi ondoren epaitegi aurrean elkartu ginen "Gu Ez Goaz" hitzak azaltzen zituen pankarta atzean. Barruan Juan Luis abokatua-ekin zegoen epaiketaren azken xehetasunak prestatzen.

(1995eko martxoa. 10. zenbakia)

Gurutze Gorrira ere ez doaz



Batzuk otsailean, besteak ekainean bertan, 7 gazteek aurkeztu behar ziren Zumaiako Gurutze Gorrian Ordezko Zerbitzu Soziala egitera, baina ez joatea erabaki dute, soldadutzaren aurkako pauso bat emanaz. Erabaki hau herriari aditzera emateko modu bitxi bat aukeratu zuten, gainera. Lehengo San Juan egunean Gurutze Gorriko gaineko terrazan arratsalde-pasa bat antolatu zuten.

(1995eko uztaila. 14. zenbakia)



Beste zumaiar bat epaitua

Joan den urriaren 19an, goizeko 9 t'erditan Iñaki Etxaniz zumaiarra

epaitu zuten. Bere delitu bakarra: intsumiso izatea.

(1995eko azaroa. 18. zenbakia)

Ordezko Zerbitzuari

Buruz

Hau kontuan edukiz eta gaur egun dagoen langabezia ikusiz, zer ari dira objetoreak egiten? Nire ustez lanpostuak kentzen, besterik ez.

(IÑAKI ETXANIZ, intsumitua. 1995eko abendua. 19. zenbakia)



Lanean?

ESTHER MARTINEZ

Askotan gogoratzen ditut aldizkarian lanean igarotako garai haiek; eta lanean esaten dut, bai. Hasiera batean, lanean baino beste edozertan pentsatzen nuela onartzen dut.

Gazte Batzordeko bileraren proposamenak irrati kate edo aldizkari bat ateratzea ziren. Egia esan, interesgarria zen, baina are interesgarriagoak iruditzen zitzaizkidan talde horretako mutil hura edo bestea. Bilera hartan esan zuten aldizkariaren sorreran parte hartu nahi zuenak hurrengo egunean (larunbat goiza: handik aurrera hau izango zen Baleikeko bileren eguna) Arrangoletan azaldu beharko zuela.

–Joango al gara?

–Ze lotsa!

–Bai ze! Guk aldizkari bat nahi dugu, ezta?

–Baaaa! Aldizkari bat egin nahi dugu mutil hoiekin! Baina ni ez noa...

–Bihar 10:00etan!

Hantxe joan ginen aurpegia gorri-gorri eta irribarre tonto batekin. Geroztik Baleikeko neska txikiak izan ginen: Itziar, Iratxe eta ni.

Baina nahiz eta gure lehenengo motibazioa mutil guapoak izan, asko ikasi genuen: proiektu bat nola aurkezten den edo laguntza ekonomikoak ematen dituzten instituzioak ezagutzen; azken finean, aldizkari bat ateratzeko prozesu guztian behar dena ikastea premiazkoa zen.

Denboraldi luze batean, ordenagailuen aurrean egin ginen nola maketatzen zen ikasi arte. Herri guztia ere goitik behera miatu dugu publizitate bila; Udalarekin negoziaketa bilerak zer diren ere ikusi genuen; Zumaiako elkarrekin kontaktuan jarri ginen, gure artean koordinatu, egiten ari ginena era formal batean azaltzen, erabakiak hartzen, ideia berriak aurkezten... Denbora aurrera joan ahala, egoera berriei aurre egiten ikasi genuen. Aktoresa izateko aukera ere izan dut eta!

Laburbilduz, lotsatutako neska txiki hark aurpegia eman, eman zuen. Beraz, asko ikasi genuen, baina ahaztu gabe lan asko egin genuela. Eta hori guztia oso ondo pasatuz, gazteak ondo pasatuz lan egiten badakigulako.

Lan egin eta ondo pasatu nahi duten gazteek, lotsarik gabe laguntza eskatzen ikasi beharko lukete, eta era berean gazte horien artean ardura sentitzen duten helduek ere, lotsa gehiago izan beharko lukete, gazteei behar duten adina laguntza ez emategatik.

Bukatzeko, aukera hau aprobetxatuko dut esperientzia hau hain "pletorexikoa" egin duzuenoi eskerrik goxoena emateko.



(1. zenb. 1994ko ekaina)

Pello Etxabe.
Tabernaria.

Nik egin dizkiat... puf! Meza ematea bakarrik falta zikak.



(2. zenb. 1994ko uztaila)

Fermin Leiza.
Soinujole eta enterradorea.

Eta hala, praka motxak gaztetan jazten nitunetik, soinua jotzen hasi nintzan kanpuan.



(2. zenb. 1994ko uztaila)

Juan Luis Blanco.
Intsumisoa.

Objezioaren ideia baino gehiago, 16 edo 17 urterekin amets bat nuen, egunen batean soldadutzara ez nintzela inoiz joango.



(3. zenb. 1994ko uztaila)

Bertil Lagerström.
Bidaiari suediarra.

1986 urtean, Gestorako martxan argazkiak ateratzen ari nintzela hiru aldiz kendu zizkidan karreteak Guardia Zibilak.



(4. zenb. 1994ko iraila)

Elena Irureta.
Aktorea

Batzutan antzerkia egiteko norberak jarri behar du dirua. Hala ere, telebistak baino satisfazio gehiago ematen dizkizu.



(5. zenb. 1994ko urria)

Lucia Lakarra.
Dantzaria

Borondate txarrarekin albokoa izorratuz eta azpijokoak egiten dabilena gora heltzeko, normalean ezerezean geratzen da.



(6. zenb. 1994ko azaroa)

Imanol Osa

Harrigarria

iruditzen zait XXI. Menderako gutxi falta denean oraindik ere jarraitzea entzuten izugarrizko astakeriak homosexualitatearen inguruan.



(7. zenb. 1994ko abendua)

Javier Carballo.
Argazkilaria

Argazkia artisauengana eta jendea-rengana hurbiltzeko bidea edo aitzakia izan da eta jende horrekin ikasi dudana ezin da diruz ordaindu.



(7. zenb. 1994ko abendua)

Mohamed Salem.
Frente Polisarioren Euskal Herriko enbaxadorea

Sahararrok ez dugu estatu espainolak, Marokok eta Mauritaniak hartutako akordioa onartzen eta gure herriaren independentziaren aldeko borrokari ekin diogu.



(8. zenb. 1995eko urtarrila)

Abelin Linazisoro.
Xatur Goenkalen

Nola hain nahastua den, gazteen roiloak, zaharrenak, negar egitekoak, barre eginaraztekoak eta denetik nola dagoen, pupurri bat da eta asmatu egin dute.



(9. zenb. 1995eko otsaila)

Joxe Manuel Manzidor

Kupoiak eman eta dirua ematen didate; batzuetan kajero konplexua dudala iruditzen zait.



(10. zenb. 1995eko martxoa)

Arritxu Iribar.
Kazetaria

Kiroletan emakume izateagatik demostratu egin behar duzu badakizula horretaz.



(10. zenb. 1995eko martxo)

Monjaxarrak

Jendeak beldurra dio isiltasunari, hau da, norberari, bakarrik egoteari.



(11. zenb. 1995eko apirila)

Driss. Kinkileroetan saltzaile

Orain, gu etorri gara hona, eta ez besteen kontura bizitzera, baizik eta lan eginaz bizitzera, geure izerdiaz bizimodua irabaztera, inorena kendu gabe, eta hala ere ez gaituzte ondo hartzen.



(13. zenb. 1995eko ekaina)

Inaxio Tolosa. Errenazi-menduko gizona

Nahiko kezkatia naiz. Mozkorraldiak bezala etortzen zaizkit kezkak, boladak izaten ditut.



(14. zenb. 1995eko uztaila)

Frank Delgado. Trobadore kubatarra

Badakit nire musika eta mezua ez direla hutsean geratuko, eta honek asko estimulatzen nau.



(14. zenb. 1995eko uztaila)

Luis Mari Goikoetxea. Aita Mari A.E. lehendakaria

Laguntza irabazten eta galtzen denean eman behar da, ez bakarrik emaitza onak lortzen direnean.



(16. zenb. 1995eko iraila)

Asentxio Elustondo. Apaiza

Herri bat den lurraldeak, bere nortasuna galdu gabe eta nortasun hori gehiago landuz, hain zuzen, bizitzen du kristau mezua.



(16. zenb. 1995eko iraila)

Ricardo Peña. Alkatea

Udaletxea eta azoka hemendik kentzen badira parte zaharra hondora joango da, hilda geratuko litzateke.



(17. zenb. 1995eko urria)

Jon Maia. Bertsolaria.

Ezin da esan Zumaian gazte mugimendu bat dagoenik.



(17. zenb. 1995eko urria)

Gotzon Enbil. Pilotaria

Profesionaletan diru pixka bat mugitzen da bai, baina "txollo" hori amaitzerakoan ez zaizu ezer geratzen.



(18. zenb. 1995eko azaroa)

Manuel Bastías. Herpesaren mirarigilea

Ur bedeinkatuan, esango ez ditudan osagai batzuk botatzen ditut. Ondoren bederatzi erramu-hosto hartzen ditut, gurutzaturik jartzen dira, horiek uretan bustitzen joaten naiz eta nik dakidan otoitz bat isilpean esaten dudun bitartean gurutzeak egiten ditut erramuarekin gaitza dagoen tokian.



(19. zenb. 1995eko abendua)

Kandido Uranga. Aktorea

Lanbide honetan asko arriskatzen da. Jendearen erantzuna ona bada, pozik sentitzen da, baina hala ez bada, Saharako azken muturrean nahiko luke egon.



(19. zenb. 1995eko abendua)

Benito Etxabe. Anguleroa,

Franco hil zen ganean 30 kilotik gora angula hartu genituen.



(21 zenb. 1996ko otsaila.)

**Jaione Iregi.
Emagina**

Garai batean umeak mundura ekartzen laguntzea izaten zen ia zeregin bakarra, eta gaur egun ia denetik egin behar izaten da.



(25. zenb. 1996ko ekaina.)

**Fatimetu
Abdelahi.
Tindoufeko Giza
Eskubideen
arduraduna**

Gaur egungo egoeran ezin dugu jarraitu. Gerra ala bakea, baina ez dugu gezurrezko egoera honetan jarraituko.



(30. zenb. 1996ko abendua.)

Juanjo Gabiña

Garbi daukat burujabetasuna eta independentzia eskuratu behar ditugula, beste inoren menpe egon gabe.



(22 zenb. 1996ko martxoa.)

**Joxe Mari
Azkue. Kanta**

Izan ere, Pello ez da akklaritzen!



(1996ko uztaila. 26. zenb.)

Joxeba Aristi

Zumaiak nire ustez ez du sekula afiziorik eduki. Zumaiak bere garaian fanatismo bat eduki zuen.



(31. zenb. 1997ko urtarrila.)

Joakin Zubeldia

Lehen mendizale denak abertzaleak ginen, eta oraindik ere neurri batean mantentzen da hau: mendia maite duenak aberria ere maite du.



(23 zenb. 1996ko apirila.)

Josefran Ispizua

Euskaldunontzat askoz ere errazagoa duk finlandiera ikastea espainiar edota ingeles batentzat baino.



(27. zenb. 1996ko iraila.)

Iñaki Txanbolin

Itxurakeria asko ikusten dut eta jendeak nork bere burua engainatzen duela ikusten dut.



(33. zenb. 1997ko martxoa.)

**Juanita
Beristain**

Honea etorri ginenien mantekilleruei ematen hasi ginen esnia, gero letxeruei, baina etzun paatzen ezerre, eta gero hasi ginen esne-partitzen.



(24. zenb. 1996ko maiatza.)

**Miren Mendez.
"Torreberri"**

Azkenian ni presentatu biharko naiz presidente.



(29. zenb. 1996ko azaroa.)

Elena Apestegi

Gineako gizartearen zutabea emakumea da. 13 urterekin hasten dira sexu harremanetan. Askotan ez dakite norena den haurra.



(34. zenb. 1997ko apirila.)

**Joxe Migel
Irigoien**

Behin bakarrik jantzi naiz (urdinez), lehengo urtean. Beste behin jantzi nuen alkandora eta jendeak esaten zidan "hi ez haiz arrantzalia, anaia dek arrantzalia", eta etxera etorri eta aldatu egin nintzen.



(35. zenb. 1997ko maiatza.)

Fernando Urain

Musikoei gutxien gustatzen zaiena tanborradan jotzea da, ze musika aldetik zero bat da. Baina udaletxeak dirua ematen du eta...



(36. zenb. 1997ko ekaina.)

Joanito Dorronsoror

Zumaiako gazteria bertso kontuan nahiko jantzia da. 50etik gora izango da lagunartean bertso puntuka elkarrekin aritzeko gai direnak. Zer jolas politagorik?



(37. zenb. 1997ko uztaila.)

Luciano Pagaegi

Mojak dauden bitartean ezer gutxi egin daiteke, baina egunen batean, euren jarduera amaitzen denean, lur pribatu horiek publiko bihurtzeko asmoa dago, aparkalekuak edo plazaren bat egiteko.



Karmen Balenziaga
(fruteriak)

Sarritan kontsulta itxura hartzen zuen, baten semea gaixo zegoela eta zer egin, beste batek arazo bat

zuela eta alkateari deitu... Saldu ere, frigorifikoetatik hasita, edozer saltzen genuen.

(38. zenb. 1997ko iraila.)



(40. zenb. 1997ko azaroa.)

Joseba Aizpurua. A.G.E.-ko partaidea

Musika oso barnean sartuta dugu. Guretzat musika dena da, gure bizimodua, gure kultura.



(41. zenb. 1997ko abendua.)

Tito Mancilla

Hori da politena, gazte pila bat egotea arraunaren inguruan. Hau beteta emaitzak bere kabuz etorriko baitira.



(42. zenb. 1998ko urtarrila.)

Jose Maria Elosua "Porte"

Espainiaren historia PPK idazten badu hau izugarritzko garaipen gisa agertuko da.



(43. zenb. 1998ko otsaila.)

Zumaia Bizirik

Justizia justizia bada eta gure kartak ondo jokatzen baditugu, Zumaiako kirol portua maketa bat izatetik ez da pasako.



Eulaligatik ez balitz...

IGOR URANGA

Bat, bi, hiru, lau, bost sei, zazpi... ehun! Ehungarren zenbakia bete du, bai,

Baleikek. Nork usteko zuen hasieran honaino iritsiko zenik (nik ez, behintzat). Baina gertatu ere hala gertatu da: jaio berria mutil koskor bilakatu da, eta hilero-hilero herritarrekin duen hitzordua betetzen du -nahiz eta batzuetan puntualitate handirik ez izan-.

*Los otros*engan jartzen genituen guk geure begiak aldizkaria aurrera ateratzeko orduan: herri komunikabideen inguruko jardunaldiak Arrasaten, herri aldizkaria zuten tokietara informazio bila, dirulaguntzak jasotzeko eskaeraitsuak... Los otros ziren gure erreferentzia.

Baina pixkanaka Los otros nosotros bihurtuz joan eta Baleike ez leike izatetik aldizkari bihurtzera igaro zen. Erreportaiak, elkarrizketak, berriak, inkesta, lehiaketak, eta nola ez, kirolak, nire kirol maiteak. A zer nolako oroitzapenak...

Foronda izan zen gure lehenengo etxea. Gure aurreneko kobazuloa izan zen. Lehena eta oroitzapen onenak dakarzkidana burura, dudarik gabe.

Baleikereren estreineko urratsak ziren; herri aldizkari bat kaleratzea zer den eta zer nolako buruko minak ematen dituen jabetzen hasi ginen. Hilero Wali, Larre, Kaxkajo, neska txikiak eta nik neuk ere bilera egiten genuen hilabete horretako lana banatzeko. Lanak egiteko epeak finkatzen genituen, baina ez ziren gehienetan betetzen (azterketak zirelako edo besterik gabe, potroso hutsak ginelako). Eskerrak Forondako zulo horretan lanean geundenean tarteka aingeru guardakoa etortzeko zitzaigun: Eulali! Han etortzen zen pintxo plater, gozoki, ardo, freskagarri eta bestelakoekin. Bapo geratzen ginen... Momentu horiekin ez naiz sekula ahaztuko. Nire eskerrik beroena berari, Eulaliri. Bera gabe Baleike, seguruenik, ez zelako Baleike izango.



(44. zenb. 1998ko martxoa.)
Migel Larburu

Nik uste dut Aljeriak oraindik aukera asko dituela. Aberastasun handiak ditu, ez bakarrik petroloia, jendea ere oso irekia da. Etorbizunerako oinarri bikainak ditugu.



(45. zenb. 1998ko apirila.)
Juan Jose Urbieta "Katza"

Zure bizitzan gelditu, hausnarketa egin eta distantziatik begiratu behar diozu egin duzunari, egunero egin beharreko zerbait da gainera.



(46. zenb. 1998ko maiatza.)
Martxel Toledo

Kirola gizartearen ispilua da.



(47. zenb. 1998ko ekaina.)
Balendiñe Albizu

Queipo de Llano, faxisten buruetakoa entzuan genduan Gernika erre zutenak euskaldunak izan ginala esanaz. Bastante gerora ere tripetan bueltaka neukan Queipo de Llano madarikatua, eta halaxe idatzi nuan nere lehenengo olerkia, 37an, "Gernika sutan".



(48. zenb. 1998ko uztaila.)
Ion Ander Garcia

Jende gutxik zekin zertan genbiltzan, eta egun batetik bestera egunkarietan atera geranean, ba jendea seko harrituta gelditu da.



(48. zenb. 1998ko uztaila.)
Uxua Gainza

Kanpotik erraza da esatea kirol gogorra dela baina orain barruan nagoela, nahiko meritua iruditzen zait denboraldia bukatzearekin.



(49. zenb. 1998ko iraila.)
Jose Luis Oiarzabal

Behin Zumaian esan zidaten ea nola nituen berriro herrira itzultzeko barrabilak. Ni bertakoa naizela erantzun nien, eta nire herrira itzultzeko eskubide osoa nuela, benetan errudun banintz ere.



(50. zenb. 1998ko urria.)
Eguzki Agirrezabalaga Egineko langilea

Goizeko hamai-
ketan prezintatu zuten eta gu hurbildu ginenerako batzuek oraindik begiak malkotan zituzten... inpotentzia.



(51. zenb. 1998ko azaroa.)
Xabier Aranguren

Bertakoen abegikotasunak pilak kargatzen zizkidan. Nik uste dut horri esker iraun dudala bertan urte erdi bat, jendearen animoengatik.



(52. zenb. 1998ko abendua.)
Agustin Zubimendi

Nik ez dut ulertzen Gabonik Gabon korurik gabe.



(53. zenb. 1999ko urtarrila.)
Imanol Azkue

Ikaragarri gustatzen zait inoiz bizi ez ditudan egoeratan sartzea.



(54. zenb. 1999ko otsaila.)

Apaizgaiak

Ebanjelioa zabaltzeko modua aldatu beharra dago, eta komunitateak paper aktiboagoa hartu behar du parroikiko lanetan.



(56. zenb. 1999ko apirila.)

Agustin Zubimendi

Danbor berriak izango ditugu, baina jotzeko jendea falta zaigu.



(60. zenb. 1999ko iraila.)

Oier Aizpurua

Bulegoko erabaki politiko batek utzi gaitu Mundialetik kanpo.



(65. zenb. 2000ko otsaila.)

Justo Osa

Congoko beharrak ikusi nitunean gelditu in nintzan.



(57. zenb. 1999ko maiatza.)

Jose Luis Elosua

Jubilazioa gauza ederra da.



(62. zenb. 1999ko azaroa.)

Koldo Landaluze

Batzuetan Zumaia herri fantasma bat dirudi.



(66. zenb. 2000ko martxoa.)

Ixidro Etxabe

ETAk badaki bere ekintzekin baino elkarlanarekin pauso gehiago eman daitezkeela.



(58. zenb. 1999ko ekaina.)

Victor Jesus

Kubatar guztiek dakite ipurdia mugitzen, baina dantzan ez.



(64. zenb. 2000ko urtarrila.)

Patxi Aristi

Gure herriaren eraikuntza nazionalaren partaide libreak izatea aldarrikatzen dugu.



(67. zenb. 2000ko apirila.)

Maite Golmaio

Anonimo batzuk jaso genituelako jarri ahal izan da epaiketa martxan.



(59. zenb. 1999ko uztaila.)

Joseba Egaña

Tenporek ez dute inolako oinarri zientifikorik, sineskeria hutsa dira.



(65. zenb. 2000ko otsaila.)

Joseba Ossa

Orain idazle izateko gogoia piztu zaidak.



(69. zenb. 2000ko ekaina.)

Valentin Manterola

Zumaia energia berezia duen herria da.



(69. zenb. 2000ko ekaina.)

Joxe Antonio Alberdi

Taldea mailaz igo arte lehendakari mantenduko nintzela hitz eman nuen eta hitza bete dut.



(75. zenb. 2001eko urtarrila.)

Ibon Esteibar

Atxantatu beti izan da lagun koadrila, serio eta ez serio, limite horretan ibili dena...



(85. zenb. 2001eko ekainak 15.)

Migel Odriozola

Teknologiaren aldaketetara eta antolakuntza berrietara moldatzeko jende oso prestatua behar da eta aurrera egiteko modu onena gazteei tokia egitea dela ikusi dugu.



(70. zenb. 2000ko uztaila.)

Juan Ramon Llavori

Ezagutu dudan herririk bereziena da tibetarrena.



(81. zenb. 2001eko apirilak 20)

Mikel Ibar

Pablok errugabea dela dio, emazteak berarekin zegoela hilketa gertatu zenean, eta erruduna dela diotenean frogatu ez dutenez, guk sinetsi egiten diegu.



(86. zenb. 2001eko ekainak 28.)

Ixiar Arrizabalaga

Beti esaten dugun bezala elkarrizketa da bide bakarra. Nortzuk hitz egin? Alderdi politiko guztiek. Zertarako? Gatazkari irtenbide demokratikoa bilatzeko, hau da, euskaldunok erabakitze ahalmena eskuratzeko.



(74. zenb. 2000ko abendua.)

Txomin Zabaleta

Nik ez dut ulertzen esaten denean "ni kristaua naiz baina ez dut praktikatzen."



(83. zenb. 2001eko apirilak 20.)

Beli (Sebillana)

Lo mejho cera que nozotro empezemo con el ukera y utede con el andalu. Pero no hagan caso al televisor. Todo zalen haciendo el andalu, remedando nuetro cejillo, pero no lo e ni uno.



(75. zenb. 2001eko urtarrila.)

Inaxio Tolosa

Itxura bat hartzen da, baina bizitzan guztiok ditugun rolak ere itxuraldaketa berdinak dira.



(87. zenb. 2001eko uztailak 13.)

Iñaki Osa Goikoetxea

Aurreko batean hondartzatik merientatzera joan eta telebistarako elkarrizketa bat egiten bukatu nuen, txankleta eta guzti.



(88. zenb. 2001eko uztailak 27.)

Igor Zendoia

Nire Bilboko ikasle pisuak gerra aurreko dekorazioa zeukan zulo beltza zen eta hauenak luxuzko sofak eta diseinu modernistako lanparak dituzte.



(92. zenb. 2001eko urriak 19.)

Graxian Galarraga

Zumaian inoiz ez da ikusi Jesucristo Superstar. Guraso Elkartean zegoen eta eragin handia zeukan jaun batek esan zuen pelikula hori ez zela botako Zumaian, eta prest zegoen baita alokairua ordaintzeko ere, ez botatze-arren.



(93. zenb. 2001eko azaroak 2.)

Kandido Uranga

Erromantikotasunez eta konstantziaz inguratutako filmatze bat izan zen. Beto borrokalari hutsa da. Nik badakit nola lortu duen filma aurrera ateratzea eta etengabeko borroka izan da.



(95. zenb. 2001eko azaroak 30.)

Abelin Linazisoro

Txantxa moduan egin nahi dudan zerbait badaukat buruan. Bromatan baino gehiago, ironiarekin, adarra jotzeko asmoarekin idatzi dudan ipuin bat. Agian hortik zerbait aterako da.



(96. zenb. 2001eko abenduak 21.)

Jon Maia

Finalisten artean anbizio gehiago ikusi dut, batez besteko maila hobea eta saioak gailur gehiago izan ditu. Bi onenek aurrera egiteko formulak ere asko lagundu du arrakasta honetan eta bukaera apoteosikoa izan zen, benetan zirrargarria.



(97. zenb. 2002ko urtarrilak 18.)

Xabier Azkue

Hau lehenengo txapela izan da niretzat eta ilusio handiz jaso dut. Emozionantea izan zen Joanitok ematea, beti miretsi izan dut eta pozez hartu dut saria bere eskutik.



(99. zenb. 2002ko otsailak 15.)

Pako Aristi

Nik nahi nuke idazkera freskoa izatea, zorrotza eta aldi berean samurra. Hiru ezaugarri horiek baleuzka, perfekto.



Euskararen itsasoan ito gabe

XABIER AZKUE

Askota dira 100 zenbaki gero! Nahikoa zen Oxford aretoari

itzuli bat ematea 8 urtean egindako lanaz jabetzeko. Herriko historia ia ehun aldizkarietan eta ehunka argazkitan jasota. Argazkiek izan ohi dute arrakastarik handiena, baina konturatu al zarete inoiz zenbat letra ager daitezkeen aldizkari bakar batean? Ea, gurean: 32 orrialde x 2.500 letra inguru x 100 zenbaki = 8.000.000 letra, hori x 1.000 ale... Hau zorabioa! Hau itomena!

Herri arrantzalea omen da gurea, santelmotan hala dirudi, behintzat! Horregatik, ontzi baten irudiarekin alderatu nahi nuke egoera. Ontzi txiki batean sartu ginen euskararen itsaso handian, eta orain pieza berriak sartuta, gero motorra aldatuta, olatu handiei eta ekaitz beldurgarriei aurre egiteko modua izan dugu. Barealdiak eta itsaso handiak tartekatu dira azken urteotan; tripulazioan ere hainbat aldaketa egin behar izan ditugu, ezinbestean.

Orain, sare artean nabigatzea modan dagoen garai honetan, ontzia txikia eta zaharkituta geratu zaigu. Ontziolara sartu eta konpontzeko aukera hor ikusi dugu, baina zuloak estalita eta makina ondo koipeztatuta ere, arrantza aldirik onenak joan zirela iruditzen zaigu. Hori dela-eta, inor barruan dagoela hondoratu baino lehen, nahiago izan dugu itsasontzia lehorreratu.



Urteotan eskarmentu handia hartu dugu, hala ere, eta langintza horretan jarraitu nahi duen orori laguntzea da gure asmoa. Ontzi berria erosteko aukera hor dago; tripulazio handiagoea beharko genuke, ordea. Itsasortzeko prest al zaude?



LASAI JUANAN HEIDEGER BAT HARTUKO YAU PENAK JUTEKO (...) IPS ~ IU DAONEKO JIÑA ZIOK MARIAEUG

BOTELLOJA MODAN ZIOK... OFERTA DAKAU ...







Tindouf: Saharuien babesle

Aurtengo San Pedrotan, beste hainbat herritako ordezkariekin batera, Zumaia-ko ere ordezkari bat izan zen Tindouf-eko basamortuan. Bertan, Ricardo Peña alkatea eta Jesus Alkorta eta Imanol Garate Zumaia-ko Udaletxeko zinegotziak izan ziren egun batzuetan, Saharar herriarekin harremanetan. Honen ondorioz, Zumaia Zug-daira herriarekin senidetu zen, eta uztailean ere, haur sahararrak izan genituen Zumaian bixitaldi bat egiten.

(1994ko abendua. 7. zenbakia)



Zumaiako mojaxarrak ez daude hain zahar

Ordubeteko elkarrizketa egiteko asmoz geratu ginen igande arratsalde bateko zortziak eta laurdenetan, baina gaueko hamarrak jo zizkiguten komentuan (bertako arauak hautsiz) ardo goxoa eta pastak ahoan, kontu-kontari, elkarrizketa amaitu ezinik.

(...) Beraiek esaten diguten bezala "denbora asko pasatzen dugu isiltasunean. Ez al da polita?". Garbiketak eta etxe-ko lanak ere (hormak konpondu etab.) beraiek egiten dituzte nahiz eta ez diren hain gazteak. "Nik -dio Karmengoa baserrikoak- 60 urte egin ditut bertatik irten gabe". Duela 31 urte sartu zen azkena, eta beste guztiak tartean dabilta.

(...) Herriko gazteentzat mezu bat (...): "beren arazoak ulertzen ditugula; asko maite ditugula; (...) dibertitzea ondo dago, baina parranda gehiegi egiten bada gorputzak ere sufritu egiten du"

(Joseba Ossa, Ismael Manterola. 1995eko martxoa. 10. zenbakia)



Moilako Ingeniaritza Eskola

Ia beti hor izango dituzu, eguraldi ona denean seguruago. Askok jubilazioa hartutakoak dira. Moilan eta Paolaldean gertatzen diren gauza denen berri izaten dute: obrak nola doazen, itsasora zein irteten den eta zein ez, arraunlariak zer moduz dabilzan... Dena. Asteazken goiz

batean moila aldera joan gera (...) Irakasle zaharrak ikasleari bezala eman dizkigute azalpenak.

(1995eko uztaila 14. zenbakia)



Besteen umeak zaintzen

(...) Lauzpabost neska/emakume daude dindanen inguruan, bakoitza bere kotxe eta haurra-ekin. Badirudi Amaia-ko plaza lan honetan aritzen direnen topagune egokia dela. Petrilean eserita Miren ikusi dugu, eta berarekin ere hizketalditxoa izan dugu.

Lehengo urtean hasi zen lan honetan, eta unibertsitate ikasketan egin ondoren lanik topatzen ez zuelako hartu zuen (...).

Ez da erreza izaten lan hau behar bezala neurtzea. Aipatu digutenez, goiz eta arratsalde aritzen denak 60.000 inguru jasotzen ditu hilean, eta goizez edo arratsalde bakarrik aritzen denak, berriz 25.000. Zarautzen gehiago ordaintzen dute, baina hara egunero joatea ere ez da merkea.

(1996ko maiatza. 24. zenbakia)



Gida bat baino zerbait gehiago

Hilabete batzuetako lanaren ondoren, San

Pedroen inguruan ateratzea espero da Zumaiari buruzko 'gida turistikoa'. Komatxoaren artean jarri dugu batetik ez delako turistentzat bakarrik zuzendutako lana, eta bestetik gida arruntetan normalean azaltzen ez diren datu eta informazio asko bilduko dituelako. Aspaldian ez zen horrelako lanik egin Zumaian eta politena da erabat zumaiarrez osatutako taldea aritu dela lan honetan.

(1996ko ekaina. 25. zenbakia)



Kantauriko belar gorriak biltzen

Itsasoa harrotzen denean goiak eta beheak

astintzen ditu, eta orduan belar gorri bat pausatzen da gure kostaldeko haitz eta hondartzetan: oldia edo alga da.

Gelidium motakoa. Oldi hau, edo zehatzago esanda, oldi honetatik ateratzen den Agar-Agar produktua oso erabilia da kosmetika munduan eta zenbait elikagai loditzeko (E-407). Horregatik 6-7 familia portugaldar itsasoari begira bizi dira, belar gorri preziatu noiz azalduko.

Hasiera batean honen atzean negozio ederra dagoela pentsatzen dugu eta herriko jendearentzat ere lana egon daitekeela bertan. Baina portugaldar "beterano" batzuek aitortu digutenez oso lan zikina da hau, gogorra. Oldi guztia bildu ondoren, zakar guztiak kendu behar zaizkio lehortzen utzi baino lehen, eta pentsatzen dena baino lan gehiago ematen du honek.

(29 zenb. 1996ko azaroa)



60 urteko kontu tristeak oroituz

Espanian gerra zibila 1936ko uztailaren 18an hasi zen; Francoren armadak Afrikatik eta

Mola generalarenak Nafarroatik, indartsu ekin zioten ordura arte agintean zegoen gobernu errepublikarra suntsitzeari. Zumaia irailaren 21ean hartu zuten, eta gauza triste askoak gertatu ziren orduan, baina ez da gure asmoa hautsak harrotzen hastea, garai hartako zenbait gertaerei buruzko zertzelada batzuk eskaintzea baizik.

Zumaian, eta Gipuzkoan, ez zen Bizkaian bezainbesteko oztoporik izan nazionaleri aurre egiteko, baina beste tokietan bezala, oso une latz eta larriak igarotzea egokitu zen.

Gau batean danbateko izugarria entzun zen herri osoan. "Sartu dituk" pentsatu zuen jendeak, baina ez zen horrela izan. CNT-koek zubi txikia lehertu zuten, azpian dinamita jarrita. Horrela nazionaleri bidea itxi edota oztopatu nahi izan zieten. Zumaia bat ere tartean omen zen ekintza honetan eta txibatazo baten ondoren fusilatu egin zuten gero.

1937ko otsailaren 13an zerrenda batzuetan oinarrituz, 300 lagun inguru kanporatu zituzten herritik, ia denak emakumeak beren seme-alabekin. Frontean zeuden gudariak harrapatu ezin zituztenez, hauen familiak zigortzea erabaki zuten.

(30. zenb. 1996ko abendua)

24 ordu antxoaren arrantzan

Eguraldi ederra egiten du eta itsasoa ere bare dago. Topatu dut baporea, iparraldeko moilan. Ni iristerako dena prestatzen ari dira. Bagoaz, itsaso zabalera antxo freskoaren bila.



Irratitik etengabe entzuten dira mezuak. Eugeniok honako azalpena eman dit. "Guk koadrilatan funtzionatzen diagu. Batek zerbait topatzen dunean besteei deitzen ziek. Gertatzen

dena dek klabe edo kode bat izaten degula, besteek ez entzuteko. Hala ere, besteen kodeak asmatzen saiatzen gaituk beraien elkarrizketak entzuteko."

Eta bat-batean hortxe azaltzen da antxo desiratua, dir-dir eginez. Batzuek salabardo handiarekin ontziratzen duten bitartean, besteek izotza prestatu dute, fresko-fresko mantentzen dadin. Antxo guztia bildu ondoren, kaxetan jaso beharra dago, tamainaren arabera. Batzuek lan hori egiten duten bitartean, besteek sarea berriro botatzeko moduan prestatzen dute. Denborarik galdu gabe, Eugeniok berriro agindua eman du. Berriro pauso berdinarik.

(35. zenb. 1997ko maiatza)



Oikiako eskola bizi-bizirik

Azken urteotan izugarri aldatu da eskola txikietako hezkuntza,

hobera noski. Baliabide eta azpiegitura aldetik beste eskolen aldean juxtu samar ibili arren, eskola txikiak badituzte zenbait abantaila: giro lasai eta sanoagoa, talde txikiak (eta ondorioz, ikasle-irakasle harreman sendoagoa) euskara jatorragoa erabiltzen da...

Eskola txikia da, bai, baina pixkanaka txukundu eta hornitzen joan direnez nahiko ondo prestatuta dago gaur egun, eta une honetan 19 neska-mutil daude eskola honetan. Dagoeneko 17 urte dira Feli Urija hona iritsi zela, eta Oikiako eskola aspalditik martxan zegoen arren orduantxe hasi ziren oraingo eredu eskaintzen, hau da, euskara hutsezko irakaskuntza.

Eskola hauek izugarriko garrantzia izaten dute honelako auzo eta herri txikietako bizitzan, txiki-txikitatik autobusa hartu eta kanpora joaten ibili gabe bertan ikasteko aukera ematen baitute. Gainera, taldeak oso txikiak izanik harremanak estuagoak dira eta irakasleak ikasle bakoitzaren jarraipena askoz gertuagotik egin ahal izaten du. Adin ezberdinetako jendea elkarren ondoan egote ez da oztopo izaten, alderantziz, askotan zaharrak gazteari lagundu egiten dio eta komunikazioa asko lantzen da. Gainera gai jakin batzuetan material berezia lantzen dute, mailaka izan ordez zikloka banatzen dute. (36. zenb. 1997ko ekaina)



Zumaia, 650 urteko herria

Uztailaren 4an bete ziren 650 urte Zumaia herri bezala sortu zela. Urteurren horren ospakizunak prestatzeko hainbat bilera izan dira

azken hilabete hauetan. Ekitaldiek orain hasi eta datorren urteko uztaile arte iraungo dute.

Horien artean hitzaldiak, erakusketak, argitalpenak eta beste ekitaldi batzuk aurki daitezke. (...) Hitzaldietan jorratuko diren gaien artean Zumaia artea, herriaren hirigintzaren eboluzioa, portua, merkataritza eta ontzigintza...

Zumaia gai bezala hartuz argitalpen batzuk aterako dira. Laster kalean izango da herriko 12 pertsonaien irudiekin egindako egutegia, eta honako zumaia irudiek dituztenak besteak beste: Bonifazio Etxegarai, Julio Beobide, Patxita Etxezarreta...

(37. zenb. 1997ko uztaila)



Pastela partitu beharra

Bata bestearen atzetik okindegi ugari ireki dira

gure herrian eta gero eta eskaintza zabalagoa jarri digute aukeran. Baina gaur egun merkatua nahiko asetuta dagoela esan daiteke, denda eta aukera gehiago eduki arren, jendeak ez baitu lehen baino ogi gehiago jaten. Ogiaren gerra honetan galtzaileren batek atek itxi beharko ote ditu?


(38. zenb. 1997ko iraila)



Herriko antzerkia Santelmotarako

Itzurungo Uhinak taldeak antzezlan berria

aurkeztuko du. "Beti geratzen zaigu Paris" dauka izenburutzat antzezlan berriak. Bertan, geltoki batean Benidor-merako tren hartu behar duten pentsiodun batzuen istorioa kontatzen da. "Eta pixka bat rebeldea ere bada kontu horrekin, aukera gehiago eskatzen ditu nolabait" esaten digu Tolok. Ukitu humanoa duen komedia ero bezala definitzen du generoa. San Telmotan beraz, herriko antzerkia. (45. zenb. 1998ko apirila)



Indamendiren tontorretik ikusten direnak

Elkarteak bete berri dituen 25 urteen

errepasoa lau betean erabaki gendun elkarte sortzia, eta hurrena Santa eskian eriten ginan elkarterako dirua biltzeko" gogoratu du Jexuxek. "Lenengo sokak erosteko ere almejeta eriten eta harrapatutakuakin zozketa egin ginun estalapan." Joakinek. Bestalde, azken urteetan askoz erosoagoa bihurtu omen da mendia. "Joan-etorria bera asko erreztu dek, bideak eta autobusak askoz hobeak baitira" hasi da Jexux. (...)

(46. zenb. 1998ko maiatza.)



Sagardotegia, balantzaka tradizioa eta negozioaren artean

Sagardoak bizitza du. Beti egiten ari da. Sagardoan bakteriak, lebadurak eta bestelako bizidunak daude, eta horiek etengabe jaten ari

dira sagardotik. Horiek sagardoa ondu egiten dute, heltzen laguntzen diote, baina era berean behin puntu hori gaudituta zeharo mintzen dute eta ezaugarri guztiak kentzen dizkiote. Sagardoa hil egiten da. Botila bat bost urte utziko bagenu, ez litzateke likidorik geratuko, errautsak besterik ez.

(1999ko otsaila. 54. zenbakia)



Narrondo. Auzo marginala?

Urte batzuk badira Narrondon Auzoko Komisioa sortu eta Zestoa eta Zumaia Udalei auzoan egin beharreko hobekuntza batzuk eskatu zizkiela. Azera,

telefono kabina, trafiko seinalizazioak... Ez diete erantzuten, "inor ez da etortzen hona" diote beraiek

(...) "Pentsa, pilentzako poto berezi horiek zabaldu zituztenean, txaperoa etorri zen pare batekin. Lurrera bota eta buelta egin zuen herrira. Taladro zarra atera, tornillo batzuk inguratu nonbaitetik eta Imanolek jarri behar izan zituen" dio. "Zergak ordaintzen ditugu, baina gero guk egin behar izaten dugu lana. Kioskoa emakumeek garbitzen dute, argia joaten denean geuk jarri behar izaten degu eta dena honela" kexatzen da Imanol (...).

"Badakigu hau ez dela beste mundukoa, baina gure auzoa da, eta ez daukagu saltzeko. Kategoria daukagu narrondotarrok" entzuten zaio serio Andoniri.

(1999ko urria. 61. zenb)



Abertzale- tasuna Zumaian 1930-1940

Etxe gehienetan kontatu

eta entzun izan dira Gerra Zibila eta diktadura garaiko kontuak, eta etxe gehienetan badago kaxoi edo karpeta ren bat garai hartako paperak, Vivaspañás beteriko kartazalak, gerran hildako senideen eskelak, kartzeletako dokumentuak eta abar gordetzen dituenak. Ezer gutxi dakigu, ordea, auzokoak edo lagunaren familiak jasan behar izan zuenaz, herrian gertatu zenaz. Hainbeste urteren ondoren gerra hartako galtzaileen memoriak mila puskatan txikituta jarraitzen du. Joseba Esnalek istorioak eta dokumentuak etxeetatik atera eta joan den hilean Batzokian ikusgai egon den 'Abertzaletasunaren historia zumaian: 1930-1940' erakusketa osatu du.

(1999ko azaroa. 62. zenb)



Glorioso San Telmoren azken kanpaina?

Arrantza ez da inoiz izan Zumaiaiko portuko jarduera nagusia. Arrantza-ontziak beti izan dira, baina merkataritza izan da, batik bat, Zumaiaiko kaiari bizitza eman diona.

Azken 25 urteotan gutxienik,

Zumaian arrantza-ontzi bakarra izan dugu, Osatarren Glorioso San Telmo, alegia. Egun hauetan pintura eman eta martxorako prestatzen ari dira, antxoatarako. Gauzak asko aldatzen ez badira, hauxe izango da Gloriosok egingo duen azken kanpaina. (2000ko otsaila. 65. zenb.)



Jakin zazu nun naon

ENEKO DORRANSORO

Jakin zazu nun naon! Ni bai, badakit neu nun naon (hala uste det, behintzat). Baña hau? Baleiken bai, hala esan ziaten, eta ez det espero kanpoa utziko niñutenik era hontako tontakei

bat idazteatik (eskatzeako izango zituzten kontuan kontsekuentziyak). Baña nun? Zein orritan? Izan ere, ez da berdiña lenenguan jun edota azkenekuan. Ez naiz hasiko mundua konpontzen nere teoria filosofikuakin, azpiyan Mantxin biñeta bat detela jakinda, edo oiluen ondorez Oikiko "zokormazua" n onduan.

Ba modu berdiñian, alperrik esango det Baleikek 100. alia dula eskutan deun hau, Xabier Azkue nere aurretik azaldu bada. Hark aipatuko zitun hasierak eta jarraipenak, nundik noa jun dan, eta zein bidetatik datorren. Eta sobran eongo da Eulalin hamaiketakuez ni hitzeiten hastia, edo Santotomasetako juerga (lankidetza formaziyua hobe?) hartaz jardutia, Moflin (akaso Papapitufu hobe?) sermoian ondoren badator neria. Gañontzekuak izorratzea junda ezer irabaziko ez detenez (hortan datza guztziyak, azken fiñian), inoren kritika zorrotzik ere ez det ingo, aber bestela Waliñok zer in ber dun!

Problemak uain datozkit, ordia, ez baitakit Kaxkajok nundik noa ertengo digun. Baleike Pletorexiyan bideuz aipamenen bat itia, baña Sidneyko olinpiadez jarduten badu ere ez nintzake harrituko. Beraz, bi gai hoietaz ere, ni mu! Beste kinkiyakin berriz, ez hain aspaldi, ez nun dudaik izango zer ez esan: El señor de los anillos txerrikeri hutsa da! Kapaza da uain, ordia, Regionalak oso ondo dabiltzala kontatzen hasteko, eh, Kattan? Enfin! Ez dala denbora alperrik pasatzen, ez hoixe.

Danian bezela, hemen ere gauza asko aldatu dia (aldaketei buruz gehio sakondu nahi izanez geo, entziklopedian mof-mofli tomo "monotemaiua" kontsulta dezakezu), ez det nik, ordia, zer hobeako edo zer txarreako izan dan aipatzeko asmoik. Bueno, edo bai.

Danak imeilez komunikatzen gean garai habetan, zangoluzeren burua miatzatu eta karta buzoira botatziak pereza ematen ditenez, hemendik agurtuko det hain urrutiyan daon Akulu, eta gertuo eon arren urrutiyo dazkaten zenbait (garai haietan agertzen zianak ere hala izaten zian, morse kodiguan). Motxiareako ere, protagonista posible dexente ikusten dia uaindik zapatu gabetan. Eta iñork entenditzen ez zitun orri aldrebes haiek, eta Danin komiki mutuak...

Nei, behintzat, normala iruitzen zait lengo gauzak gustatzia, haiek bizi izan bainitun (konturauko ziñaten hileroko aldizkari-banaketako kontuik ez detela aipatu, eta bizi izan nun hura ere), eta gaurkuez hitzeiteko bada jende nahiko, hamabostero gure begiz proatziak aparte. Beraz, ni eskuz idatzitako kronikekin, eta arpei erdiyan mantxa beltz bat agertzen zuten 24 ordutan errebelautako argazki xaxtar haiekin gelditzen naiz.

Halata guztiz, Neskatxikiyak uain ere, "ai ze polit!".

Motxian hi!



Zein: Bixente Antia
Zer: Dendari nekazina

-ZEIN IKASKETA EGIN DITUZU?

OHO EGIN NUEN.

-NOIZTIK ZABILTZA OFIZIO HONETAN?

NERE KONTURA BEDERATZI URTE.

-ETORKIZUNERAKO PLANIK? AMETSEN BAT?

EZ. BADA KIZU, HANDIAK TXIKIA JAN OHI DU ETA...

- "KANTEA LABEL", ZER MODUZKO KALITATEA DU? **ONA.** UDA GARAIAN BATEZ ERE.

-ZE MOTATAKO BEZEROAK DITUZU?

NORMALEAN ETXEKO ANDREAK IZATEN DIRA. ASTEBURUTAN DENETIK.

-LANERAKO ORDUTEGI FINKOA AL DUZU?

HELDU NAHI IZANEZ GERO BETI DAGO LANA.

-BEREZIKI GUSTOKO DUZUN PRODUKTU BAT?

GOZOKI GUZTIAK.

-BIZITZEKO BASERRIA ALA KALEA NAHIAGO?

BASERRIA, BAINA BIZITZEKO BAKARRIK. LANERAKO...

-PELIKULAK ALA LIBURUAK NAHIAGO? AZKENA?

PELIKULAK. AZKENA ¿HOLA, ESTÁS SOLA?

-EROSLEENTZAT OROKORREAN AHOLKURIK?

BERTAKO PRODUKTUAK BALORA DITZATELA.

-ZERI BEGIRATZEN DIOZU PRODUKTU BAT EKARTZERAKOAN? **PREZIOA,** KALITATEA...?

KONJUNTOAN, GUZTIARI BEGIRATZEN DIOT.

-ZUMAIAKO TXOKO ATSEGIN BAT?

SAN LORENTE, PAKEAN BAKARRIK EGOTEKO.



Kinkilleroak, ostegunetako erosketa

"Quinquillero: Persona que fabrica o vende quincalla. Quincalla: Conjunto de objetos de metal de poco valor". Antzinako saltzaile nomaden bizimoduaren oinordekoak dira zentro komertzial maxi-mega erraldoien eta internet bidezko salerosketaren garai dela dioten honetan. Gaur hemen eta bihar han, goizean goiz furgoneta kargatu eta inguruko herri guztietatik pasatzen dira astean zehar beren postuekin. Urte dezente daramate gehienek eta ondo ezagutzen dituzte herri bakoitzeko alkatearen maniak, jendearen izaerak eta lapur txikien aurpegiak. Urdaiazpikoak, zapatak, gozokiak, alfonbrak, barazkiak... izenak aipatzen duen kinkaila izan ezik denetarik aurki daiteke postuen artean. Hori bai, dendetan baino merkeago.

(2000 martxoa. 66. zenb.)



Zumaia eta Olarroa

Zalantzarik gabe animalia honen ugaritasunak eta beharrak ekarri digu bi plater mota eder hauek asmatzera. Ziur asko olarroa lehortzeko teknika zaharragoa izango da patatekin freskoa jatea baino eta teknika hau aspaldi hartako zumaiarren asmakizuna izan zela ere esan dezakegu, inguruko arrantzale herrietakoek ez baitzekiten hau egiten eta olarroaren

goxotasuna ere ez zuten ezagutuko, beste arrain artean harrapatutako olarroa zumaiarrei ematen baitzieten beti, olarroa jatea zumaiarren kontua bakarrik balitz bezala (...) Historiak ez du atzerabueltarik egiten eta gaur egunean olarroak balkoietatik eta leihoetatik zintzilik lehortzen orain dela 40-50 urte bezala ikustea (...) Kultura honi eusteko agian ez litzateke txarra izango jatetxe batek olarroa patatekin Zumaiaiko espezialitate bezala ematen hasiko balitz (...)

(Abelin Linazisoro. 2000ko apirila. 67. zenb. Gehigarria)



Zelaia hotela, hiru izarreko talaia Itzurungo labarrean

Bi urte iraun ditu obrak.

Kanpotik Itzun-Zelai jauregiaren erreplika da eraikin berria, eta barruan 'Itzurun' talasoterapia zentroa, 'Abegi leku' jatetxea eta 'Zelaia' hotelaren inaugurazioa ospatuko da maiatzaren 12an, arratsaldeko 6etan. Hirurak Itzurun hotel gunea S.A. enpresak daramatza, baina gainerako alderdi guztietan independenteak dira elkarrekiko. Obrako langileak eta hoteleko langileak azkeneko ukituak ematen ari dira dena prest edukitzeko.

(...) "Guk ez dugu aberaskilorik nahi" dio Zorion Gojenolak "Horiek bi zerbitzari eta maiordomoa izaten dituzte etxean eta ondorioz lau zerbitzari eta bi maiordomo nahi dituzte beren inguruan pelota egiten hotelera doazenean. Nahiago dugu jende normala, gaztea. Sobran batere izan gabe dirua disfrutatzeke dela dakiena".

(2000ko maiatza. 68. zenb.)



Iragan industria- laren azken arrastoei agur

Badirudi Zumaiaren iragan industrialari agur egin beharrean gaudela. Urteak dira moila berriko trenbideak eta grua horiak kendu eta haien ordez Gernikako parkea jarri zela. Orain hilabete eskas Arbustaingo

gruak jauzi egin eta Urola ibaian murgildu zen (horretarako laguntza izan zuen ala ez beste auzi bat da). Hemendik gutxira, edo agian hau irakurtzen ari zaren momentuan, Balentziaganeko fabrika zaharra, "Viva España" izenez ezagutzen dena, bertan behera botako dute, eraikin horren ordez 75 etxebizitza berri eraikitzeko. Zumaia herri moderno eta turistiko bihurtzeko beste aurrerapauso bat.

(Ismael Manterola Ispizua. 2000ko ekaina. 69. zenb.)

Txalupamutila eta Bidaiarien Itsas Linea Erregularra

Migel Manterola dugu txalupamutila. Edo hala aritu da berrogeita hamar urtetik gora udaro bere batean jendea



Santiotik Abaskal ondora eta Abaskal ondotik Santiora karriatzen. Migelek utzi ondoren semea, iloba, eta Etxabe Gabaraindarrak ibili ziren urte banaka batzuetan, eta duela lau bat urte

txalupamutilik gabe geratu zen Urola. Bidaiarien Itsas Linea Erregularra aurten jarri da martxan Kai Argi enpresaren eskutik. Inbentuaren izena ez ezik, lehenengoak eta gaurkoak badituzte beste diferentzia batzuk.

(2000ko uztaila. 70. zenb.)

Hiru egun San Telmoren jaioterrian

(...) Misterioa, ohi den bezala, ez zen misterioa. Bi herriak senidetzearen arrazoia San Telmoren figuran zegoen. Guk Zumaiari hainbeste maite dugun San Telmo, eta bere ohorezko festetan hainbat gogoratzen duguna, Frómistan jaio zen Pedro González Telmo izenarekin (...)

Abuztuak 25, ostirala.

19:30: harrera.

(...) Udaletxea, banderak, gu eta herritarrak zelatzen guardia zibilak. Hau da hau, guardia zibilak gu zaintzen, zer ikusi behar dugun (...)

21:30: heldu dira galiziarrek

Azkenean azaldu dira Tui-ko ordezkariak. Bi autobus bete dituzte galiziarrek eta ia denak jubilatua dira. Besarkada batzuk, zer moduz zaudete batzuk esan eta denak San Martin elizara joan gara zuzenean.

3.00: galiziarrek marruaka.

Albergeko ohean jira eta bueltaka egon ondoren, azkenean postura hartu eta lo egiteari ekin diot. Dena alferrik, galiziar batzuk heldu baitira. Marruaka, garrasika sartu dira. Dantza taldeko gaztetxoak dira. Halako batean norbait konturatu da alboko gelan gizajo bat lo egin nahian dagoela: "Callaos, que hay un peregrino durmiendo". Peregrino?. Erromesa ni? Gauza asko entzun ditut nire aurka, baina erromesa deitzea ere... "No es un peregrino, es uno de Zumaia, el periodista". Ay la ostia! (...).

5.00: galiziarrek bonboa jotzen.

BOM, BOM, BOM.

14.30: bazkari herrikoa.

Alkate eta zinegotziak herriko jatetxe onenean bazkaltzen ari diren bitartean, gu berriro ere eskolako jangelara goaz (...).

17.00: galiziarrek arropa aldatzen.

Ohe gainean etzanda nagoela, Tui-ko neska gazteak alboko gelan sartu dira. Bi gelen artean aterik ez dagoenez dena

entzun eta ikus dezaket. Arratsaldean izango den jaialdirako arropak aldatzen hasi dira (...).

21.30: afaria.

Gogoz kontra, afaritara bidali gaituzte Frómistakoek. Aurrekoetan bezala, janaria nahiko eskasa da. Zer egingo dugu? Afaria pattal-pattal doala, Zumai Txaranga sartu da jangelan eta esan liteke su eman diola eskolari. Denak jaiki, batzuk dantzan, besteak saltoka, festa dugu Frómistan. Eskaerei kasu eginaz, San Telmo martxa jo du txarangak. Zumaiarren begietan malkoak ageri dira (...)

Berbenak goizeko bostak arte iraun du. Goizaldean galiziarren marruei erreleboa zumaiarrek hartu diete. ¿Donde estan las mujeres? Tui-ko neska gazteak ezkutatuturik. Euskaldunak ez gara galiziarrek baino gutxiago izango marruak egiteko orduan.

(2000ko iraila. 71. zenb.)



2020, etorkizuneko Zumaia

Datozen urteetan herriak izango duen garapen urbanistikoaren

lehen zirriborroa jarri du Udalak ikusgai Oxford aretoan. Bertan ikus daitekeenez, hemendik 20 urtera Basustako kaleren batean bizi gaitzeko, orain baratzeak dauden tokian, Torreagan lan egitera Egurko ondora joan, eta Retegiren partida ikustera, oraindik erretiratu gabe egongo baita, estazio aldeko frontoira.

(...) Zientzia fikzio pixka bat egiteko eskatzen diogu Lucianori, eta etxe horiek guztiak egin eta beteko balira Zumaia zenbat biztanle izango lituzkeen kalkulatzeko. "14.000 edo 15.000. Baina, badakizu, ez da kontuan hartzeko moduko datua" dio irribarrez.

Industria arloan, Gorostiaga eta Geltokiko eremuak okupatu ondoren Oikia ondoan dauden 6. Sektorea (Guascor) eta 7. Sektorea (Xey) betetzea da helburua (...)

Ekipamenduei dagokienez, lehen aipaturiko kiroletarako eta zerbitzuetarako sistema orokorrean gain Anbulatorioa (Gernika Pasealekuan bertan) eta San Joan Egoitza handitzea aurreikusten da eta Abere Hiltegiaren eraikina museotarako eraberritzea, udal brigada eta Parke Mugikorra handik atera eta Geltokiko poligonoko pabiloi batera eramanez.

(2000ko urria. 72. zenb.)



San Sebastianak Zumaian

Badira hamar urte Txikixan biltzen den koadrila batek San

Sebastian egunean sukaldariz jantzita danborradan herriko kaleetatik buelta egiten dutela. Dozena bar lagun ateratzen dira, eta ez daukate meritu gutxi, megafoniaren laguntzarekin bada ere, Donostiako konpainiek adinako zalaparta sortzen baitute (...). Hainbeste urtetan aterata, jada tradizioa finkatuta daukate programa eta ibilbideari dagokionez. Urtero, irten aurretik sukaldarien mantala eta txapelak jantzita Txikixan egiten dute afaria (...). Gero hamabietan puntuan ETB piztu eta Donostikoekin batera tabernan jotzen dute lehenengo pieza. Hura bukatutakoan, arranzplara atera eta su artifizialak. Eta haiek bukatutakoan danborrada, megafonia daraman kotxea eta batuta eskuan duela orden pixka bat jartzen saiatzen den zuzendariari segika.

(76. zenbakia. 2001eko otsaila)



Arrangoletari azkeneko bisita

Jende asko hurbildu da egun hauetan Arrangoleta nola botatzen

zuten ikusi eta azkeneko bixita egitera. Gehienei pena pixka bat emango zien, umetako momentu asko gordetzen baitzuten eraikin zaharrak. Baten batek, segur aski, lurretik harri bat hartu eta kristalei emateko ere aprobe-txatuko zuen, eskolako oroitzapen guztiak ez baitira onak izaten. Zeukan itxura ikusita uste baino gehiago kostatu zaie eskabadorei behera botatzea, astebete pasatxo. Parke bat egingo dute orain, eta frankismoko eskola nazionala eta ikastola han izan zirela esango dute bankuan eseritako zaharrek.

(78. zenbakia. 2001eko martxoa)



Euskadi tropikala eta dinosaurio errioxarrak

Euskal Herriko mendi askotan perretxikoak baino errazago topatzen omen dira itsas molusku edo barraskiloen fosilak.

Are gehiago: mendi hauek koral arrezife erraldoiak dira beren erraietan, duela urte batzuk hau guztia itsaso tropikala baitzen. Eta hantxe bertan, Errioxa aldean, dinosauro mordo bat ibiltzen zen korrika eta saltoka.

(...) Aiako harritik hasi, Txoritokieta, San Markos, Urdaburu, Buruntza, Pagoeta, Izarraitz, Ernio, Erlo, Udalaiz, Anboto, Gorbea eta Aralar, eta hemengo kare-harrizko mendi guztiak koralezko arrezifeak dira beren erraietan. Mendien kokapenarekin ikus daitekeenez bi barrera egiten zituzten, eta mendien dimentsioari erreparatzen badiogu, ikaragarriak zirela konturatuko gara".

(...) "Bazeuden uharte edo mikro-kontinente batzuk, bi plakek bat egitean egungo Oiartzun, Etxalar, Bera, Baztan eta Arga ibaiaren iturburuko zonaldeetan harrapatuta gelditu zirenak. Bertan 280 milioi urteko garo fosilduak topatu dira, eta ornodunak ere egongo ziren, seguru, baina ez da fosil bat bera ere topatu".

(...) "Euskal Herri iberikoa duela 60 bat milioi urte eratu zen, justu dinosauroak desagertu ziren garaian, baina duela urte batzuk Araban, Trebiñon, oso oinatz garbiak topatu ziren eta egiaztatuta gelditu da azken dinosauro batzuk behintzat ibili zirela hemen".

(80. zenb. 2001eko martxoa)



Supermerkatuak azoka irentsi zueneko

Indartsuenaren legea, edo, nahiago bada

Darwinena, eboluzioarena. Kontua da Goiko Plazako azoka, garai batean herriko gune bizienetako izango zena, itzaliz joan dela pixkanaka supermerkatuak azaldu zirenetik. Azken urteotan egoera oso eskasa zen, denek ikusten zuten irtenbide baten beharra, baina inork ez zuen irtenbide hori topatzen. Orain Udalak emakida baten proiektua onartu berri du. Supermerkatu bat utziko zaio lekua hoge urterako eta honen trukean emandako dirua-



Erregea hil da. Gora erregea!

Josu Waliño

Badakit gehiegizkoa dela erregearen figura erabiltzea horrelako kasu

batean, baina esaera hau beti iruditu zait bitxia, eta oraingoa, erabiltzeko une egokia iruditu zait. Herri xeheak erabiltzen zuen esaera hau erregearen heriotza adierazi eta haren ondorengoa agurtzeko. Oraingoan, gure errege partikularra hil da, baina errege berria etorriko delakoan nago. Herriarentzat hobea izango den erregea.

Eta horrek burutazio asko sortzen dizkit. Zutabe hau idazteko lehen ideia bururatu zitzaidanean, oraindik ez genuen erabaki aldizkaria ixtea. Horregatik, lehen ideia horretan, hemendik pasatako jende guztiaren izena etortzen zitzaidan gogora, elkarrekin bitzakoak, eta baita lortutako eta lortu gabeko guztiak ere.

Orain, ordea, bestelako zerbait idatzi behar dudalakoan nago. Galtzera goazen guztia etortzen zait burura: adierazpen askatasuna, euskararen presentzia bizia, Zumaian edozein herritarrek bere ideiak libreki azaltzeko zegoen plaza bakarra. Eta horrelako galera bat onartezinezkoa iruditzen zait, horregatik diot erregea hil arren, "Gora erregea!" oihukatu behar dugula. Ozen gainera. Baleikeraren heriotza proiektu berri, indartsu eta zabalago baten alde izango delako.

Guztion artean komunikabide berri eta hobe bat sortuko dugulakoan nago. Are gehiago, Zumaian euskara eta euskal kultura bultzatu eta indartuko duen talde bat jaioko da. Eta proiektu honen sorreran euskaltzale garen guztiok hartu behar dugu parte: Baleike gogoko genuenok, eta gogoko ez zutenek ere, baina batez ere, euskararen alde lan egiteko gogoa dugun guztiok, euskal hizkuntza eta kultura guztiona delako.

Agur beraz, Baleike, baina ez adiorik.



rekin eraikina goitik behera berrituko da. Bertako saltzaileek esaerak dioena egin dute: etsaiaren aurka ezin baduzu, elkartu zaitetz berarekin. Zer erremedio.

(81. zenb. 2001eko apirila)



Bost eguneko erromeria Toscanan

Aste Santu hauetan herriko 35 lagun Toscanako San Quiricora joan gara, euskal jai bat ospatu eta hango kultura ezagutzera. Pizza afalosteetan eta chiantiak lagundurik buruturiko erromeriak, olibondo artean egindako herri kirolak... kontrasteak izan dira nagusi, lagun

onak egin ditugu eta kristoren trotean ibili gara. Hona hemen Baleikeko infiltratuek osatu dugun egunerokoa. (...)

Osteguna, 12. Ardoa, benetako pizzak eta Breschi-ren kontzertua.

Andrea (Txipiren laguna) eta honen emazte Antonia zumaiarrak ardo garrafoi batekin egin digute ongi etorria. Momentuko emozioarekin trikitilariak martxan jarri eta kristoren kalejira montatu dugu di-dau batean. Jendea leihoetara atera da, trafikoa hankaz gora jarri dugu, Carabinieriak ere etorri zaizkigu galdezka, baina gu geurera. Azkenean apaiza etorri eta atari batetara eraman gaitu. Beste ardo garrafoi bat atera digu, eta bizkotxo. Herriko zaharrak ere gerturatu dira ardoa edatera eta euskal dantzak ikustera (...)

Gaztelu batera eraman gaituzte eta antigualeko saloi handi batean sartu. Erdi ilunpetan gaude, horma guztietan koadro erraldoiak daude zintzilik, sabaia zeruetan eta Breschik sentimenduarekin jotzen du pianoa. Euskal kanta batzuk abesten dituenen koroak egiten dizkiogu eta txalo zaparrada eskaini, eta eszenatokiaren aldamen batetik aulki dotore batetan eserita dagoen markesa zaharrak (gazteluaren jabea eta oso zaharra) serio begiratzen digu guztioi (...).

Ostirala 13. Firenze eta erromeria apoteosikoa.

Carabinieriak eta kaleko saltzaileak katua eta saguarena egiten dabilta plaza batean. Beltzek irabazten dute, hobeto prestaturik baitaude. Beste plaza batean Firenzeko artista guztiak, garai bateko Bocaccio, Boticelli, Caravaggio eta abarren oinordekoak, asiarrak direla deskubritzen dugu.



Afalondoan Orienteko Plaza dirudi jatetxeak. "Franco, Franco, Franco!!!" oihukatzen dugu euskaldunok. Sukaldariak Franco du izena. "Presidente, presidente, presi-

dente!!!", hurrena, Andrea, 'il gamba', Fiorentinaren peña bateko lehendakaria baita. Unblenble, zapi zuriak, olatuak, parole-parole (...) Barrena eta Agosti trikitilariak kristoren martxa daukate (eta aguantea), eta itzelezko erromeria sortu da. "Autista, autista, autista!!!" (txoferra italieraz), Izarraizpeko Luigi da izarretako bat (...) Gero Giovanni-Andrea-Txipi hirukoteak balet ikuskizun bat eskaini digu...

Savato 14. Festa Basca in San Quirico.

Giochi, canti, balli, degustazioni di Pais Baschi. Halaxe diote inguruko herri guztietan jarri dituzten karteak.


Txalaparta, trikitia, eta dantza txistua eta atabalarekin. Ixabel, nafar dantza eta ikurrin dantza egin dituzte eta azken honen bisa publikoak eskatuta, Antoniak ikurrinari emandako musu eta guzti (...)

(...) Txingetan, berriz, euskaldunak izan gara nagusi, bertako bat animatu den arte. Txupa eta betaurreko beltzekin ez zeukan itxura onik, eta hasiera-hasieratik kakalarri aurpegia jarri du, baina denak zur eta lur utzi gaitu zortzi plaza egin dituenen. Eskerrak azkenean Anderrek ohorea salbatu digun.

Lokotx biltzearena ere xelebrea izan da. Breschiren musikariak, turkiarra eta irlandarra, apur bat mozkortuta hiru lau aldiz erori dira lurrera, ondokoaren lokotxak jaso dituzte... (...) Iluntzean Circoloa lepo dago. Sarreran dagoen tabernan, aulki banatan eserita, Irigarainen itzulpekin berriketa batean dabilta Altamante eta Maia. Buelta guztian inguratu ditu jendeak eta bertsotan hasi dira. Altamanteri malkoek ihes egin diote gazte bat bertsotan ikustean, Maiak bertako ume bati euren kulturari eutsi behar diotela abestu dio, eta bukatzeko bertako gazte espon-taneo batek bota du bertsoa, eutsiko diotela esanez. Txaloak eta oihuak.

(...) Inpernuko hauspoak eta patxaranak berotuta beste erromeria apoteosiko bat jarri da martxan. Bertako neskek nahiko ondo dantzatzeko dute trikitixarekin; mutilek, berriz, kontzertu punk batean baleude bezala. Kalejirak, alkohola, adar jotzeak, ligoteoa...

(2001eko maiatzak 4. 82. zenb.)





Laster... BALEIKE-BUZOYA!!

Irailaren bukaerarako Erribera kalean buzoi gorri polit eta distiratsu bat jartzeko asmotan gera. Horrela zuen gutunak, iritziak, proposamenak, mezuak, agurrak eta beste hainbat gauza errezago jaso ahal izango ditugu. Lehiaketako erantzunak ere bertan uzteko aukera izango dezue.

Ez badiguzue ezer bidaltzen ez dezue Baleikereren barkaziyurik izango, erredios!!



Hamabostero bi autobuskada Erreal animatzen

Taldearen azken bi denboraldiak ikusita ez zaie meriturik falta. Batzuei masokismoa ere irudituko zaie, baina hori da benetako zaletua izatea, sufritzeko bada ere ordaindu eta taldearekin egotea. Azkenean

mailari eutsi zaio, behintzat; Osasunak ere bai, Athletic ez da hobeto ibili eta bi autobuskadak animatuta itzuli ziren herrira. Tartean Karlos eta Roman harrapatu genituen, azkoitiarra eta zestoarra, eta bidaietako saltsaz, Errealeko afizioaz eta denboraldiaz berriketan jarduteko zita egin.

(2001eko ekainak 28. 86. zenb.)

asmoz etorri" dela adierazi digu Uxua Sorazu zuzendariak. Itziar Urangak prozesua azaldu digu, "lehenbizi gurasoekin hitz egiten da, eraikina eta bertako funtzionamendua azaldu eta hizkuntza eredu gaia esplikatzen zaie. Honela pixkanaka klasera joaten hasten dira haurrak, laguntza moduan irakasle bereziak beraiekin dituztela."

Oikiako eskolan, txikia izanagatik 27 ikasletik 2 dira etorkinak, senegaldar jatorrikoak. Hala ere Oikiara Iruñeatik etorri ziren gurasoen lana zela-eta. Fanta-k badarama urte eta erdi bertan, baina Marga Erauskinen hasierako garaia gogoratu dizkigu, "normalean izaten ez dituzten jokabideak zituen, esaterako eskaileretan gora eta behera ibiltzen zen etengabe, eta beste hurrek autoei zieten beldurrik ez zuen. Hizkuntza aldetik dena errepikatzen zuen, baina haurra zenez hizkuntza barneratzea ere ez zaio zaila egin."

(90. zenb. 2001ko iraila)



Ikasle etorkinak, gure ikasge- letako kolore biziak

Gure inguruko sare publikoa aztertu dugu, gertuko egoera ezagutzeko. Zumaiako Herri Eskolak Julenen duen eraikinean, 514 ikasletatik 12 dira etorkinak: Maroko, Venezuela, Pontevedra, Kuba, Sevilla eta Argentinatik etorriak dira umeok, "aldi baterako lanera etorri diren gurasoak dituztenak kenduta, gehiengo bertan geratzeko



Pulporen 50. urteurrena

Duela 50 urte herriko gazte koadrila batek Pulpo elkarteak sortu zuen. Herrian ez zen ezer askorik eta berehala ekin zioten kultur eta kirol arloko ekimenak antolatzeari: txaranga, abesbatza, otxoteak, berbenak... futbol txapelketak, estropadak,

pilota partiduak, karrera ziklistak, eskubaloia... Nondik atera zuten hori guztia egiteko adorea? Berezkoa zen neurri handi batean, baina bazuten sekretu bat ere: olagarroa patatekin jaten zuten kasik egunero.

1951ko azaroaren 11n igandero plaieroetako partidua jokatu ondoren Cantabrimon elkartzen zen hogeita bost bat mutilek osatutako lagun taldeak, kafea eta kopa hartu ondoren, euren kidetasuna eta bilera haiei forma eman nahian Peña bat sortu, Jesus Olaizola lehendakari izendatu eta astean bi pezetako kuota ezartzea erabaki zuten. "Zarautza plaieroetara joaten ginenean bertakoek adarra jotzen ziguten, olagarroa patatekin bakarrik jaten genuela eta horrela ezin genuela indarrak eduki. Gero txapeldun ateratzen ginen eta guk jotzen genien adarra... Hortik atera zen izena, euskaraz debekatuta zegoenez: Pulpo", kontatzen digu Abel Yeregik 52. urtetik 78ra elkarteko lehendakaria izandakoak.

(2001eko azaroak 16. 94. zenb.)



Itzuli da tren zaharra

"Trena badoa, inork ez daki noiz itzuliko den" zioen AGEren kantak duela hamabost urte Urola zaharra kendu

zutenean. Bere balantzak, sirena xelebrea eta tuneletako ilunaldiekin abentura hutsa zen bertan igotzea, jendeak maite zuen trena, eta kendu zutenean dezenteko protestak izan ziren bailara guztian. Orain 75. urteurrena ospatzeko erakusketa batean ekarri dute Oxforda, eta epe ertainean berriro ere martxan jarriko omen dute Azpeitira bitartean.

(...) Joan den mende hasieran trena negozio ona zen, egun autopistak diren bezala, eta enpresa pribatuen esku zegoen. Gipuzkoan tren mordoa ibiltzen zen gora eta behera eta Urola zen trenik gabeko bailara bakarra. Ez zen, nonbait, negozioa garbi ikusten (...) Diputazioak bere gain hartzea erabaki zuen. "Agian zerikusia izan zuen garai hartan Diputatu Nagusia, Julian Elorza, azpeitiarra izateak ere" komentatu digu Juanjo Olaizolak. Urolakoa eta Bizkaiko beste linea bat omen dira Estatu guztian ekimen publikoak eraikiriko trenbide bakarrak. 1920an ekin zioten proiektuari. Manuel Alonso Zabala izan zen ingeniari nagusia eta Ramon Cortazar geltokien arkitektoa. "Normalean modelo berdina jarraitzen dute linea bereko geltoki gehienek. Kostaldekoan esaterako Zarautz, Deba, Oria eta Zumaian bota zutena denak berdinak ziren. Urolan, ordea, arkitektoak banan-banan diseinatu zituen geltokiak" dio (...)

Zumaian esaterako garrantzi handia izan zuen portuak, bertan kargatzen baitziren trenak Zumarragako Orbegozo eta Legazpiko Patricio Echeverriara eramaten zuen ikatza. Urtean zortziehun mila bidaiari ere ibili zituen trenak batetik bestera.

(2001eko azaroak 30. 95. zenbakia).



Arte "komunista"

Norbaitek, maite-minduta, "zu zara nire izarren sabaia" idaztea otu zitzaion, eta komunetako olerkigintza

jaio zen. Beste batek Tolstoiren liburu bat utzi zuen ahaztuta eta komunetako irakurzaletasuna sortu. Izan ere, bakardadean, isilik eta ikusmiran, meditaziorako aproposak izaten dira komuneko minutu horiek. Ihintza tabernak ere egin nahi izan du bere ekarpena eta berriro zutenetik herriko hainbat artistak euren lanak bertako komunean jarri dituzte ikusgai.

Duela bi urte taberna berriro zutenean, Aran Santamariari eskatu zioten komuna diseinatzeko. "Txiki eta Ander Hormazuriri mural bana eskatu zieten tabernako horma nagusiak apaintzeko eta niri komunaren diseinua. Ez daukat ikasketarik arlo horretan, baina asko gustatzen zait eta koadro bat edo murala eskatu balidate baino ilusio handiagoa egin zidan kasik", adierazi digu. Azulejo koloretsuz eta umeen laino urdinez bete zuen komuna. "Komunen sarreran argizko kaxa bat sartzea okurritu zitzaidan lehenengo eta barruan zerbait sartu zitekeela ondoren. Azkenik, hilerio zerbait ezberdina sartzeko konpromisoa hartu nuen tabernakoekin eta halaxe jarri nintzen martxan".

(97. zenb. 2002ko urtarrila)



Duela 25 urte Kilimanjaroren gailurrean

Franco hil berria zen eta mundu guztia oso animatuta zebilen. Herriko gazte talde batek, koadrila eta giro ezberdinetakoak, Kilimanjarora espedizioa egitea erabaki zuen. Bizarra lepoan eta

ikurrina ilegala altzoan hartuta, 6.000 metroen bertigoa eta kontinente beltza, Amaia zineko esploratzaileen pelikuletan ikusitako hura, probatzea zen euren helburua. 25 urte geroago Inda-Mendin elkartu dira bazkari baten bueltan lehenengo abentura handi hura gogoratzerara. Batzuen buruak soilduta daude, baina Kilimanjaroren oroitzapenak ez.

(98. zenbakia. 2002ko otsaila)



Nola eta norekin pasako zenuke zure ametsetako gaua?

Antton Urrestarazu: Ez dakit, nere neskaekin edo txakur-rarekin, igual dit; eta non? Ba... mendian.



Erlojuaren menpe bizi al zea?

Arritokieta Irigoien: Ez, bueno, hombre, kontrolatuta daukat, eh? Puntuala izatia gustatzen zait, baina ez naiz bere menpe bizi. Ah! Hori bai! Ezta pentsatu ere ez det egiten erlojurik gabe ateratzia kalera; baina ohituragatik da.



Santixo edo Itzurun?

Maria Dolores Aizpuru: Ni Itzurunera joaten naiz. Halare txikitan barkuan nere ilobakin eta juten nitzan Santixoa. Baina yodo asko dauka Itzurungo urak eta hori ona da nik bezela barizak dauzkatenentzat.

Gurasoek zer nahiago duzue: seme-alabak oporretan ala eskolan?



(1997ko urria. 39. zenb)



Beldurra al diozu selektibitateari?

Iñigo Rodriguez: Ez, ez noa egitera. Atera ditudan 7 kateekin nola joango naiz ba?



Beldurra al diozu selektibitateari?

Uhin Loiola: Beldurra ez, nazka ematen dit. Nahiko estudiante txarra naiz, eta neregatik izan balitz segituan kenduko nuke selektibitatea.



Senarrak eta seme-alabek laguntzen al dute etxeko lanetan?

Mari Karmen Arano: Bai, bai, laguntzen due batzutan bai, bai gizonak ea bai seme-alabak ere. Beti, normalean, ez. Horrela, normal-normal ez, baina lagundu behar behar baldin bada bai.



Bota maitasun mezu bat!

Igor Uranga: Maite zaitut pila bat, zuk zeuk ere ez dakizu zenbat maite zaitudan. Zu neretzat zea larrosa baten petaloaren ainako korpulentzia duzun... nola esango nizuke, era berean esango nizuke... izugarriko korpulentzia.



Zer da internet?

Anjel Osa: Internet., horrek zer esan nahi du? Ez det hitz hori behin ere aitu. Noiz edo noiz telebisiotik edo radiotik aituko nun, baino ze esan nahi dun ez dakit.

Zer irudituko litzazuke Zumaian plaia nudista ezartzea?

Maria Luisa Intxausti: Nik daukadan edadearekin ez naiz animatzen, baina gazteentzako ona iruditzen zait. Goputza erakusteko modukoa daukanak erakuts dezala.

84. zenb



Zerk ematen dizu barregurea?

(1998ko azaroa. 51. zenb)



Kezkatzen al zaitu behi eroen arazoak?

Elisabete Esnal: Bildurtzen ari da jende dana. Ja ez dakigu ze jan, saldaik ere ez deu hartzen. Ministruak esan zun txerriarekin egiteko salda. Hori ez deu inoiz egin, grasa asko daka eta. Dimititu egin behar du Ministra horrek.



Ezkondu ala arrimatu?

Virginia Gera: Arrimatuta bizitzea, noski. Eleizatik behintzat ez det nahi. Gero igual hobe da zibiletikan paperantzako ta hobeto daolako. Nik behintzat arrimatuta nahiago det. Beste gauza bat da familia edo etxean. Gero nik pentsatzen det baita arrimatzea, baino igual mutilak nahiago du ezkontzea.



Baserritarra izateko jantzi beharra al daukazu edo nahikua dezu atxurra eramanda?

Xanti Aizpurua: Nik ez daukat jantzi beharrik. Ni baserritar sentitzen nauk. Ganautik bizi gaituk gu, hor ez zioik inungo lotsiak.



Zer iruditzen zaizkizue gabonetako musika eta argiak?

Feli Aizpurua: Ba, rollo bat. Ze gure etxeko balkoian jartzen zuen lengo urtearte altaboza. Ta nazka-nazka einda geunden. Argiak ere dagon krisisakin, fuera hoiak danak. Alperrik dirua gastatzia, diru hori beste gauzatarako hobe.



Biagra behar bazenu erabiliko al zenuke?

Jesus Goikoetxea: Ez, aldau biharrekua pareja da, ... ahal bada hamabost egunetik behin.



Inoiz ezagutu al dezu orain adinako hotzik?

Mari Tere Osa: Hamasei urterekin orain baino hotz gehiago pasatzen nun, ze presumida nintzan, eta erropa gutxi jartzen nuen hotza egiten zuenian.



Zer erregalatuko zenioke Gabonetan gorroto duzun pertsonari?

Juanma Gurrutxaga: 18 semaforo gorrian segidan.



Ibiltzen al dezu perfumerik?

Fermin Leiza: Bizarra kendu ta ondoren alkohola botatzen det. Ni ez naiz txulual!



Ezkondu ala arrimatu?

Iñaki Unanue: Ezkonduta bizitzearen aldekoa naiz. Geroari begiratuta ere famili bat edukitzea komenigarria iruditzen zait. Arrimatuta bizita ez dago fundamenturikan. Nik uste det jendea normalian ezkondu egiten dala ta horrela jarraituko duela. Gainera honela jarraitu behar du





Telmodeuna ardotan bustita

Kostata, ondo kostata, baina azkenean Aita Mari arraun elkarteak lortu du

babesle ekonomikoa traineruarentzat. Azken denboraldietan hor irauin dute nola edo hala laguntzarik gabe arraunean; orain ordea, nork esango, eta ardo marka batek hiru urterako lasaitasuna emango die zumaiarrei.

Luis Mari Goikoetxea Aita Mari Arraun Elkarteko presidentearen esanetan, "txiripaz aurkitu da patrozinadorea. Fidel Gurrutxaga zumaiarra taberna kontuan aritzen da lanean, eta honen bitartez Paterninako ordezkari batekin hitz egin, konfiantza hartu, eta horrela orain patrozinadore hori dugu".

(1996ko uztaila. 26. zenbakia.)



Batel txiki baten... Bermiotik Sokoara

Abuztuaren 21etik 24ra, eta laugarren urtez, estropada bitxi batek euskal kostalde osoa zeharkatu du, alde batetik bestera. Batteleku izeneko bateletan jokatu da, 11 elkartu dira guztira, eta hauen artean zumaiarrak.

Aitor Leiza, Inaxio Manterola, Iñaki Unanue eta Antxon Laskibar izan dira, txandaka, Bizia izeneko batelean arraunean aritu direnak. Ez diote sailkapenari garrantzirik eman nahi, bertan izan duten giro bikainari garrantzi gehiago ematen diotelako, baina oso aurrean ibili dira eta 4. postuan sailkatu dira, bi egunetan hirugarren sartu ondoren.

(1996ko iraila. 27. zenbakia.)



Aspaldiko partez, zumaiarrak garaile

Kostata izan bada ere, eta urte batzuetako lehorrea igaro ondoren, estropada bat irabaztea lortu dute

Zumaiako arraunlariek. Telmo Deunekoek Rasilloko urtegiaren Errioxako Lehen Bandera irabaztea lortu dute 15 mila ikusle baino gehiagoren aurrean. Harrigarria.

(38. zenb. 1997ko iraila)



Zumaiako Joxemitea ekipatzeko laguntza behar da

Zumaiar askok ez dakiten arren, Itzurungo hondartza eta Inpernupeko zonaldearen artean, eskalatzeko aukera politak eskaintzen dituen paretar eder bat dago,

Zumaiako "Joxemite" izenez ezagutzen dena. Duela zenbat egun, zintzilik egotea gustukoa duten zenbait lagunek Joxemite ekipatzea erabaki dute, hau da, arriskurik gabe eskalatu ahal izateko beharrezkoak diren seguruak jartzea.

Era honetan, edozein joan ahal izango da leku honetaz gozatzera. Lehen urratsa, paretar garbitzea da, sastrakak eta harri solteak kendu... Lan honetan dagoeneko hasi dira. Ondoren berriz, anklajeak ipiniko dira eta hauxe da hain zuzen ere, arazo larriena, material hori erosi egin behar dela alegia. Erakunde publikoek dirulaguntzarik eskaini ez dutenez, bakoitzaren patriatik ordaintzea erabaki da eta bildutakoarekin zati bat ekipatzea.

(47. zenb. 1998ko Ekaina)



Xakea

Kabi txapelketa Mikel Manterolak irabazi du eta Gabonetakoa Joseba Egañak.

Zumaiar xakeak ez du tradizio handirik, ez dago

eskolarik eta ezta talde federaturik ere, baina tabernetan ikus daitezke xakeko tableroarekin mahaira eseri eta trago bat hartuaz arratsaldea jo ta fuego jokoan pasatzen duten afizionatuak eta, afizio honen seinale, bi txapelketa antolatu dira elkarren segidan.

(1999ko urtarrila. 53. zenbakia)



Pulpo, primerako taldea

Pulpo eskubaloi taldea Lehen Mailako taldea da jadanik, Egea de los Caballerosen (Zaragoza) jokaturiko igoera fasean txapeldun izan baitzen. Zumaiarrek Burlata, Banyoles (Katalunia) eta

Casetas (Zaragoza) izan zituzten aurkari, baina hiru talde hauek ez ziren gure jokalariei aurre egiteko gauza izan.

(...) Bigarrez zatia hasi da. Gehiago gara, dudarik ez dago. Izugarritzko defentsa egin du taldeak zazpi gol aurretik gara. Harmailetan, eromena. "Txapeldunak, txapeldunak... Pulpopul, Pulpopul...". Amaitu da partidua: "In diu, in diu, in diu, in diu!!". Ezin gara harmailetan gelditu eta kantxan sartu gara, jokalariekin, nahiz eta antolatzaileek ezin dela sartu esan. Paretean dagoen ikurrina hartu eta ohorezko itzulia eman dugu, arraunean onenak garela erakutsi... eta Kopa jaso, ahaztu baino lehen. Eguna biribiltzeko, antolatzailerik zozketatzen duten bizikleta ere Zumaiara dator. Txinori egokitu zaio, jokaterik izan ez duen bakarrari. Batzuetan zorteak badaki nora jo.

(1999ko maiatza. 57. zenbakia)



Zumaiako futbol taldea presidente berri bila

Zortzi urte egon da presidentzian Jose Antonio Alberdi eta

berak azaldu duen bezala, "aldaketa baten beharra sumatzen dut. Urte asko daramatzat karguan eta bada garaia beste norbait etortzeko eta lan talde batekin ideia berriak ezartzeko Zumaiako Futbol Taldean".

(...) Presidentearen esanetan, tristura eta kolpe handiena azkeneko denboraldian jaso zuen. "Regionaleko taldeak Preferentera igotzeko aukera esku-eskuan zuen baina azkenean ezin izan zuen lortu helburua; benetan kolpe gogorra jaso nuen gertaera honekin". Gainontzean, zortzi urte hauetako balantzea ona dela aitortu du Jose Antonio Alberdik.

(1999ko iraila. 60. zenb.)



Erreala Zumaiian

Zumaia aukeratu du Errealak 99/00 denboraldiko posterrera. Abenduaren 10ean izan zen aurkezpen ekitaldia udaletxean, eta aurretik taldeak entrenamendu txiki bat egin zuen Aita-Mari futbol zelaian (...)

Clemente 10etan iritsi zen bere 'Mercedes'-ean. Taldearen autobusa 10'15ean. 10etan hastekoa zen entrenamendua baina 10'45 arte ez ziren atera. Kiroldegiko arduradunek komentatu zuten baloiarekin jolasean aritu ziren dutxetan. Argi bat ia behera bota zuten balonazo batekin (...)

Ikusmina izugarria zen. Jokalariak berotzen ari ziren bitartean albotik segika izan zuten haur koadrila bat, zelaiaren punta batetik bestera korrika. Korner batean 'Donostiako Orfeoia' aritu zen: Eskolaurreko talde bat 'txuri urdin' marrua baten kantatzen. Argazkian ikus daitekeenez, piszina zeudenak ere entrenamendua ikusten egon ziren, uretako txapeltxo eta guzti (...).

Udaletxean egin zen posterraren aurkezpena (...). Clemente harrিতa gelditu zen 'Telmo Deun'ak ateratako bandera guztiekin. 'Pero si tienen más que el Kaiku!' zioen behin eta berriro (...).

Udaletxeko ekitaldiaren ondoren bazkaria 'Pulpon'. Ardo onak, plater gozoak... Hainbeste atentzio gero Deportiboren kontra Anoetan 1 eta 0 gaitzeko!

(1999ko abendua. 63. zenb.)

(1996ko urria. 28. zenb.)



Gehienek 5-10 jasoaldi eman zitzioten 100 kiloko harriari. Ez putzein, Jokin!!

BABORRAK NAGUSI

Arrauneko denboraldia amaitu ondoren, froga xelebrea jokatu zuten arraunlariek Odieta pelotalekuan irailaren 21ean. Baborrak estriborren aurka aritu ziren herri kirolean. Harrijasotzen aritu ziren aurrena, eta honetan Tomas Endañetaren esperientzia agerian geratu zen, 22 jasoaldi eman baitzizkion 100 kiloko harriari bi minututan. Gero txingetan, zakuak eramaten, trontzan eta sokatiran jardun zuten, eta baborrak erraz nagusitu ziren.

Alberdi II - Enbil



Bi zumaia zerua ukitzeko zorian

22 urte beherako Munduko Zesta Punta Txapelketa jokatu berria da. Bertan, Alberdi-Enbil bikote zumaia irabazi eta ikusgarria burutu du, bigarren postuan sailkatuz.

(1995eko urria. 17. zenbakia)

Alberdi eta Enbil zestalari zumaia irabazteko profesionalak izango ditugu

Azkenean lortu dute Gotzon eta Luis Marik profesionalak izateko ematea. Iaz ere hor ibili ziren urrats hori eman nahian, baina benetako aukera orain iritsi zaie. Aurretik duten erronka ez da txantxetako, batik bat afizionatutan erakutsitako nagusitasunarengatik itxaropen handiak baitaude 2 pilotariengan.

Biak Zumaia zesta-punta eskolako fruituak dira, eskola honetan hasi ziren lehenengoetarikoak. Beren hitzetan, "Zumaian badago jendea gu bezala profesional izatera iritsi daitekeena. Dena dela, oraindik oso gazteak dira eta ikusi egin behar, hemendik urte batzuetara segitzen duten edo ez".

(1996ko urria. 28. zenbakia)



Gotzon Enbil:

"Mundiala irabaztea bezala izan da"

Puntista Zumaia irabazi du Euskal Herriko Txapelketa irabazi du Julen Bereikuarekin batera.

1996ko urriaren 6an egin zuen debuta profesionalean, 19 urte zituela. Orduan, profesionalean aritzearekin nahikoa zuela pentsatuko zuen, baina hiru urte baino ez ditu behar izan lehen txapela janzteko (...)

Hain gazte eta txapelarekin zer esan dizute beterranoenak?

Garbi dago erreleboa datorrela. Finalean bertan, hiru zestalari gazte geunden, Bereikua, Egiguren eta ni. Gainera hortxe daude Luis Mari eta beste batzuk. Mundialean ere gazte mordoa zegoen.

Gotzonek ez du ahaztu nahi izan bera bezala Zumaia irabazteko asko atera direla, une honetan profesionalean ari direnak. Bizkai aldean harrituta omen daude, baina berak badaki hori Manu Mugerzarekin egindako lanaren fruitu dela. Txapel hau lehena izan da, baina ez da azkena izango.

(1999ko azaroa. 62. zenb.)

Alberdi eta Enbil, mundial, ia txapelak

Finalera ondo kostata iritsi ondoren, azkenean zumaia irabazi zuten 2000ko Munduko Zesta Txapelketa irabazi. Urriaren 20an Gernikan jokatuako partiduan 35 eta 24 galdu zuten Etxalus eta Irastortzaren aurka. Zumaia irabazi zuten, autobusa beteta eta beste asko autoetan, baina ezin izan zuten beren nahia bete, Gotzon eta Luis Mariren buruak txapelak estalita ikusteak, alegia.



Alberditarrak

1974-XI-30

Alberdik eskuz banako afizionatuen Munduko Txapelketa irabazi zuen. Iparraldeko Urrutia zuen aurkari eta Montevideoko Euskaro-Español frontoian jokatu zen partidua. Frontoi irekia zen

eta eguzki berotan jokatu zuten, 32 gradurekin. Alberdi erraz hasi zen irabazten, baina beroarekin nekea gailendu zitzaion eta azkenerako larri. 22-19 bukatu zen partidua eta txapela buruan.

2001-IX-23

Alberdi II.a eta Arriagak binakako munduko zesta txapelketa irabazi dute. Bereikua eta Osa zituzten aurkari eta Osa zituzten aurkari eta Miarritzeko Jai-Alaien 2.000 lagunengatik, jokatu du partidua. Biribila atera zaie, Alberdik 14 tanto eginda eta bakarria galdu, eta bizkaitarrek partidua erdiraino eutsi badiote ere, erraz nagusitu dira. Azkenean 35-24an gelditu zen markagailua.

(91. zenb. 2001eko urria)

Motxian hi!



Nor: Jokin Prieto
Zer: Ostalari internazionala

- ALI BABA BAZINA, LAPURTZEKO ZER ESKATUKO ZENIEKE 40 LAPURREI?
- AHAL DUTEN GUZTIA, BAINA BEHARTSUEI EMATEKO.
- ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN PIZZA?
- EGITEN DITUDAN GUZTIAK. BEREZI BAT EGITEN DUT, BAINA ORAINDIK EZ DIOT IZENIK JARRI.
- NORI EZ ZENIOKE INOIZ GEZURRIK ESANGO?
- AMARI.
- LEHEN MUXUA NOIZ ETA NON?
- 13 URTEKIN IZAN ZEN, ZUMAIAN BERTAN.
- KALEAN LANPARA MAGIKOA AURKITUKO BAZENU, ZEIN DIRA ESKATUKO ZENITUZKEEN 3 DESIOAK?
- OSASUNA, PAKEA, ADISKIDETASUNA ETA LANA.
- ZER DAGO SOBERAN ZUMAIAN?
- EZ DAGO EZER SOBERAN, DENA FALTA DA.
- ZER EGINGO ZENUKE OHE BIRIBIL BATEAN?
- MUNDUKO PLAZER GUZTIA BILATU.
- IA MUNDU GUZTIA KORRITU DUZU. ZEIN HERRIALDE AUKERATUKO ZENUKE?
- BIZITZEKO MEXIKO DUT GUSTOKOENA. HERRI LATINDARRA DA, DISTIRA HANDIKOA, KOLORETSUA...
- IZUGARRI MATTE DUT.
- ZUMAIARRAK MODAN IBILTZEN AL DIRA?
- GAUR EGUN EZ DAGO MODARIK.
- EZAGUTU DUZUN PERTSONARIK AIPAGARRIENA?
- 1976AN SUTZAN PERTSIAKO SHIA EZAGUTU NUEN. ARTISTEI DAGOKIENEZ ASKO EZAGUTU DITUT: CHARLOT, LIZ TAYLOR, SOFIA LOREN, ANTHONY QUINN, FRANK SINATRA, CELA, ESPAIANIKO ERREGEA (PRINTZIPE ZENEAN)...
- GEHIENA MIRESTEN DUZUN PERTSONA?
- EDUARDO TXILLIDA.
- ZUMAIAKO GIZONIK DOTOREENA?
- EZINDIZUTERANTZUN.



Igor Beristain "Mendekua izan da; gu izorraztera joan dira"

Igor Beristain albiste izan da aurreko asteotan, Espainiako hautatzaileak bera eta Francisco Mena bilbotarra Mundialerako zerrendatik kanpo utzi baitzituen funtsezko arrazoirik gabe. Igorrek nahikoa meritu egin du aurten Holandan izateko, baina Pascualek bost txirrindulari eraman beharrean hiru baino ez zituen hautatu.



Oier Egaña "Mundialera bost eraman behar zituen eta ez hiru bakarrik"

Oierrek ziklokrosari guztien ametsa gauzatu du aurten: Munduko Txapelketan parte hartzea. 23 urte baino ez ditu eta Van der Poel, Gronendaal, Pontoni, De Clercq eta Nijssen ondoan korritzeko aukera izan du.

(2000ko otsaila. 65. zenb.)



Zu, Claudio

Duela hilabete Claudio Etxeberria Gorria patroia handia zendu zen, otsailaren 8an hain zuzen ere, 64 urte zituela. Gorria Turbo Deun famatuaren patroia izan zen, 1984an jokaturako bandera guztiak irabazi zituen trainerukoa -berak ekarri zuen Zumaiara Kontxako lehen bandera-. Oriotarra patroia ospetsuenetakoa izan da, 113 bandera irabazi zituen, horietako lau Kontxakoak.

(2000ko martxoa. 66. zenb.)



Pulpoko jubenil bat Espainiako selekzioan

Peru Fernandez Arroiabek Espainiaren jokatu du nazioarteko torneo bat Suedian.

Espainiako selekzioan talde handietan dauden jokalaria ezagutu

ditu. Bidasoako Julen Aginagalde bertan zen, eta han ziren baita Bartzelona, Granollers, Ciudad Real eta Ademarreko zenbait jokalaria. Batzuek zenbait milloitako klausulak omen dituzte jada, eta kontratu profesionalak. Berak, ordea, datorren denboraldian Pulpon jokatzeko asmoa du.

(2000ko uztaila. 70. zenb)



Kontxatik kanpo baina Orion irabazita

Bigarren luze ikusgarri baten ondoren zuloa ireki zuen Telmo Deunak.

Ordurako antzematen zen patroilari erabakigarritasuna, itsasoa nahasia zela eta batik bat barrurako bidean trainerua zuzen eramateko ere nahikoa lan baitzuten.

Helmugan denbora kaskarrak markatu zituzten itxuraz; hogeita bi minututik gora Zumaia (...)

Itsasoa geroz eta haserreago, urak geroz eta harrotuago, eta hirugarren txanda hasterako printzipioz pentsaezina zena, Zumaia irabaz zezakeela, hasi ginen pentsatzen.

Animoso atera ziren Orio, Koxtape, Hondarribia eta Castro, baina alferrik. Itsasoa beldurgarri zegoen eta nahikoa lan izan zuten aurrera egitearekin. Irudi ikusgarriak eskaini zizkigun estropadak, traineruak birritan jarri baitziren olatu artean trabeska. Azkenean denak bi minututik gora galdu zituzten Zumaiarekiko.

Katxaperoak entzun ziren herrian, eta zenbaitek pañuelo gorria jarri zuen balkoitik zintzilik. Urteak ziren Telmo Deunak ez zuela horrelako balentriarik egiten eta ospatu egin behar.

(2000ko iraila. 71. zenb.)



M^a Jose Zubiak Donostiako aerobic maratokia irabazi zuen

M^a Jose Zubia zumaiarrak erakustaldi ikusgarria egin zuen Gabon aurretik Donostian, belodromoan hain zuzen ere. Bertan, Donostiako maratoiaren bezpera giotze aldera hainbat kirol arropa postu jarri ziren, prentsaurrekoa eman eta maratoirako liderrak aurkeztu ziren, eta baita aerobic maratoki bat antolatu ere (...). Guztira 110 lagun bildu ziren tabla eta pausoak egitera, eta jardunaldiaren ostean eman zuen epaimahaia bere hautua: Zubia bertako aerobiclaririk onena zela esan zuen.

(75. zenbakia. 2001eko urtarrila)



Telmo Deuna Zumaia-Getaria izenarekin uretaratuko da aurten

Azken asteetan makina bat hitz egin da Aita Mari elkarteak getariarekin batera trainerua aterako zuela-eta. Kontuak kontu, eta azken bileretan gauzak ez badira okertzen, hala izango da. Denboraldian Telmo

Deuna Zumaia-Getaria izenarekin uretaratuko da. Hori bai, arraunlariak soinean eramango dituzten kamisetak gorriak izango dira, traineruaren antzera. Herriaren ezaugarrietako bat ez dugu galduko, behintzat.

(2001eko ekainak 15. 85. zenb.)



Surflariak lanean eta konpromiso eske

Honelako zaletu multzoa izanda, guztiak batu eta herrian taldea osatzea erabaki dute, "beste herrietan ere badago surf talderik, Orion, Zarautzen..." eta Zumaiaren horren hutsunea sumatzen dutela dio Manu Urangak. Udaleko arduradunekin hitz egin nahi dute asmoak gauzatzeko, bere hitzetan "Udalak betebeharra dauka herriko kirol taldeekin (...)" dio.

(...) Aste Santu inguruan mundu mailako proiektu batekin bat egin zuten herriko hondartzak garbitzen (...). 95ean Manu Euskadiko Txapeldun izan zen bere kategorian. Iaz, berriz, Pro Junior mailan Europako finalerdietan bosgarren izan zen. Alex Urangak ere mailari eutsi zion eta Sub14 mailan zazpigarren gelditu zen. Azkenik, Jon Lopez gaztea ere, Sub16 mailan oso ondo dabilela adierazi du.

(2001eko uztaillak 13. 87. zenb.)



Telmo Deunak lehen ikurrina poltsikoan

Nork pentsatuko zuen Zumaia eta Getariako

arraun elkarteak bateratzeak hain azkar emango zituela fruituak. Lehen estropadetan maila txukuna erakutsi arren, emaitzak ez ziren, ez, kanpaiak jotzeko modukoak. Baina,

Traineru Ligako sailkapen proban partu hartu eta pronostiko guztiak hankaz gora jarri zituzten. Horrekin konformatu ez eta Traineru Ligako lehen ikurrinarekin bueltatu ziren herrira. Denboraldiko traineru indartsueneren artean ikusi behar al dugu aurten Telmo Deuna? Auskalo.

(2001eko uztailak 27. 88. zenb.)



3,8 km igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika

Iron Man izeneko froga hau Frederika izeneko herrixkan egin zen. Iñaki Aizpurua zumaiarrak open edo herriko mailan irten zuen. Ibilbide guztia osatzea lortu zuen, hamaika ordu eginda, eta gustura dago bere lanarekin, "Bukatzea zen nire helburua

eta lortu dut". Proba ondorenaz hitz egiten hastean berriz honakoa komentatzen du, "Helmugan denetik ikusten da, batzuk ondo sartzen dira eta beste batzuk arrastaka. Muskulaturak paliza hartzen du eta normalena hurrengo pare bat egunetan ibili ezinda egotea da. Bueltakoan han izan ginen euskaldunoi sariak eman zizkigun Euskal Federazioak eta paraolimpiadak ziruditen. Bat hanka batetik herrenka eta bestea bestetik."

(89. zenb. 2001ko iraila)



Zumaia-Getaria

Gorria eta marroia, marroia eta gorria. Horiek dira azken egunotan Getaria eta Zumaia kaleek jantzi dituzten koloreak. 1973

urtean ikusi genuen azkenekoz Getariako trainerua Donostiako uretan. Zumaia, berriz, orain dela bederatzi urte. Azkenean, bien indarrak bat eginez, lortu dugu, berriro ere, hain estimatua den Kontxako estropada jokatzea.

Giroa

12:55 Aquarium aurreko arranplara marea gorria gerturatu zen. Guztiak saltoka gure arraunlarien zain. Moila izkinatik muturra erakutsi orduko zoramena nagusi, olatuak, kantuak, txaloak, marruak, eskuak gora, ezpainak zabal eta irribartsu... festa. Arraunlariak atzera begiratu eta besogaineko ileak puntan jartzeko moduko emozioa sentitu zuten. Arraunak gora, harrera zaratatsu eta festazalea; traineru gorria uretatik atera eta bazirudien jendartean

igerian zebilela. Festan barneratu zen trainerua, jaiak irentsi zituen arraunlariak, eguna hasi besterik ez zen egin. (90. zenbakia. 2001eko iraila)



Esku pilota eskola

Duela bederatzi urte jarri zuten martxan Zumaia Esku Pilota Eskola. Euren helburua

eskola herriko bat antolatzea izan da, hau da, ahal den haur eta gaztetxo gehienei esku pilota ezagutu eta kirol honekin ondo pasatzeko aukera ematea. Gaur arte ez da figura entzutetsurik irten bertatik eta eskolak ez du arreta handirik piztu, baina egin duten lanak merezi du tarte hau.

(...) Guztira 60-70 bat lagun izaten dituzte urtero. Hainbeste jende frontoi batean moldatzeko antolakuntza sistemaren bat behar da. "Seiak eta laurdenetatik zazpiak arte zazpitik hamar urtera bitartekoak etortzen dira. Zazpietatik zortziak laurden gutxi arte infantilak (...). Maila gutxiena duten taldeak frontoiaren erdian hasten dira pilotatzean, ezker hormarik gabe, gehixeago dakitenak atzealdean, errebotea ezker horma bezala erabiliaz, hurrengoak frontoi txikian eta azkenik frontoi handiko frontisean" esplikatzen du Luis Mari Alberdik.

(2001eko azaroak 2. 93 zenb.)



Kayak-surfa

Euskadiko lehen txapelketa Itzurunen

(...) Itzurun borborka zegoen, guztira 74 parte-hartzaile izan ziren (60 mutil eta 14 neska), gehienak euskal herritarak, baina bazen Katalunia, Madril edo eta Brasildarrik ere. Zumaia 11, guztiak ere mutilak. Hamar minutu irauten zituen 4 pertsonako txanda bana egin zuten denek hasieran. Hemendik sailkapena eginda finalerdiak eta finala etorri ziren, bakoitza 15 minutukoa. Puntuaketa zeren arabera doan galdetzean hiru faktore daudela esan zigun Gatzik, "lehenik harturiko olatuaren tamaina dago, gero eginiko maniobrak, eta azkenik olatu gainean irauten duten denbora (...)"

(2001eko azaroak 2. 93. zenb.)

Oier Aizpuru



Oier Aizpuruak brontzea Sevillako Mundialetan

(...) 200 metroko proba izan zen, azkenean, Oier Aizpuruari domina eman ziona. Brontzearen jabe egin zen, urrezko dominatik ehuneko gutxira eta zilarrezkotik milareneko gutxira.

Dagoeneko Oierren balentrietara nahikoa ohituta gauden arren, emaitza oso garrantzitsua dela azpimarratu behar da. Munduko Kopa batean domina bat lortzea ez da edonoren esku, nazioarteko potentzia guztiek hartzen baitute parte txapelketa honetan.

(2001eko ekainak 1. 84. zenb)

Oier Aizpuru hiru dominarekin etxera

(...) Oierrek hiru probatan hartu zuen parte Zagreben, denak ere lau lagun ez osatutako K-4 piraguarekin. 200 metroko distantziako proban lehen ere zorte ona izan zuen, gogoratu bestela Sevillan proba horretan lortu zuela brontzezko domina. Oraingoan, ordea, brontzezkoa ez, urrezkoa lortu zuen Oierrek. Atzean utzi zituen Hungaria

eta Alemaniako taldeak. Beste bi garaipenak 500 metroko eta 1.000 metroko probetan lortu zituen. Kilometro erdiko proban hungariarrek eta alemaniarrek lortu zituzten zilarrezko eta brontzezko dominak. 1.000 metrokoan, aldiz, hungariarrek izan ziren bigarren eta alemaniarrek hirugarren.

(2001eko uztailak 27. 88. zenb.)


Oierren denboraldi onena

Hamabiren bat urterekin, anaiarekin kanpan arrantzan ari zela, entrenamenduak ikusi, gustatu eta izena eman zuen Itsas-gainen. Herriko taldearekin jubeniletan hainbat garaipen lortu zituen, eta seniorretan Espainiako Masterra eskuratu ondoren, duela hiru urte, Espainiako Selekziara deitu zuten. Ordudanik, Galizia, Madril, Sevilla... Errendimendu Altuko Zentroetan pasatzen du kasik urte guztia, egunean zortzi-bederatzi ordu entrenatu eta marineen bizimodua eginez. Joan den denboraldian lesionatuta egon ondoren, aurten Europa eta Munduko Txapelketetan iritsi dira emaitzak.

(...) Emaitza horiek guztiak lortzeko, gogor entrenatu behar izan du (...). Goizeko seieta jaiki eta pare bat ordu korrika, igerilekuan edo gimnasioan. Gosaldu eta bederatzi eta erdietan uretara, ontziarekin hiru ordu egiteko. Bazkaldu, siesta egin eta bostetan berriro ere hiru orduko entrenamendua, plangintzaren arabera aldatzeko.

(...) "Gau bat baino gehiagotan nekearen nekez maleta egiten hasi naiz, baina hobeto pentsatu eta bertan gelditzen naiz. Entrenatzea gustatu egiten zait eta txapelketetan emaitzak lortu ditudanean merezi izan duela ikusten dut".

(91. zenb. 2001eko urria)



mattia...69 a gustatzealtzan?

kari...aa...nahiago diat...100 ea heldu...aahh

baña mattia ni enaun alleatuko...enaun hazizalea...

hasi hasi, xalea baleike gaur ehunea allatzia ta... aahhgg...69,70,71....



Gabon Koruaren urrezko ezteiak

Gazteen lagundiak eta Andazarrateko eritegia batu ziren Gabon Koruaren sorreran. 1943ko agiri batean esaten denez, Luistarrak eta Mariaren alabak, alegia, bideratzen dira gerrako eta ondorengo sakabanaketaren gainetik. Garai bereko emaitza zen Andazarrateko erietxean zegoen biriketako gaitzaren sendalekoa. Urte hartako Gabon Jaiak inguratu zirenean, gogoratu ziren gazteak herriko ohituraz eta gaixoan beharraz. Egin zuten Gabon Koru alai.

(Agustin Zubimendi, Gabon Koruko zuzendaria. 1994ko abendua. 7. zenbakia)



Eskultura lehiaketak

Maiatzaren 7 eta 8an erabaki ziren Paoleko eta Narrondo ibai ertzeko eskultura lehiaketak. Epaimahai ezberdinek eskultura oso ezberdinak aukeratu dituzte toki baterako eta besterako. Paol muturrerako aukeratu denak "estazio bat, aulki bi, mila istorio asma ditzake tristurak..." izenburua du eta Jabier Elorriaga Galdakaoko eskulturgilearena da (...)

Hiru geldiune kokatzen ditu barra luzean zehar, paseatzerako orduan hausnarketa egiteko aukera emanez (...)

Arte Taldearen aldetik balorazio positiboa egin behar dugu bi lehaketaren aurrean, Paolekoak izan duen arrakastagatik (166 proiektu aurkeztu ziren, gure aurreikuspenak gaindituz), Udalarekin izan dugun elkarlanagatik, aukeratu diren eskulturengatik (...)

(1996ko ekaina. 25. zenbakia)



Baleike Txou arrakastatsua

Ekainaren 27an egin zen jaialdia ikustekoa izan zen. Beheko aldea berehala bete zen eta 60 lagunek goitik ikusi behar izan zuten ekitaldia. Guztia ia 400 ikusle izan ziren, txouan parte hartu zuten 85 lagunez gain. Sarreran bertan hasi zen festa, jendeak arku baten azpitik pasa eta antzerkikoen kanta eta txantxak jasan behar izan baitzituzten.

Behin barrura sartuta jaialdia hasi zen eta bata bestearen atzetik joan ziren ekitaldi guztiak, guztira 2 ordu pasatxo iraun zuen txoua osatzeko.

Denak ere bikain aritu ziren, baina beharbada "Pletorexia" izeneko laburmetraia izan zen gauzarik bitxienetako bat. Asteburu batean grabatutako filmtxo honek Baleike nola egiten den azaltzen du, 22 minututan zehar. Bukaeran jende gehiena zinetik irribarretsu eta gustura irten zela iruditu zitzaigun.

(1996ko uztaila. 26. zenbakia.)



Nazioarteko musika jaialdia, Euskal Herrira zuzendu nahian

XIII. Nazioarteko Musika Jaialdia hurbiltzen ari da eta aurtengo berrikuntzen artean aipagarriena Musika Patronatuak jaialdia antolatzeke hartu duen ardura da, orain arte bilbotar eta italiarrez osatutako CAM erakundearen zeregina izan baita. Udal Musika Patronatuko bi kiderekin hitz egin dugu; besteak beste banda, musika eskola eta koruaren aktibi-



tateak administratzen dituen erakundeko bi arduradunekin hain zuzen ere.

Inazio Tolosa eta Mertxe Argintxona: "aurreko jaialdietako martxa polita iruditzen zaigu eta beraz orain arteko dinamika izaten jarraituko du jaialdiak, hori bai, aldaketa batzuekin: Oskorrik kontzertu bat emango du, Bikondoaren akordeoi orkestra ere bertan izango dugu, Xabier Lizaso oriotarra ere bai piano jotzen eta Kontakarion taldea ere etorriko da Donostiatik antzinako musika lantzen. Guzti honekin jaialdia Euskal Herrira gehiago zuzendu nahi genuke, italiar itxura hori gutxituaz. Bestalde, jaialdi hau kalera eraman nahi dugu, eta helburu hori lortzeko bi emanaldi kalean izango dira, horietako bat Mari kalean."

(37. zenb. 1997ko uztaila)



Laila, euskal kultura harrotu nahi duen museoa

Aurten Zumaiak museo berri baten sorrera ezagutu du, Laila museo berri-tzailea baitu. Erakusketa hutsetik ihes egin nahi izan dute jabeek, euskal kulturaren eta produktuen trukerako gune bihurtzeko. Museo honen proiektua duela bost urte jaio zen hiru laguneren kezka eta burutazioetatik. Orain museoa martxan dela, ez dute proiektua amaitutzat jotzeko asmorik.

"Erakusketa goialdean dago. Bertan gure tradizioarekin zerikusia duten gaiak lantzen dira: arrantza, txakolina, ardoa, oihaingintza... Baserriko mundua, bertako tresnak eta bizimoduak jaso nahi dira. Bestalde behealdean denda daukagu. Dendan euskal artisauek egindako lanak

ditugu, baita kontsumorako produktuak ere, denak kalitatezkoak.

(41. zenb. 1997ko abendua)



650 orrialdeko historia

Datorren uztailaren 3an Zumaiaren historia biltzen duen liburu berri baten aurkezpena egingo da. Liburu hau, Aranzadiko Lourdes Odriozola historialariak urte eta erdiz eginiko lanaren ondorioa da, eta bertan luze eta zabal jasotzen dira gure herriko historiaren gai eta gertakizun aipagarrienak. Zumaiak 650 urte bete dituen honetan, gure arbasoen gainean gehiago jakiteko aukera emango digu lan berri honek.

(47. zenb. 1998ko ekaina)



"Zumaia inguruko ibilbideak" deituriko gida kaleratu da

Orain dela aste batzuetatik gida berria kaleratu da. Zumaiako Udalak argitaratutako gida honetan, dozena erdi ibilbide aurki dezakegu, batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hainbeste. Guztiek, abiapuntu berbera dute, Arbustaingo arranja hain zuen ere. Gidarekin batera, ibilbide horien mapa bat ere eskura daiteke.

(48. zenb. 1998ko Uztaila)



Piropo lehiaketako irabazlea.

Euskarazko Piropo Lehiaketa

Piropo Lehiaketako epaimahaiak nahiko lan izan zuen piropo onena aukeratzeko orduan. Izan ere makina bat piropo polit jaso ziren. Guztien artean irabazlea Xabier Azkuek idatzitako hau izan zen: "Hegan zoazen pinpilinpauxa, har ezazu nigan atsedean". Beste zenbait piropok ere jaso zituzten epaimahaiaren aipamena: "Debekatua egon beharko zenuke dependentzia sortzen baituzu", "Biok itsusiak gara, baina badakizu minus eta minus plus dela", etab.

(1998ko azaroa. 51. zenbakia)

Gora Beti Gazte

Zumaiako Beti Gazte dantza taldea 33 urte bete dituen honetan desegin egin da. Asko ta askok San Telmo jaietan kanpoko dantza talde bat aritu denean jakin dugu honen berri (...). "Azken urteotan zortzi laguneko mutil dantza taldea osatzeko arazoak genituen. Neskak, aldiz, oso gustura zebiltzan, iaz 30 bat neska bazebiltzan eta oraindik ere kalean ikusten gaituztenean dantza noiz egin behar dugun galdetzen digute. Mutilekin beste-lakoa gertatzen da: garai batean eskolatik kanpo egin zitezkeen ekintza bakarrenetakoa dantza zen. Mutil eta neska koadrilak eskolatik irten eta dantza ikastera etortzen ginen, aldi berean dantza ikasi, lagunekin egon eta oso ondo pasatzen. Baina gaur egun batetik bestera kirola dela, bestetik musika,

aukera asko dituzte eta mutil banaka batzuk bakarrik hurbiltzen dira dantza taldera".

(1999ko ekaina. 58. zenbakia)



Dani Carballoren erakusketa Oxforren



"Ideia 'Smoke' pelikula ikusi ondoren sortu zitzaidan" kontatzen du Danik. "Protagonista, Harvey Keitel, estanko baten jabea zen, eta goizero

zortziak puntuan denda aurrera irten eta argazki bat ateratzen zion kaleari. Gero album ezkutu batean gordetzen zituen argazki hauek, eta ezkutuan egoten zitzaaien begira" segitzen du (...)

'Trudiak biderkatzen hasi zirenetik gauzak ikustera' jarri dio izenburua erakusketari. "Argazki segidak fotogramak izango balira bezala antolatuz argia, mugimendua eta hainbat bilakaera ikustea da ideia (...)"

(1999ko urria. 61. zenb.)

Joanitoren omenaldia

Dena da maitasun harreman bat: Kulturen, herrigintzan...



Joanito Dorronsoro, Txirrita hil zen urte berean, 1936an, gerra zitalaren urtean jaio zen, Ataungo San Gregorion eta ez dauka ahazteko bere sorteria. Aita

hargina, J.M. Barandiaranen etxea egin zuena, Joanitok berak ere harreman dezentea mantendu zuen maisu handiarekin. Ez ditu arrenkuraz gogoratzen sotanarekin pasatako urteak; alderantziz, amets eta proiektu handiz beteriko garaia izan omen zuen hura: herri borroka, langileria, elizaren baitako iraultza... Zumaiara apaizgintzara hain gogo onez etorri ez bazen ere (herri txikien goxotasuna nahiago: Gaintza, Itziar...) ez du damutzeko aitzakiarik: Ikastolen sorreran parte hartu zuen, ezkondu, bertso eskola...

(Jon Maia. 2000ko urtarrila. 64. zenb.)



Zelai Azpi 2000

Aurten ere Zelai Azpiko lagunek ireki dituzte tailerreko ateak eta handik pasatu nahi izan duen guztiak izan du maiatzaren 20tik ekainaren 4ra bitartean haien sormen proposamenak ikusteko eta egile beraiekin hitz egiteko aukera (...)

Bakoitzak lokalaren zati bat hartu du, horrela Ander Hormazurik alanbrez eginiko instalazio bat eta objektu eskultoriko batzuk jarri ditu, Txiki Agirre "Keixetak" bere ibilbide pertsonalean aurrera darrai pintura informal, espresionista edo kalifikatiborik gabeko horretan (...) Barbara Stämmelek itsasoan aurkitutako oholak, eskaiolazko objektuak, hondakin industrialak eta abar erabiliz muntaia bat egin du (...) Eta azkenik Aran Santamariaren mundu berezia, isiltasuna espresabide, kolore



Trago bat

Antxoka Agirre

Bileraren ondoren trago batzuk hartzera joan gera, ea trago txarra pasatzen zaigun. Argi begiak ireki-ireki eginda dago oraindik,

irribarrez, Ducadosa erretzen duen bitartean. Kattanek bere ohiko hizjariora bikoiztu du hasteko, eta Maddi eta Perurekin borroketan hasi da gero. Epi deskojonatzen ari da, beti bezala. Estherrek aurrera jarraitu nahi du. Eta Wali eta Xabier ere hor daude eskuan zerbeza bana hartuta, beti bezala zerbait makinatzen.

Ni orain dela bost urte sartu nintzen Baleiken. Argirekin batera lehenengo bajak kubritzera. Ordutik mila istori pasa dira gure eskuetatik, 100. zenbaki hontan azaltzen direnak eta beste asko, eta pentsatzen jarrita iruditzen zait Zumaia hobeto erortzen zaidala duela bost urte baino.

Pentsatzen jarrita pentsatu det baita baten bati poza emango diola, eta triste jarri naiz. Eta pentsatu det beste batzuei pena emango diela, eta poztu egin naiz (ze konplikatuak gean).

Pena bat da Baleike bezalako istori bat uztea. Momentu asko pasa ditugu elkarrekin, tartean on asko, eta nik uste, hanka sartzeak eta zenbaki eskasagoak gorabehera, nahikoa aldizkari xalaua egin dugula. Baina aitortu behar da erreta gaudela (ni behintzat bai). Atera ditugun guzti horiek lan bat eskatzen dute. Eztabaidak, burukominak, presak eta abar. Eta halako batean utzi beharra dago.

Problema da gu ordezkatzeko jendea ez degula topatzen. Espero degu azken zenbaki honekin eman degun 'kantea'-rekin norbait mugitzea eta Baleike edo dena delako zerbaitek aurrera jarraitzea.

Beste trago bat atera nahi dute. Laugarrena da eta ni melankoliko jartzen ari naiz. Pentsatu det gero furgoneta hartu behar detela Zarautza party-rako sofak zabor artean bilatzera Kattanekin joateko. "Ke kojones atea neri're" erabaki det. "Ezta pentsau're, furgonetan hirekin jun behar diat gero eta ja mozkorra hao"; "bai, bai patuko det nik hau"; "ez, nik pauko det"; "nik ez det pauko"; "hik behine ez dek patzen"; "aber azkenengo zenbakietakoa kobratzen deun"; "ez dakit ba nik iritsiko dan, Foru Aldundiaren dirulaguntza ez deu jaso oraindik"...

Argazkiko ume batek utzitako argazkia



1977 urtean lehen jaunartzea egin zuten mutiko prestuak ageri dira goiko argazkian. Gizakia ilargiratu zen urtean jaioak dira gehienak. Ezagutzen al dituzue? Joxe Manuel, Xabier, Jon, Gari, Aitor, Fernando, Ander, Luis...

basikoak, keinuak beste hizkuntza batzuen adierazle, kaxa eskultoriko eta diapositiba proiektzioetan aurkeztuak.

(Jon Mantzisor. 2000ko ekaina. 69. zenb.)



Hilaren 27an aurkeztuko dira Zumaian berreskura- tutako bi film zaharrak

Zaragozako Filmategian agertu eta hainbat berriztapen lan jasan

ondoren, hil honen 27an aurkeztuko dira Aita Mari zineman orain denbora gutxi Euskadiko Filmategiak berreskuratu dituen bi pelikula zaharrak: 1930eko "Arritokietako Andra Mari Amabirjinaren Koroazioa" eta 1924ko "Ongintzazko Txekorketa Zumaian".

(2000ko ekaina. 69. zenb.)

Pablo Milanesen kontzertuan kale, gaine- rakoan ondo

(...) Pablo Milanesen kontzertua apustu handia izan da eta ez da ondo atera. Antolakuntzan gogor egin dute lan, baina kontzertuak suposatzen zuen bederatzi milioiko gastua estaltzeko behar ziren 3.000 sarreretatik 1.200 baino ez ziren saldu. Ea

datorren urterako animatzen diren eta hobeto ateratzen den.

Pablo Milanés "Bakailoa asko gustatzen zait"

Zur eta lur utzi gaitu Martak, Pablaren 'manager'-ak Baleikerako elkarrizketari baiezkua eman dionean.

Esandako orduan azaldu garenean ordea ilun jarri digu Martak, Vicentek, prentsa arduradunak, iluna baino beltzago, eta, Lazarak, jefpeak, garbi esan digu ezetz. Pablo leher eginda dago Birarekin. Kontzertu ondorenean azaldu eta kolatuko gaituztela agindu digute.

Ez da Lazaro azaldu, eta ez digute pasatzen utzi nahi, baina alkateari hesia ireki diotenean, honen atzetik

sartu gara, "udal aldizkarikoak gara, alkateari argazkia atera behar diogu Pablarekin".

Eszenatokiaren beste aldean lunch-a dago (...) Hantxe dago Pablo ere, patxadatsu, siloi batean eserita. Denek nahi dute berarekin hitz egin, argazkiren bat atera edo autograforen bat lortu. Ez da erraza muturra sartzea, baina azkenean osatu dugu elkarrizketa:

Zer da Euskal Herritik gehien gustatzen zaizuna?

-Bertako kultura. Ahozko tradizioa oso aberatsa du herri honek eta hori asko gustatzen zait. Bakailoa ere asko gustatzen zait (bakailoa kaxuelita ari da jaten.

(2000ko iraila. 71. zenb.)



Artista Berrien lehen saria Jon Ander eta Itziar Gartziak

Ez da elkarrekin irabazi duten lehen saria, baina bai garrantzitsua. Izan ere, Artista Berrien lehiaketa honek, sari ekonomiko mardulak banatzeaz gain (lehenengoa miloi eta erdi pezeta, bigarrena miloi bat eta hirugarrena miloi erdia) artista errebela-zioak (30 urtez beherakoen lanak bakarrik onartzen dira) seinalatzea baita sariketa honen funtsa.

Bi lan aurkeztu dituzte sariketara, 'Des-ira' izenekoa bata eta 'in-com' izenekoa bestea. Biak ere ekainaren 16ra arte Koldo Mitxelenan egingo den erakusketarako aukeratu dituzte eta 'in.com'-ekin irabazi dute lehen saria.

(2001eko maiatzak 18. 83. zenb.)



Jon Manziadorren komiki albuma salgai

Pasa den hilean jarri zen salgai aldizkari honek kaleratu duen lehen argitalpen berezia, "I.U. eta bere lagunak" komiki bilduma. (m) izenarekin sinatuta agertzen bada ere, denek, edo ia denek, dakite zein den izengoiti horren atzean ezkututzen den komikilaria, aldizkari honetako kolaboratzaile fina den Jon Manziador marrazkilari, artista eta pertsonaia ikonoklasta eta multiformea.

Pertsonaiak ugaritu egin dira. Aldizkarian ezagunak ziren betaurrekodun pertsonaia inkonformista eta astapotroa eta kroketa baten forma duen I.U. (izaki unizelularra) mutuaz gain, burua kaspaz beterik duen Juan Andres eta Maria Eugenia izeneko neskatoa dira pertsonaia berriak. Guztira 50 orrialdeko albuma atera da bere estilo uniko eta ezagun horretan.

(89. zenb. 2001ko iraila)

Jon Maia laugarren, final zirrarragarri batean

Emozioz betea, hunkigarria, magikoa... alkoholik probatu ez zuena ere bertsoz mozkortu zen joan den igandeko finalean. Andoni Egaña larri antzean ibili zen txapela berriz ere lortzeko, baina Maialen Lujanbioren azken txanpa indartsuari ondo eutsi



zion, goizeko saioan ateratako diferentziari esker, gehienbat. Hirugarren Aitor Mendiluze sailkatu zen eta Jon Maiak postu bikain eskuratu zuen, laugarrena, hain zuzen.

(96. zenbakia. 2001eko abendua)



Utopia motz utzi duzue... Bejondeizuela!!!

JOSEBA OSSA

Beldur nintzen udaberriko lorea bezalakoa izango ote zen. Oso polita, baina aldi baterako... "Hilabetero euskera hutsez aldizkari bat atera Zumaian?", "Zenbat urte iraungo ote du hain proiektu eder batek?". Horrelako galderak zetozkidan burura hasierako urte haietan.

Izan ere, ez zen erraza gai berriak bilatzea, elkarrizketak nori egin aukeratzea eta abar. Bilerak berandu egiten ziren, eta maiz jende gutxiagirekin, gainera. Asmo polita, zoragarria, baina ia ezinezkoa iruditzen zitzaidan...

Eta zorionez, utopia hura motz geratu da. Hilabetero ez... hamabostero ateratzen zaigu orain Baleike! Izerdi asko bota eta estualdi franko igarota, baina hor dugu, bi astean behin, txintxo-txintxo, berri freskoak ekarri, euskera txukunean, eta joera jakin batzuk izan arren, inongo alderdi edo ildo jakini lotu gabe.

Utopiak gainbehera dauden garaiotan ez da marka makala, 100 ale... Bejondeizuela!



The Pack, bizi-bizirik

Zer musika lantzen duzue?

Batez ere Rocka, honen barruan zenbait estilo ezberdinetatik mugituz, eta ska pare bat ere baditugu.

Nola dago musika giroa herrian?

Azken hiru urtetatik hona gauza berriak sortzen ari dira, batez ere instituzio mailatik kanpoko musika egiten dutenen artean, horrek musika lantzeko orduan ematen duen askatasunarekin.

Zumaiako tabernak nola portatzen dira musikarekin?

Denetik dago. Ondo dagoen gauza bat da herrian denetik entzun daitekeela; hiru edo lautan konkretuki ona jartzen dute.

(1995eko apirila. 11. zenbakia)



Atxantatu, gaztetasunean dago etorkizuna

Ezinegonak, konposatzeko gaitasunak eta gehienbat taldekideen arteko ilusio eta gogoetak beren lan-tresna garrantzitsuenak bihurtzen dira. Gitarra zaratatsuak, erritmo emankorrak, koordinazioak, eboluzio azkarrak eta zuzeneko indarrak aldiz, beraien barnetik ateratzen diren nahigabeko espresio arruntak besterik ez dira.

(1995eko uztaila. 14. zenbakia)



A.G. baietz!!!

Urtezahar gau honetan beteko dira 13 urte Ahuntzaren Gauerdiko Eztulak bere lehen kontzertua eman zuela. Hasi zenetenean ba al zen beste talderik Zumaian?

J-Harrikozkorrek zeuden, gero K-txaperoak izenarekin jarraitu zutenak. Hauek, Antxon Elosua, Inazio Tolosa, Manu Aizpurua, Alfontso Iraundegi eta beste batzuk ziren.

Zuen kanturik arrakastatsuen 'Trena badoa' da. Ba al du zerikurisik Urola trenarekin?

I-Kantua Urola trena kendu baino 2-3 urte lehenagokoa da (...)

Garai hartan Taosan ere jo zenuten. Zer moduzko giroa egoten zen?

J- Taosa, 'el centro del mundo' zen. Denok han bukatzen genuen. Gu baino jende dexente zaharragoa ibiltzen zen (...). Han sartu eta jendea kubatak edaten ikusten genuen; gu berriz zerbeza eta gorria gasarekin edaten (...) Musika aldetik 60-70 hamarkadetako musika jartzen zuten (...)

Rock asteak ere antolatu dituzue.

J- Bi rock aste antolatu genituen. Lehenengoan liburuak salgai jarri genituen, bideoak ikusgai egon ziren: Rory Gallagher, U2, Barricada, Sex Pistols... Policeren bideoa ikustera jende pila bat joan zen (...)

Zein dira zuen influentziak?

J- Guk Sanmielko apaizaren influentzia eduki genuen!!

Y- Lehengo musika

J- Led Zeppelin, Lynyrd Skynyrd, 60 eta 70 hamarkadetako kanpoko taldeak.

(22. zenb 1996ko martxoa)



Pribatu Shock: Shock pribatua

Pribatu Shock lagun talde bat da, musika atsegin

duen laukote bat. Abestiak egin eta jotzeko elkartu dira. Antxokak bateria, Sitok baxua, eta Egoitz eta Aimarrek gitarrak jotzen dituzte, abesteaz azken bi hauek arduratzen dira. Taldearen sustraiak Serranilloren lokalean errotu ziren. Musika estilo desberdinak atsegin dituzte, eta barietate hori dela medio, gustuko talde asko dituzte: Rage Against The Machine, White Zombie, Bob Marley... Euskal taldeei dagokionez, Bizkar Hezurraren kalitate asko apreziatzen dute; Bap-ek duen estilo propioz ere atsegin dute. Gustuko dute Ama Say ere, Negu Gorriak... Talde bezala ez dute kontzertu askorik eman. Ez dute nahi, errepertorioa osatzen ari baitira oraindik. Oraingoz abestiak egin nahi dituzte, eta gerora iritsiko da kontzertuak emateko garaia.

(1996ko iraila. 27. zenbakia.)



Po

Izen motz eta garbi honen atzean, musikari familia bat ezkutatzen da. Beraiek ImanolPo, IgorPo eta JonPo dira. Musika zela eta elkarrengana orain lau bat urte bilduak, garai ezberdinak bizi izan ditu beren elkarbizitzak.

PO etapa berri bat bezala definitu dute, lehengotik oso ezberdina den etapa bat. Abestiei buruz galdetu diegunean, bi gauza azpimarratu dizkigute. Musikari dagokionez, estilo

Parking: Udako azken kirola

Ez dago zubi batetik salto egin beharrik, ez eta ibai bateko uretan praktikatu beharrik ere. Zumaian beste herri askotan bezala gero eta gehiago praktikatzen den kirol honetarako, arnes, soka eta neoprenozko trajeak soberan daude. Nahikoa dira, pipa pakete bat, zerbeza batzuk, eta txina pare bat, Amaiako plazan iluntzeko lehen orduak goxo-goxo eserita igarotzeko.



Ehun lagunetik gora biltzen dira bertan gamero gamero.

(15. zenb. 1995. uztaila)

finko batean mugitzen omen dira, nahiz eta margen handiarekin jardun. Entzuten dituzten taldeen influentzia nabaria omen da beraiengan. Letrei dagokionez, berriz, ingelesez abesten duten abestiren bat kenduta, euskara hutsean abestearen aldeko apustua egin dute. Zeri abesten dioten? Ba eguneroko gauzei.

(29. zenb. 1996. azaroa)



Zumaiatik Ilargira

Zumaiatik Ilargira, bidaia polit bat proposatzen digute Iosune eta Iñakik. Aste bukaeran Ilargi tabernara hurbiltzen bazara, antzerki bat, kontzertu bat, festa bat, edota garai guztietako rock musikaz gozatzeko aukera izango duzu. Egia esan, kontzertu bat ikusteko jaiak izan behar diren herri batean pozik jasotzen dira berri hauek, gure denbora libre betetzeko zeregin interesgarri bat izan daiteke edozein ikuskizun. Eta hau herritik atera gabe bada, zer gehiago eska genezake?

(34. zenb. 1997ko apirila)



Baratza Bass Band: autoelkarrizketa

Lehenengo galdera: zer esan nahi du Baratza Bassek?

-Ba al dakigu? Imanolen inspirazioa izan zen; kontzierto prezipitatu baterako asmatua.

Zer Musika jotzen duzue?

-Reggae, fusion.
-Patxanga.
-Reggae patxangeroa.
-Reggae, ska eta influentzi rockeroak
-Black music...

Nolatan black-music Zumaian zazpi zurik eginda?

-Gure sustraiak ez dira, baina azken finean denok gatoz Afrikatik.

Zergatik ikusten dira Bob Marley-ren hainbeste kamiseta?

-Jendeak guaya izan nahi duelako.
-Erlijoogatik izan daiteke.

-Baina gazte hauek ezagutzen al dute ba rasta filosofia?

-Keba!
-Benetako rastek erlijioa jarraitzen dute, musika entzun, eta jantzi ere



Inuzenteak vs. zitalak

XABI AIZPURUA

Inuzente xamarra izan naiz betidanik, zer egingo diogu ba! Zuen

zitalkeria baino sanoagoa delakoan nago. Ez dit ematen behintzat zuei adina burukomin herri informazioan amesten duen lagun talde batek.

Ez da denbora asko erredakzioan lanean hasi nintzela, baina nahikoa izan da egoeraz jabetzeko. Eta orain, ale hau irakurtzean, gustura jakingo nuke zenbat irri txiki sortu den zuen bulegoetan. Zorionekoak zuek, kontzientziarik gabeko agintariok! Segi lasai herriari burmuinak beratu nahian buzoian sartutako panfleto partidista horrekin! Uste al duzue normala dela urteetan jokabide zital hori edukitzea herritik sorturiko komunikazio proiektu batekin?

Duela urte batzuk munduak beste era batera funtzionatzen zuela uste nuen, eta gizartea logika batekin zebilela pentsatzen. Inuzentea ni! Hala ere ederki aprobetxatu ditut hilabete hauek, ondo pasa eta nahi dudana idazteko aukera izan dut-eta. Inuzenteok holakoxe plazer txikiekin gozaten dugu.

Orain arnasa hartzeko garaia iritsi da.

era batera egiten dira.

- Bob Marley-ren kamiseta porro bat erretzen duen edonork janzen du.
- Triangelu bat da: reggaea, porroa eta Bob Marley-ren kamisetak, rasta filosofia baino gehiago.
- Irudi sozial bat da.
- Saltzeko. Marketing.

Eta zuek marihuana eta reggaea ondo nahasten al dituzue?

- Marihuana da, tio, ambientea sortzeko, tio, ta ez dakit, tio, lasaitzeko.
- E! Bi erretzaile pasibo ere bagaudela taldean...

(36. zenb. 1997ko ekaina)



Ajopuerro Kolinegro, Argiñanoren menuren bat ote?

Izenak jatorria Forgesen pertsonaietako batean du. Izena asko gustatu zitzaigun eta marrazkia ere bai. (...) Hasera batean, Gartxi, Mojo eta Uhin elkartu ginen lokalean kontzertu baterako eta bost minututan prestatutako bi abesti jo genituen. Gero "serioago hartu genuen eta Ilargin debutatu. (...) Azkeneko bi kontzertuak bi partaide gehiagorekin jo ditugu. Taldea honela geratu da: Gartxi gitarraz eta kantatuz, Mojok baxua jotzen du, Uhinek bateria, Iñigok tronboia eta Sismak tronpeta. (...) Kanten izenburuak ondo landuta ditugu, baina letradunak bi besterik ez dira. Beste guztiak izenburuaren arabera inprobisatutako letrak dira. Letra dutenak oraindik ez ditugu ikasi.

(39. zenb. 1997ko urria)

Atxantatuk entzuleen saria Euskadi Gaztea maketa lehiaketan

Atxantatu musika talde gazte zumaiaarrak, Euskadi Gaztea irrati kateak antolatzen duen maketa lehiaketan sari garrantzitsua irabazi du. Sari honek ate dezente ireki diezazkioke musika munduan, batetik lehiaketa honek prestigio handi xamarra duelako eta bestetik konpaktu batean beren bi kanta grabatzeko aukera emango zaielako.

(41. zenb. 1997ko abendua)



Atxantaturen maketa berria

(...) "Estiloz gogorxeagoa da aurrekoa baino, pentsa, grabatzerakoan geu ere harritu egin ginen pixka bat, "hau gogorra dek, eh!" genion. Baina lanarekin oso gustura gelditu gara. Bai grabazioaren kalitatearekin, baita abestiekin ere, kontentu gaude. Gainera bigarren esperientzia izanik lasaixeago hartu dugu, eta abestiak borobiltzeko garaian ere instrumentu gehiago sartu ditugu, bai bongoak, gong-a..." (...)

(1999ko iraila. 60. zenb.)



Nidel

Hasteko komentaiguzue nola hasi zineten Nidel moduan

Bueno, Aimarrek Pribatu (Shock) utzi ta gero komentau zigun ba nunbaiten jotzeko gogua zakala. Ta Gartxik lehen Burukin jotzen zian bateria, baina etzeon hola gruporikan ta

ezerre. Gero egon ginan kantatzeko batenbat bilatzen.

- Saiatu ginan Kristinarekin, bueno guk ez geneuzkan ideiak oso klaro, zer nahi gendun ta hori.
- Eske nahi gendun marrua batzuk, nesken marruak edo talderako. (...)

Eta nola ikusten duzue Fermin Muguruza bezelako bat?

Pankarta andante bat mikrofono batekin.

Gainera kuestioa da tipoak berak esan egiten dula, letretan ez badik zeozer errebindikatiboa esaten bera ez zala musika munduan egongo.

Honbre, garbi dao berak musika tresna bat bezela erabiltzen dula bere ideiak zabaltzeko.

Idea zabaldu, ideia zabaldu...

(Jon Mantzisor. 74. zenb. 2000ko abendua)



Karidadeko benta

Mahaiaren bueltan, bakoitza berera, elkarri txustarrak pasatuz Bentaren jatorria azaldu du bertsolari zaharrak "garai bateko benta zen, Zizurkil ingurukoa, eta han elkartzen ziren orduko bertsolariak: Pello Errota, Xenpelar, Udarregi... nahiko giro ona egongo zen zulo hartan eta harekin konektatuz, gaueko eta bentako giro berezi horrekin lotzen dugu gure jarduna"


(...) Adar jotzeak eta arratseko patxada batera dabilta mahaiaren bueltan. Elkarrekin dantzan estilo ezberdinak bertsoak eta arabiar doinuak, tinbalak eta sorgin ahotsak. "Aniztasunak konplikatu baino gehiago erraztu egin digu lana, bertsoek beren melodia dute, orduan horren gainean eta horren bueltan zerbait eraikitzea da".

(91. zenb. 2001eko urria)



azken egunak azken egunak azken egunak azken egunak azken egunak

Txiringua itxi aurretik despedida polit bat egin nahi izan dugu, eta inprobisatzen, erakusketa, kontzertua eta partya atera zaizkigu. Danak arrakastatsuak izan dira eta oso gustora gelditu gara. Kontzertuan Karidadeko Benta, inoiz baino dotoreago eta estilosoago aritu ziren, eta Ruper, berriz, betiko kategoriarekin. Mila esker Estiri eta goitik animatzen jardun zuen "inkondizionalari".



Erakusketarako argazkiak montatzen ari ginala konturatu ginan Ertzaintzak baino fitxero zabalagoa daukagula... azaldu ez zana, etxetik ateratzen ez dalako




partya partya partya partya



kamarero lanetan ere trebeak gerala demostratu deu, e Kattan? txapeltxo horrekin Tom Cruise emate huan... edo Ozores?
Aritz Sound System eta Selektak Kolektibokoak gau guztian musika bikaina jarri zuten. Mantxiren proiektioa ere oso ondo.
Salda ere begizulo galantakin etorri zen hainbeste lan egin eta gero. Eskerrikasko Josu, Igone... eta lanean jardun zenuten denei eta zerbeza dana eran zenutenei. aupa zuek!



buruz bera hasi
ta buruz bera bukan,
eskumina'ak familyai.
ayo!



BALEIKE

Herria EGIN-eko 11
lagierokiko elkaritzak

BALEIKE

Xabier Arangurenekin
6 bilduma Andeetan zehar

BALEIKE

Mondia behere,
erruzitua Itasora

BALEIKE

Presone eskabideen aldeko
erabilerak zabala

BALEIKE

Gazteko erlijioak
gizteak

BALEIKE

Presone eskabideen aldeko
erabilerak zabala

BALEIKE

Zapalak lepora!!

BALEIKE

Pelipok Leizaola
lepora terria da

BALEIKE

Eidal igaribak
arabiztako presak

BALEIKE

Bilurde Peñak berri
abuztu PSE-riko babeserakia

BALEIKE

Olar Jazperra
Mondialekin el

BALEIKE

Narrazioa: pazientziaren
seka etofetako zozien

BALEIKE

Estrean Eriak,
Euzko Herria txupelak

BALEIKE

Zuzenak
Rendoren postarrak

BALEIKE

Ekarizketa: Pato Arieti
43 egun geroz greban

BALEIKE

Jende Oso
renasierro, Aizkorren alde lausoen

BALEIKE

Isidoro Elcabeit
"Bilurdeko da izido bakarra"

BALEIKE

"Tzuto"ren
heriotzaren espalatu kontrabandakoa zuzia

BALEIKE

Non dago
haundera?

BALEIKE

Basiko
Jazperrizko kiroi portuaren leizola nabai da

BALEIKE

multa zaparrada
regimenak

BALEIKE

Herria
minez

BALEIKE

Bizimut
erazioa Karla (familia)

BALEIKE

Datorrean
bait!

BALEIKE

Parroko
berria herrian

BALEIKE

Isidoro Tolosa
Bilurdeko kiroi, Olatzak taldeak

BALEIKE

prentsa,
korporazioak, hizkuntza eta nekazaritza

BALEIKE

multa zaparrada
regimenak

BALEIKE

Akoholikoen
sanidaskiak

BALEIKE

Algorri
eta iridie kape

BALEIKE

Goiako
Plazan

BALEIKE

Zuzenak
Tocenen

BALEIKE

Anbulatorioa
prentsa eta korporazioak

BALEIKE

Jon Ander
eta Itziar Garcia

BALEIKE

Jon Ander
eta Itziar Garcia

BALEIKE

Zuzenak
Tocenen

BALEIKE

Heldi Oso
Goiakotzean

BALEIKE

Sar Denak
eta Meritxo Elorbe

BALEIKE

Kontxara!!!

BALEIKE

Urrutiko
begiradak

BALEIKE

Luis Mari Alberdi
Mundako Txupelak

BALEIKE

Luis Mari Alberdi
Mundako Txupelak

BALEIKE

goiko plaza
Zuzenak eta Tocenen

BALEIKE

Kontxara!!!
2005ko kupa heriotzaren sek

BALEIKE

Urolako
trenak...

BALEIKE

ibiztako
komuna(j)

BALEIKE

Zuzenak
Tocenen

BALEIKE

Zuzenak
Tocenen

BALEIKE

Zuzenak
Tocenen